



BIGARRENGO ABARRAK

Ebaristo Bustintza «Kirikiño»

Iturria: *Bigarrengo abarrak*, Kirikiño (Santi Onaindiaren edizioa). Geu, 1980.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KirikinoBigarren.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Eusko abendaren poz, gatz eta gogo osasungarriak darizkion Kirikiño'ren *Abarra*'k, abek berak, orain urte gutxi agertzen ziran alaiturik aberriko tontor ta zokuak. Inoiz, idazti bat au bezelakorik muturka, burruka, irakurri naiez euskeldunak ibillarazi zituenik, ordu arte azaldu ote zan? Biarrak, eusko biarrak aginduta etziran orduan eskuratzen euskel lanak, artu ta beriala bazterrian beren orriak ebaki gabe uzteko? Loretuta euskel lan abek galtzen eztiran zimurtuak beriala, abertzale abo-zabalen aurrian? Ta urte beltz oietan nola *Abarrak* bereganatu zuten eusko erria?

Egun atsegiña ikusi genuena. Guda burruka aundi bat irabaztiak baño on geiago, askoz ere, ekarri zion aberriari egun arrek: len *Enzkadi* egunerokoakin bezela gero *Abarrakin* erriaren erraictara, eldu zalako gure Kirikiño.

Erri ontan euskotar jaiio, burutik oñetara, oso osorik, eusko erria ta eusko erriaren izakerari zana ta zubena eskeñia, inork ez bezela Kirikiño'k bere eusko ezaguerarekin gure gizasemeen jaun ta jabe beriala gelditu zan, beste idazlari asko, zatorren antzera, lurpian edo goiko lañuetan zebiltzala, eusko biyotza ukitu eziñik.

Jaun ta jabe genuben emen; eusko sendien on utserako, ez griña berekorrak bultzata beko ondasun zale izanik. Gizon ona, onik emen ba da, gizon apala, ixilla, goitik bera inñori begiratzen etzekiyena, diruari ta aberatsari bakarrik zekiyen bekoki beltza jartzen.

Altxa, indartu bazuen euskera inork ez bezela, goratu ta sendotu bazun eusko sendia, bere etxe ta sendiak etzuen Kirikiño'ren berrogei urteko neke izerdiarekin askorik aurreratu. Aneika saldu ziran *Abarrak*, ontan gaudelako diyot au, eta lauerleko bat bere idazti onengatik eztuen jaso eta ez eskatu ere.

Enzkadi ta abertzale batzuen bidez ateratzen dira orain bigarren *Abarrak*, Kirikiño goratu ta utzi zituenei eskerrak nolabait agertzeko asmoan. Bizkaitar zuzen ta bulartsu onekin amalau urte, urte gogorrak,



Euzkadin'n egin ditudalako, nere izena ikusi nai luteke emen aberkide oiek, eta poz pozik dijua.

Euskadi'ren alde, nekatu gabe, Bustintza'rekin irri-parrez, Aberria jasotzen ikasi dezagun. Orixe erakusten digu.

Arantzadi'tar Ingartzi.
Getxon'n, 1930, Dagonilla, 5'an.

BARREGARRIKERIJAK

Beti-beti auteskundiak edo erri-zuzentzak edo orrelako gauza benak erabagi barik, ondo da noz-edo-bein gauza arintxuak, barregarriak erabiltia be, norbere goguari atsedean (deskantsu) apur bat emoteko.

Arazo astunak erabili oi dabezan gizon guztiyak egiten dabena da, noz-edo-bein olgeta batzuk egin, arazuak alde batera utzita, eta ori egiñaz atsedean aundija artzen dabe.

Guk be gaur orixe egin biar dogu, olgeta batzuk esan, ta barre batzuk egin. Barre-egitia osagarrija da, barrerik egiten eztauna galdua dok.

Orra ba:

* * *

Aitatu gura eztoan Bizkai'ko erri txiki baten jazo zan emen oraintxe esango doguna, «Jose Zorri» gixontxu zindo biargin ta on bat, ardanetxian sartu zan igande arratsalde baten; musian bere lagunakaz jokatu eban goiz-aparija, ta gero, apal-ostian, barriketan zalia zan lez, bera lako beste batzukaz asi zan ardanetxeko sutondoan txaliñari eragiten, eta igarri barik igesi eutson aldijak, eta gaberdija urrian zan etxeratu zaneko.

Erdu zan etxera ba *tenplau tenplau*, gertu, bere andriaz barriketalki bat egiteko; baña au asarre bixijan eguan, gizona ain berandu etxeratzen zalako ta apaiten be juan etzalako. Sartu zanian «Jose Zorri» euren logelan, asi yakon andriari berbetan edo izketan, eta onek bere asarrian, ez eutson bape erantzun. Ikaratu zan gizona, andria gexorik ete-egualakuan. Barriro be itz-egin eutson andriari iru edo lau bider, ta onek bein be ezeutson erantzun.

Larritu zan gixon ori, ta ixi-ixillik alde egin eban etxetik kale-alderantz, bere artian estututa esanik zer euki ete leian bere andrak oitadiak, euberdi-ostian osasunaz bete-beterik itxi ebala-ta.

Eldu zan medikuarenera, jo zituan atiak eta andik geruago, esan-erantzun luziak etxekoekaz eukita, atara eban medikua ogetik, eta beragaz batera eruan eban.

Bidian esan eutson andria guztiz txarto parau (jarri) yakola, «berba barik» eguala.

Andria eguan lekura eldu ziranian bijak, bildurtu ta ikaratu zan au, zer ete-zan eta bixi-bixi eperdi-ganian jezarri zan, beso bijak jasota sermoi



itxela egiten eutsolarik bere gixonari, ia zer erabillan ain berandu etorrira gero basterrak «endredetan», mediku jauna be bere etxetik biarrixan barik atarata...

Medikuek osteria pipermiña lakoxe arrazpiaz esan eutsan «Jose Zorri»'ri ia a zan berba barik eguan andria, ak berbia geiegi be bai-ebala ta ordu aretan bera etxetik ataratia zala ordijen egitadea, ta merezidu ebala eztakit zer be egitia, ta berari polaiña tentetan ez ibilteko, bestelan ezta- kit zer ta baidakit zer egingo ebala ta onan.

«Jose Zorri» gixajua zapal-zapal eginda itxi eben, alde batetik bere andriak, bestetik medikuak. Zelako arramuskadak entzun biar izan zituan berak; eta dana zan borondaterik onenagaz gauzak zuzendu gurarik ibilli zalako.

On-egitiagaitik alakoxe eskarrak artzen dira mundu onetan sarri.

ARAMAIO'REN DEABRUKERIAK

—Ori da agurearen meia!

—Zelan? Aramaio?

—Aramaio dau izena. Angoa da-ta... Arroaterdi astun ez da bera.

—Ez; baña orren makar ta orren zar ta orren triskil dakutsun agure eskale orrek, lengo gau baten makillaka apurtu zituzan lau edo bost mutil gazte-sendoak, ta ganera txis egin eutsen burutik beera.

—Bateko ori bota dozu ba, gizona, ta biribilla bota be!

—Banekian guzurtzat artuko zeustala, baña ezta guzurra. Gertaera ori ikusi ebenak eztira urrin bizi; orraitino euren testigantza edo lekuko- tasun barik be siñistuko dozu, azaldu daitzudanian zelan izan zan.

—Ia ba, asi zaitetz esaten, ta ikusiko dogu siñisbiderik daukan ala ez.

—Ara ba: Len aitatu dodan gabea ei-egozan Urkiola'ko ostatuko suetea lau bosten bat mutil gazte arrokeria erioela, batak au ta besteak ori, inun direan ausardikeriak edo balentikeriak esaten. Sendoak eurak ta ganera barrua ondo berotuta Naparroa'ko edari baltzaz, aupadaka ebil- tzan, inguruetan ez egoala eurai aurre emoteko gizonik, eta inok urten gura baeban urteteko, ta eurai atzera eragingo eutsenik ondiñokoan etza- la jαιο ta... orretara arroen arroaz praktetan be artu ezinda.

Arrokeri guzti onek ezer bagakoak zirean, bada euren entzulak iru edo lau emakuma, ostatuko morroi bat, irurogei urte ingurukoa, ta bake- tsua bera ta Aramaio agure zimela zirean. Onek, alango baten esan eutsan morroiari:

—Manu, gurok bioen artean lepoak berotu daioeguzan onei?

—Burutik ein yak ala? Gu zer gozak ba orrentzat? Bai, mutillak yau- zak eurak orretarako!

—Ba ik gura ezpok, neuk ingo yoat.

—Eiñeik gura badok; baia errezke agur eingotzak sekuleko Aramaio aldeari.

Alde egin eban sukaldetik Aramaio orrek eta atari-aldeko eskepean ixil-ixilik aulki luze bi zearretara ipiñi, aupada-santzoa jaurti, makilleagaz arrast egin lurrean, eta aotsa (boza) aldatuta esan eban deadarka:

—Urten ona barriketan or dagozan ollo-kumak!

Au entzun ordukoxe, jagi mutillak egozan lekuetatik eta amurrututa, tximistak legez, urten eben atarira. Eskuko atzak be etzirean ikusten an ta jo eben bernazakiakaz aulkietan, eta lurrera jausi zirean bata bestearen



ganera, aieneka ta erdi arnas barik, miñen miñaz. Inoz bernazakian olango blautadarik artu dabenak badaki min ori zein zorrotza ta zein eroan-eziña izaten dan.

Bitartean agure gaiztoak ezaban galdu astirik; erabili eban azkar makillea, erruki barik joten zituzala buruan nai edozein lekutan. Eskaratzetik argiakaz etorri zirianeko, eiotu zituan naikoa ta alboko gela batera sartu zan.

Erdi errenka eta buruak zaurituta ebilzan mutillak, eta guztiakana agertu zan Aramaio be, sekulan plater bat apurtu ez-paleu legez. Manu morroiak esan eutsan belarrira:

—Ik ein dok demoniñokeria! Yakingo baluek yakin... ire gixaxue.

Baña nori buruak emongo eutsan Aramaio lango agure zar koitau itxuradun bat izan zeitekeala alango barrabaskeriaren egillea? Zerbait artetu ziranean makillatuak, guztiz asarre ibilli zirean etxe-inguruko ta etxe barruko bazterrak aratuten, ia aurkituten zituezan arerioak, bertan zatituteko gogoaz, baña... iñor bere ez. Zelan, eurakaz batera baebillen arerioa bentasun (seriotasun) andienagaz ziñotsela: Gizonak, mundu honetan asko ikesteko asko bizi, bestelan nok esango euskuan guri orretaiko gaiztakeria egitia burura etorri leikiola iñori?

Bein suetean batu zireanean, buruetako odol-uneak osatuteko gauzarik onena zer izan zeitekean eztabaidan asi zirean atso-agura-mutillak. Aramaio'k ziñotsen:

—Jentiek, nik olango gauzetan zuek baño jakituri geiao dauket, zuek baño geiao ikusi doalako, ta neuk diñotsuet eztauela gizon elduen txixa baño gauza oberik orretarako, ta txix oi bero-berorik izan ezkeroko askoz obeto.

Atsoak be sendotu eben eretxi au, txixa langorik ezegoala atarako-ta. Urten eben emakumok eta bakarrik geratu zireanean agure-mutillak, Aramaio'k esan eban:

—Mutillak, zetan arraio ibilliko gaituk katillu batera txixa ataraten? Neuk botakotzuet kontuz-kontuz bakotzari txix apur bat, eta olan otzitu barik artukozue erremediue.

—Errekotxo, txarrikeri ori be bai? erantzun eutsan mutil batek.

—Zer txarrikeri? Zer yaukek ba? Kuraziño gauzetan txarrikeririk etxaok, edo obeto esateko, txarrikeriak izaten dozak guztiak, baia etxok iñok aintzat artzen.

—Tire ba, tire ba.

Jezar leku batera igon eban Aramaio'k eta... egitekoa egin eban. Andik lastertxu alde egin eben mutillak eta ziñoan agureak suetean:

—Arrotxo ibilli zarie, baia zeuenak badaruazuez, gaztiak eta senduek izan arren. Zaarrak giñiala-ta, orrenbeste aupada entzun bear geiñduan ala? Zaarrai itxi bake-bakien... zaarrak asko yakiek-eta.



ALPERREKO GAUZAK SOÑIAN

Arañegun goixian ikusi neban atarte-zapatari bat, lanian zintzo oinugalaz gogor lotuta eukola belaun-ganian zapata bat zoruaz gora, ta berau alonduaz josten, beso bijei alboetara indartsu eragiñik, egaiz egiten asi gura ba'leu lez.

Orain arte eztozu ezer esan ikartzekorik, baña jarrai irakurten.

Bere soñekuak ziren abarketa zarrak, iñoiz baltzak izandako praka arreak (pardoak), garriko baltza, txaleko gorriskea, mangutsik, eta aurrealdian naruzko-amantal me-me ta birrist argi egitebana. Gorantza jota bere sama baltz igerraren ganian agiri yakon bere buru, gaztaña txikola lakoxia, arpegi estua, bibote erre erkintxua ta bedar artian taketa lez zigarro mutxikin amataua bertan.

Eta buruan betiko txapel koipeztuaren orde, lantzeruek eruaten daben lako burdiñazko txapel edo kaskua, oi-goian bere piku ta guzti. Itxura bat beukan! Karikatura politagorik ezto azpaldijan ikusi.

Barriari eutsin eziñik esan neutson berari:

—Zer darabixu Txinpas, buruan traste ori ipiñita?

—Ez al naiagok ba dotore?

—Bai bein! Baña ezin ulertu dot zer daukon zeikuski zapata-zoruek jostiak buruan daukozun soldau-txapel burdiñazko orregaz.

—Bape zeikusirik etxaukok.

—Orduan zegaitik daukozu?

—Ba, oixe bururatu yatak eta... jantzi egin yuat eta... or daukok ba!

—Eta nundik nora eskuratu dozu beroi?

—Ara; lengunian aldatu zuen etxe onetatik Abando aldeko-kale dotore batera Don Makaiño, ta tellatupeko gelan eukozan traste zar guztiyak, saltzeko ardurea neuri emon yeustan eta antxe aurkitu naiuan txapel au. Don Makaiño'ri eskatu neutson berau, baietz esaustan, garbitu yuat alik ondoen eta emen naukok, gudari edo militarrik bibotetsuenari musien jokatuko neuskijola, ta irabazi, azunberdi txakolin. Txapel au ei-yeguan Don Makaiño'nian karlisten azkenengo gudatetik (gerratetik).

—Len be ezauna zara emen inguruan; baña buru-estaldi orregaz Bilbao'ko zapatrakirik ospetsuena ixan biar dozu.

—Andija dok! Ikaratu egiten zarie nik au jantzi dodalako, zapatak barriztuteko onakorik ezjala biar esanda. Ba, egunero zabiltze onelakoxe gauzak ikusten eta bape etzarie ikaratzen. Ator, ator onaxe, burleti.

Besotik elduta euan ninduan ate-birrinbillara ta andixik atzamarra luzatuta esaustan:

—Ikustok a? Ondo begituiok.

Automobil bat eguan geldituta eunzuri denda andi baten aurrian, eta burdizain edo chauffeurra zutunik onduan, besuak eunduta, itxaroten bere etxekandria denda aretatik noz urtengo zan.

—Zein diñozu, chaufferra ala?

—Berbera. Orain esaistak, zetako yoazak orrek naruzko polaña bat-batuok, burdi orretan jezarrita geldi-geldi egon biar ba'yok?

—Ezetako bez; bere lana egiteko eztau orrek polañarik biar.

—Ez ba, mendijan zetan-edo-atan dabillan batek polañak erabiltia ulertzen dok, praka barrenak, urratu ta zirtzildu eztakijozan, ota, giñarra, elorri, arantza, ta ostantzeko larrak elduta; baña burdijan arkoloka jezarrita ibilteko polañak? Txarreterak be bardin ipiñi leikezak, baita morrala be!

—Ori olantxe da izan baña... zer gurozu! Apaingizat janzteituez orretaiukuak. Gitxi-asko, danok darabilgu soñian biar-biarrekua eztan gauzaren bat, apaingi edo edergarritzat.

—Ba, nik be zaldizko soldau-txapel au orrexegaitik ipiñi yuat, atsegin yatalako, ta kittu: nok yaukak zer esanik?

—Zer esanik ez baña barre-gurea bai, zure itxuria ikusita. Orain zuk lez, beste zapatrak guztiyak be ipiñi ba'daiez orrelako burdin-txapel, aldi-txu baten begiak oituko yakuz, ta gero eztautso iñori barrerik ez mirarik egingo, danok ikusiko doguz zeuen kaskuok orain chauffeurren polañak ikusi oi doguzan baxen adiraje.

—Utzi naik, eure pillosopokeriakaz makillatu barik. Nik bai-yarabillat bai, ta or konpon: ikusi gura eztaunak eztaiala begitu, ta barre egin gura daunak egin daiala errementau arte be gura ba'yok, niri ardura yaus-tak bost! zuen koplak guztijekaitik; bestelako txotxorrillo gazbakuok alakuok... zer ba?... gizon ez al dok bere buru bere janzkeran ala?

Onetan utzi neban Txinpas, geruago sutuago, ezpanak dardar ebilkozala asarriaz, ta bere esanak amaitzeko antzik ezebala.



BURUKO MIÑA TA BIBOTIA

Emen gaur edesi edo kontauko dautzuedana, Bilbao'n bertan ondiño lengo egun baten jazorikua da.

Zaldun urtetsu bat aspaldijan txarto ebillan, txitian-pitian ixate-ebazan buruko min itxelak; bekokijan ixaten ziran miñok, baña, zelakuak? esan eikian erdibitu egin biar yakola bekoki-azurra.

Onegaitik ete-da, orregaitik ete-da, alegiñak egin ebazan zaldun orrek bere gatxa kentzeko, baña dana alperrik, oñaze edo tormento bixi baten igaro biar ixaten eban egunik geiena.

Juan zan ba bein bere adiskidia dan bilbotar osalari ospetsu bategana, ta esan eutson zer jazoten yakon, eta eskatu eutson emoteko berari buruko min ain andijak kentzeko osakiren bat.

Osalari ospetsu onek, zati baten berari begira zorrotz-zorrotz egonda gero, erantzun eutson:

—Bibotia kenduixu.

Zaldunak bakan eretxi eutson esakun oni ta barriro beste ekiñaldi bat bere gexuatzaz eginda, esan eutson osalarijari:

—Baña, ezteustazu emongo, adiskide orrek osaki bat gexo gogaikarri au kentzekua?

—Kenduixu bibote ori; esan dautzut len be.

Ta geiago barik, osalarija jagi zan, eta alde egin eban bestiaren aurretik, arpegi illunaz.

Zalduna urten zan kalera ikaratuta; aurkitu eban laster bere aiskide bat, eta onek itandu eutson:

—Da? Buruko miñok, zelan dabiltz?

—Egin-eginian be ointxe nator, ba, Urlija osalarijaren etxetik eta beragaz yazo yat gauza barregarrija. Azaldu dautsot ba neure gatx au, ta bakixu zer erantzun daustan?

—Zer?

—Bibotia kentzeko!

—Oixe dok ona! Baña... olgetan esan ixango dau.

—Bai, zereko olgetan! Ondo seriyo esan dau.

—Orduan kenduixu.

—Kendu egingo ete-dot ba?

—Ba osalarijak agindu ba'dautzu...

Zaldunak bere etxian be, esan eban osalarijaz euki ebana; entzunda barre egin eben, eta aiskidiak esan eutson lez, etxeuak be esan autsien bibotia kendu egijala, jakintsuaren agindua betiaz.

Alantxe ba kendu eban bibotia, ta arrigarrija! egun atan min gitxiago euki eban buruan, bijaramonian bapez, ta andik aurrera eztau susmau buruko miñaren azterrenik be; guztiz osatuta. Zelan ixan leiteke ori? Zer artu-emon dauke buruko miñak eta bibotiak? Ala sorginkerija ete da?

Eztago sorginkeririk. Ona emen azalbena edo *explikazionea*.

Zaldun urtetsu orrek, bere burua gazte antzera ipiño gurarik, bere bibote urdiña *pintau* egiten eban. *Pintetako* erabilten urak emondako lurrurra sudur-zuluetatik gora juaten yakon barrura arnas-aixiaz naste, ta orrek ekarteutson buruko miña.

Osalarijak itxuraz lendik bai-ekijan iñoz bibote-pintureak buruko miña sortuten dauala.

Orain guk be bakigu. Zain, agure eze gordiñok!



ARDAUAK ON EGIN

Ni eskola-mutikua nintzanean, atso bat, *Drake* gatx-ixenduna, bixi zan gure errijan, mardo-mardua bera, ta al ebanian ukondoa goitik erabilten zalia.

Orregaitik, amaika bider ikusten gendun *Drake* ardanetxetik bere etxeraño bitarteko Eleiz-Arriaga deitzen etxiaren aurreko bide-mallan jezarrita, batzuetan arnasa artzen nekatu zalako, beste batzuetan gauza etzalako *asko geiao* ibilteko.

Bein gexotu zan atso au, ta txarto. Nik orain eztoz gomuta zer euki eban. Dana dala, egunik egunera txarto yoian, ta osalarajak adirazo eutson Drake'n alabeari, (alaba ezkondu ta sendidun bategaz bixi zan-ta) Elexakuak artzeko ama gertau biar ebela, bijaramonera nekez bixirik elduko zala-ta.

Alantxe ba, arratsalde aretan, berandutxuan, eruan eutsoezan Elexakuak Drake'ri ta gero, abadia etxetik urteteko zanian gexuak esan eban zeozer, igarten zala gauzaren bat eskatzen ebala.

—Zer diño?, itandu eutson abadiak Drake'n alabeari.

—Orra ba jauna, esaten be lotsa ixan leiteke; baki beorrek gure ama zelakua dan, egunokaz eztaust bakerik emoten beti ardaue moteko berari.

—Ba osalarajak esan daunez, eztauko aldeiterik erijotzatik, gaur gabeau il biar dau, ta olan dan ezkeru, ardaue emonak ezin leio gatxa geitu, ta beraz, emioizu atsegin edo gusto ori.

Alabeak, bakarrik gelditu zaneke, deitu ta esan eutson neskato bati:

—Urljjetxu, juadi arin-arin trabenara ta ekarri-dan kuartillu bat ardaue.

Ekarri eban, eta alabeak eruan eutson amari edontzi bete, ezkerreko besuaz burua piskat jaso-ta:

—Ia ama artu *tragotxu* bat esanda ipiñi eutson edontzi ezpanetan.

Atsuak egin eutson dangada on bat edontziko ardauari, ta esan eban:

—Ai au don gauzien gozue!

Ezpanak be miazkau ebazan.

Andik ordu-erdira-edo, igaro zan osalarija etxe-aurretik, eta ikusirik Drake'n alabea ate-onduan, itandu eutson ia gexua bixi ete-zan ondiño, ta baietz ba. Orduan sartu zan, gexua ondo ikustau eban, ta uartu eban, ikarratuta, len baño obeto eguala. Zer ete-zan ezin igarrita, esan eutson andriari:

—Oni ezer emoutxozue ala?

—Ara ba jauna... ba...

Gorri-gorri eginda geratu zan andria zer erantzun ezekijala, ta osalarajak au ikusirik, eta geiagu estutu ez gurarik, alde-egin eutson esanaz:

—Ba ezer emon badautsozue emioizue barrero be, on egin dautso-ta, len baño askozaz obeto dago.

Au entzun ezkeru, jakiña, alabeak amari txurrutadtxua emoten eutson beti-be eskatzen eban bakotxean, eta geruago ta obeto, orra or Drake osasunera etorri zala *mama gozuaren* bitartez. Andik geruago urte askotan bixi ixan zan Drake, zar-zar egin arte.

* * *

Ori olan ixan zan arren, ez gero etxian daukozen gexuari ardaorik emon, bati on egin dautsonak beste bati kalte egin leio-ta.

Ara: Murcia'n iruen beroenak (calenturas terciadas) ain ugarijak diran alde aretan, gixon batek eukazan gustizko zallak, ezin kendu ezetatik be. Egun baten soluan lan-ixkijen bat egiten inñardubala, etorri jakon beroena ta asarratu yakon, ta albuau egoan errekan sartu zan. Eskuz letxe kendu yakon beroen-gatxa, ezaban geiagu ezer ixan.

Au jakin eban auzoko beste gexo beroendun batek, eta berak be, urrengo beroen-aldija etorri yakonian, errekan sartu zan, baña ordu bete barru gorpu zan.

Batari bustitiak osasuna emon eutson, bestiari bustitiak erijotza ekarri eutson.



EUZKELDUNA AISKIDE ONA

Euskeldunari ospe txarra ezarten yako sarritan.

Diru-zalia dala, ondo bizi-zalia, ta onetarikuak. Iñoz entzun dogu esaten euskeldunak eztaula krimenik egiten, dirua edo interesa bitartian ezpadago. Iñoz entzun dogu, euskeldunak diruagaitik aiskide guztiak salduko leukezala, bere aita ta ama be salduko leukezala-ta.

Orretarikuak entzun izaten izan dodazanian, nik beti erantzun dot ori eztaula egia, euskeldunen artian bai-dirala, zoritxarrez, diru-zalegiak, diruaren aurrian edozer izteko diranak, beste abenda guztietan lez; baña bai-dagozala gizon zintzo-zintzoak, aiskidetasun garbi-garbiaren jabe diranak, erakutsirik aiskidientzako maitetasunik gorengoena, ta beti gogoratu yat orrelako orduetan gure aita zanari ainbat bidar entzundako edesti edo istoria oso ederra, antxiña-antxiñetako aldietan jaso dirudiena. Zein ederra dan edesti au! Beronek darakusgu noraño koka dan euskeldunaren zintzotasuna, aiskidieganako maitasuna.

Orra or edestia neuk entzuna lez.

* * *

Karlisten lenengo gudatian (gerratia) zan. Gudate aren lenengo aldiaren baltzak eta zuriak, edo karlistak eta liberalak, alkarri ezeutsien kuartelik emoten, alkarri arrapetan eutsiezan prisioneruak, il egiten-ebezan.

Atxuri-aldetik soldau-liberal batzuk, euren erdian euskeldun mutil-gazte bat ekarrela, mutil ederra bera, Abadiño'ko Lebario'tarra.

Aldi orretan, ba, goiz baten sartu ziren Bilbao'n Atxuri'n eta gero beste kalietan jentia ikusirik arako mutil eder-ederra, ta ilteko zala, tamal andia artuten eban, ta danak ei-ebizan alkarri esaten: Ori da tamala, orren mutil ederra lora-loran dagona, iltia!

Eruan eben kartzelara, ta andik beriala agertu ei-yakon Bilbao'ko jeneral nagusiari gazte bat, liberalen alde boluntario lez armia artuta ebilena, ta eskatu eutson axe mutilla, preso ekarri ebena, libre itxi eiela, ta bera egoala gertu arek artu biar eban eriotzia artuteko.

Jenerala ikaratu zan eta ezautson ia zegaitik ori, ta bestiak erantzutson, aiskide zarrak zirala, asko maite ebala berak Lebario, ta gurago ebala bizia galdu a ilten ikusi baño. Jeneralak esautson: tira, ba, zeu orretan ba'zagoz, zeu ilgo zaitugu ta bestia ainduko dogu. Ta baietz.

Gertu eguan eriotzarako. Ipiñi eben kapillan, bialdu eutsoen abadia be, ta benetan lez gauzak gertetan asi ziran. Jeneralak igarri eban benetan jarri zala bere aiskidiaren azkena artuteko, ta ezin siñisturik eguan, ikarata alako aiskidetasun andiaren aurrian; eta parkatu eutson Lebario'ri libre itxirik eta bestea be bai, beroni esanik:

«Berak orrenbeste egingo eteleuke zeugaitik?».

Aiskide on zintzo benetako au zan Mendibil eritxon bat, guda-aurretik Durango'n karteru edo korrioetako enpliadu egoana. Gudea asi zanian, aiskide biak banandu ziran, Lebario karlistetara ta Mendibil liberaletara.

* * *

Orra ba, zori itxuaren gora-berak. Andik urte-betera-edo, karlistak arrapau eben prisioneru Mendibil Arratia-aldiaren, eta ilteko euken, jakiña, orixe zan legia-ta. Eldu zan nundik edo andik izparra Lebario'ren belarrietara, ta bertan bera itxi bere batalloia ta arin-arin juan zan Arratia'ra, ta eldu zan Mendibil ondiño bizirik eguala. Aurkeztu yakon agintari nagusiari, ta esautson: «Jauna, ori gizonoi ezin il leike, orrek auxe ta auxe egin eban Bilbao'n nire alde, neu prisioneru jauzi nintzanean».

Agintariak erantzun eban aiskidetasun ta biotz-beratasun guztien ganetik legia bete biar zala. Orduan Lebariok eskatu eutson a libre izteko, ta bera eguala bertan aren lekuan jarteko. Agintariak ezin eban zineztu au, ta besteak esateutson baietz, ta gogo bete-betiaz esateutson; igarri eban agintariak benetan ebillala, ta autortu eban ezebala iñoz ikusi alako aiskidetasunik; eta libre itxi zituan biak.

* * *

Orra euskelduna noraño eltzen dan aiskidetasun-bidean. Orretariko gitxi ikusiko da gero, gu baño arruago diran errietan.



«AURREZ-AURRE BAT»

Ona emen, irakurle, Laterri-Batza'n (Unites States) jazo zana, eztakit noz.

Mister Fist, oso jeniño txarrekoa da. Rabbiton ixena daun uriko 36'garren kalia, 1679'garren etxian, 18'garren oñian, bixi da.

Mister Kick be, demontrien jeniñokua da, Rabbitown'en bertan bixi da berau be, 36'garren kaleko 2.748'garren etxian, 27'garren oñian.

Goiz baten eguraldi ederra eguala-ta, bijak urten ziran kalera bate-ra samar; bata, Mister Fist, errekaldera juateko asmuagaz, ta bestia, Mister Kick, mendialderako asmuagaz; eta beraz, bata berantz ta bestia gorantza.

Bijak goiazan izparringija irakurten astiro-astiro ormearen ondotik. Alkar top-egin ebenian, Mister Kick'ek, bere eskumatik joialako, ezaban utzi gura orma-aldia ta gelditu egin zan, bestiari begira-begira. Mister Fist etzan kenduten albora ta berau be izparringitik begijak jaso ta Mister Kick'en arpegijan jarri ebazan.

Egon ziran alantxe apurtxu baten, da...

—Ia alde egiten dozun, esan eban, Mister Kick'ek.

—Ez nik alde-egin, erantzun eban Mister Fist'ek.

—Ez?

—Ez!!

Au esanda, Mister Kick'ek ostikoagaz jo eban Mister Fist belanbian eta onek, ostera, okotzian jo eban ukabillagaz.

Kalian joiazanak bitartian sartu ziran eta baketu ebezan. Orraitiño, batak eta bestiak atara ebezan euren tarjetak eta alkarri emon, ta olan alkar ezautu ziran.

Bijamonerako aurrez-aurre bat, desapijio bat, itundu eben. Ez batak ez bestiak gura eben burrukarik ezpatakaz, txarrantxakaz edo pistolakaz, edo olakoekaz. Beste modu batera erabagi eben ba; ara, andik egun bira bijak sartuko zirala, bata alde batetik eta bestia beste aldetik, Rabbitown'-dik ez urrin dagon oian baten; bakotxak gura ebazan izkilluekaz eta bertan alkar billatu basoko piztijak balira lez, ta al ebanak bestia il.

Onan ba, egun-sentijan oianaren ertzian aurkitzen zan Mister Fist zulo bidun eskopeta bat sorbaldatak dingiliz eroala ta zur begira alde gus-tijetara, ia ikusten ete zan areriyuaren lorratzik; eta ordu-erdijan ibilli zanian alde guztietara begira, esan eban bere kolkorako:

—Nik ondoen egingo dodana da, ezkutau emen nunbaiten, eta ixillik egon itxaroten; nire areriyua or ibilliko da nire billa alde batetik eta bestetik eta inguru onetara be elduko da noz-edo-noz ta eldu daitenian, nik emendik ilgo dot erbija ba'litz lez.

Ederto! Au ixanda burutasun bat!

Eta sartu zan sasi-arte baten, jezarri, gertu ipiñi eskopetia ta egon, ia Mister Kick agertuten zan ala ez begira.

Goixalde aretan oianaren beste alde batetik sartu zan bertara Mister Kick eskopeta andi bat esku-artian eruala; ardura andijagaz joian aurre-rantzta begira ta begira, ia noz ikusiko ete-eban bere areriyua, tirua jaurtin eta ilteko. Baña esaten eban bere artian:

—Zeñek lenengo ikusiko ete-dogu bestia? Berak neu ala neuk bera? Berak lenago ikusten ba'nau, galdua naz. Nik uste dot onena ixango dodala, nunbaiten ezkutatu ta bertan egon itxaroten ia noz agertzen dan nire areriyua. Agertuko da bera; ba, nire billa ibilliko da oianian, batetik bestetik, eta noz-edo-noz ikusiko dot, eta orduan... bere gaxual, konejo bat balitz lez eizatuko dot. Ai Mister Fist gixajo ori, jauzi zara!

Gelditu ziran, ba, bijak bata bestiari itxaroten, bata oianaren alde batian, eta bestia urrin, oianaren beste aldian. Bildur ziren bijak ezkutulekutik urteteko, geruago ta bildurrago, ta egon ta egon egiten eben, ez bakarrik egun batean, egun bijan be antxe, igitu barik.

Euren etxietakuak eta euren aiskidiak artegatu ziran, agiri etziranian, eta Rabbitown'go uri-nagusijai zer jasoten zan esanda, asi ziran danak euron billa ango inguru guztijetan, eta irugarren egunian idoro ebezan Mister Fist eta Mister Kick, bildurraz eta goziaz makal-makal, anken ganian egoteko be gauza etzirala. Artu ta eruan ebezan urira ta osalarijen ardurapian, pitin-pitinka esnia ta gero janari sendotxuagoak emonda, ekarri ebezan osasunera, ta aurrerantzta bixi izan dira bakotxa bere etxian ezer ixan ezpalitz lez.

Orra ba, Mister Fist eta Mister Kick'en aurrez-aurre edo desapijua.



ANKIA SARTU

Uri bateko periak dira. Txozna, txabola, etxe txiki, eta aterpe asko dagoz zelai baten inguruan, euretan inun diran ikuskizunak dagozala; bateko buru bi daukozan txala, besteko amasei arruako andra lodia, arako txerpolarri ta praka nasai barregarriak, eta abar eta abar.

Argiñek udan euzkitik euren burua gordetako euki oidaruen moduko oial sendo zati bategaz aterpetxu bat eginda dauko, Parantzen guda nausian soldau ibilliriko batek. Aterpe aretan su andi bat dauko ta galdara andi bat. Zarata ikaragarriak eiten dauz, jentia bere ingurura batzeko, kanpai anditxu bati erainda, baita iru edo lau txakur zarrri be ausi ta uluak erainda.

Jente pillo galanta batu yako aurrian. Berak diñotse, auts batzuk dukozala saltzen, uretara bota ezkerro, berau gori-gori egonarren eta bertan eskua edo ankia sartu, ezta miñik bape artzen.

Eta barriketiak eztaula balio, agitiak baño, diñotse, eta bere galdaran ura irakiten ipiñi dau, atara danak ikusteko lekura, bota dauz barrura autsok, eta beriala anka bata barrura sartzen dau.

—Ikustozue?... Eztot sentiduten bape miñik. Onetakoxe auts apur batzuk bota ezkerro, eztau bildurrik.

Zaku bete auts-txorta eukazan, baño egunoko ariñen saldu eban. An izan zan artu biarra. Alkarri bultzaka ebiltzan danak soldau-izanikuagana eltzeko.

* * *

Andik urrengo baserrira eldu da bertako bat, autsak erosi dauzane-tarikua, bai dua artez-artez tabernara, ta an dagozanai diñotse zer ikusi daun perian; ikaratzen dira; batebategi diño ori batekuori amari sartu daio-la; orduan autsdun arek diño: —Barriketiek etxok balio. Orra or suburuan galdara bat ur goriaz, ta pruebie ingu.

Kendu dabe galdaria laratzutik eta ipiñi dabe suete-erdian, bota dau-tsoz autsak, eta ankia sartzen dau, baño bai egundoko ariñen atara be, orroa ikaragarri bat einda... ankia bertan egosi etxakonian!

Begira egon diranak barreka okertuta dabiz.

—Demoniñie! Gerra nausian alemanak ezebela garbitu? biar ara juateko moduan egoten banaz egon, neuk garbituko yuat a lapurmosu arraiua, esaten dau ankia erre yakon gixajuak.

—Baia, gixona, euk be ori einguan ba?

—Baia berak gure aurrian egin baiok?

—Eta ez dok erre?

—Ez, etxok ikararik ein.

—Orduen tranpie yaukek.

Geruago periatik etorri dan batek, jazo dana jakin daunian, esan dau, auts-saltzallia tunante bat dala, guda nausian anka bata belauna baño beragotik ebai-eutsoela, ta anka orde z gomazko guzur-anka eder bat ipiñi eutsoela, igarri be etxakola egiten asko geiago erreña danik, eta axe gomazko ankia sartzen daula, ta jakiña etxakola erretan. Eta a prantzesa, peria guztietan egun bat bakarrik egoten dala; bere zakukadia saldu, ta ospa, bada-ezpadan.



ERREGENAK

Atzoko egunez oin urtebete, illuntzi-aldera, Mallape etxian barriketa gozuan aurkitzen ziran bertoko senar-emazte ta euren alabatxo Miren ta Sorne, ta euren semetxo Kepander.

Jakiña, izketagaia zan gau aretan Erregiek zeintzuk emoi ekarriko ete-eutsiezan iru neba-arrebatxuei. Batak au ta bestiak ori, gauza asko aitaturten eben; gauza asko gura, baña bat baño ezin eskatu ta ezin ziran lotu gauza baten.

Aitamak barre andijak egiten ebezan txikijen barriketa zolijekaz.

Alako baten aitak itandu eutsen:

Ene txikitxuok eta Erregieri zelan eskatuko dautsezue zelan idatzita itxiko dautsezue ingija, euskeraz ala erderaz?

Neskato bijek esan eben erderaz idatziko ebela, ba Erregiek ixan ezkeru euskeraz ezin legioela egin, ia euskeraz erregiek, ene!...

Mutikuak gogor esan eban berak euskeraz ipiñiko eutsoela bere eskakixuna, bera euzkelduna zalako.

—Aitxe, erregiak euskeraz eztakije ala?

—Jakingo etxuek ba?...

Bijaramonian, oin urtebete goixian leiuak zabaldu ebezanian barre algarak eta negarrak batera ixan ziran etxe aretan.

Mutikuak, berak ingija itxi eban lekuan aurkitu eban iru txirringadun tramankulua, ganian ibiltekoa ta ganera ostiko-pelota andi eder bat, eta zorrotxu bete galleta, eta azpi-azpijan ingi bat, onantxe: «Etxe onetako mutiko euzkeldunentzat; olantxe ederto, bakotxak bere elez eskatu. Agur mutiltxu, urrengo urtera arte».

Neskatuak... ezebez! Areik ebezan negarrak!

Aitak esan eutsen:

—Oixe daukozue ba, erderaz ipiñi dautzezue ingitxuak eskakixunaz, eta Erregiek aintzat artu bez.

—Baña ori zelan? Erderaz eztakie ala?

Ara, Erregiek erri batetik bestera igaroten diranian, euren elia aldatu egiten yake, lengua aztu ta barrija jakin bakarrik, eurek dabilzan erriko elia bakarrik jakiten dabe. Burgos'tik datozanian españeraz bakarrik dakije; an euzkeldun mutiltxu edo neskatxu batek euzkeraz ingija ipiñiko baleutse, eleuskijoe jaramonik egingo.

Baña eltzen dira Bizkai'ko euzkel-errira ta beriala bapatera aztuten yake españera ta euzkeraz bakarrik dakije; ta orregatik erderazko ingijak arentzan eztira ezebe... ipiñiko ezpa'lira lez, bardin-bardin.

—Ai ori jakin bagendu, iñoen negarrez neskatxuak, euzkeraz ipiñiko geuntsen geuk be Kepander'ak lez... Ai!...

—Tira etzaitze estutu, esan eutsen aitak, neuk erosiko dautzubedaz olgetaki polit batzuk, eta urrengo urtian ez aztu.

* * *

Etxake aztu ez. Bart iru neba-arrebak, guztizko zintzo idatzi ebezan euzkeraz euren eskakixunak; eta neskatxuek, bildurrarren, aitari ta amari erakutsi eutsiezan ingijak ia ondo ete egozan.

Mirentxu'k eskatu dau dantzan eiten daun andrakilla bat dotore jantzita.

Sornetsu'k josteko-otzara bat bere artazi ta aril ta titara ta orrazton-tzi ta enparau guztijakaz.

Kepander'ak... «autokamion» bat, baña berez ibiltan danetaikua, ez sokiaz lotute tarrax eruan biar ixaten dana.

Bart amarrak jo orduko, an eukiezan euren Erregiek... ogera goixetik juan gura-ta, arin ibilli ziralako.



MATXIÑADEA MENDIAN

San Norberto ermite ingurua ondo leku polita da; aurre-aldian zelai-txo bat, aretx ta pago tantaiz orniduta, eta beia oroldiz ta bedarrez bigun-bigun; ermitiaren astian, egurretarako pago txikitxuak buru andi zabal keizpetsudunak, arri mokil banatuekaz nastian; atzeratxuago asten da mendiaren aldatza gorontz; ermita-aurreko zelaiaren ertzetatik beruntz aldatz pikia dago erriraino, zugatzez estaldurik.

Leku polita izan arren San Norbertoz urrengo domekan bertan egi-ten dan erromerira jente gitxi eltzen da, geruago gitxiago. Oztasun auxe agotan erabillen bein erriko mutil gazte batzuk, Bilbo'n lanian ebiltzanak, eta euretaiko batek onan esan eban:

—Gurozue jentez bete daigun aurten San Norberto zelaie?

—Eta, jentie ara nok karraiau?

—Karraiau?, itxi ardurari, zagi bategaz millagru eide yauk.

San Norberto aurreko domekan mutillok errira yuan ziran, itz-egin eben alkatiaz ta sekretariuaz, baimena eskaturik erriko etxian iragarkia ipinteko. Emon eutsien baimena, ta ipiñi be bai iragarkia onan.

«Yakin eikezue: Datorren domeka arrasteian, Bilbo'n dagozan erriko mutil batzuen kostuz, San Norberto ermita-onduan zaragi bat ipiñi-ko da, ta bertatik, duan emongo yako doian guztiari, errosaria erreza ezker».

Izparra laster zabaldu zan erri guztian, eta aste guztiko barriketa-geia izan zan. Yakin be egin eben nortzuk ziran esku ain zabaleko mutilak, euroen goralben andiak egiñik.

Urrengo domekan, arratsalde erdirantza, jentia ugari agiri zan aldaz-gora San Norberto'runtz yoiala. Berarizko ontzizetan eroiezan meriendetako: batek lebatz prijidua, bestiak makallua saltsan, onek bildots erria, orrek tortillia, arek sardiña arrautzatu prijiduak, eta geienak arrosaz esnia. Baita danak pitxer edo bota edo lapiko, zaragikua artzeko. Pozik yoiazan.

—Akordue euki dabe gero mutillok.

—Bai euki be! Mutil sueltuek dire eurok.

—Ortxe Bilbo'n soltau dire ba.

—Eta, egiye da Ankokerreneko Indalesio-ta diela?

—Bai, ori bat, eta Solaburu'ko Errofail, eta Jose Burduntzi'yen semia, Erruperto uste dot deitxola, ta...

—Arako Marikorotz zanaren llobie?

—Axe berbera.

—Ai bere amandre Marikorotz'ek burue yasoko baleu yaso!

Onakoxe barriketaz aldatza igaro eben, eta eldu ziran San Norberto zelaira. An, ermita-ostian, pago baten azpian zaragia mardo-mardorik ikusten zan, bere astotxuen polito ipiñita, abarrez erdi estaldurik. Jente asko batu zan. Sekule alako erromeriyaik etzan ezautu an, aspaldiyetako urtietan beintzat.

Zaragiaren urtxo egozan Indalesio Ankokerreneko, Errofail Solaburu'ko, Burduntzi'yen semia ta errosario aurretuan berba batzuk euki ebezan erriko errematak eukazanagaz, oni esaten eutsoela:

—Zaragi au geuk dakigun lekutik ekarri dogu mendiz-mendi, emen daukozu erri guztien aurrien au ezta ezkutuko gauzie, ezta kontrabandue, zor yatzune pagauko yatzu, gizona.

Begira egozanak, mutillen alde ta errematantien aurka egin eben, onen kaltez txakurrenak esanik.

Errezau zan errosariyua guztizko ben eta ondo. Zelai guztia eguan familiaz bete-beterik. Urreratu ziran batzuen batzuk zaragira euren ontziekaz, ta mutilletatik bata, Aitiaren eginda, azkatu eutsan muzturra zaragiari, ta asi zan ontziak betetan...

—Ene!... Zer dok au? —esan eban lenengokua artu ebanak—. Ure da bata!

—Ure!! —didar egin eban bigarrenak.

Ure! didar au, tximistia lez zabaldu zan zelai guztian; mutil bergante arek ura euken zaragian.

—Errie onan engañau dozuenok zer merezidu dozue, bergantiok alakuok?

—Guk eztogu inor engañau.

—Bai!

—Ez!

—Bai!!

—Ez!!... Begitu bestela iragarkiari, an ezta esaten zaragi bat ipiñiko dala baño, zerez beteta egongo dan esan barik.

Errazoia zan au be, baño orduan ezaban baliyo. Jentia asarre zan, eta urreratu yakon mutillei, itxura txarrian, onako esakunak eurrez entzuten zirala:

—Tunante zarrok! Txarri arraiuok! Eztau erri onetan alkaterik ala? Eurei edan-azo biutzau zaragikue beste aldetik urten arte! Eldu, errekonde!...



Orduen «anka mutillak» esanda, mendian gora ariñeketan abiau ziran, zaragia ta bertanbera itxita. Bizkor-bizkorrak ziran lez, ezin izan eutsien eskurik ezarri. Mendi ganera, eldu ziran, eta andik beste erri bate-ra yatzi, an eztarriyak busti, tranbi baten sartu ta Bilbo'ratu ziran mutillok, bidian amaika barre zoro egiñik San Norberto'kua gogoratuta.

Erritarrak arin yatzi ziran euren meriendakaz, ta errian arda ez dua-kuaz garbitu ebezanian, asarria yuan yaken eta azkenerako danak barre egiten eben, iragarriya irakurriyaz.

Mutillak, orraiti, bada-ezpadan, luzarotxo erriratu barik egon ziran.

IPUIN ANTZEKO EDESTIA

Gabeko amabiak inguruan, «txin-txan... txin-txan... txin-txan...» basatxonoko (ermitako) txilin-otsa entzuten da.

Auzoko basetxietakoak euren oietan itxartuten dira arrituta, batzuk jagi be egiten dira ta leioetara urten, ia ezer sumatzen ete-daben; baña eze-bez, dana dago bake-bakian. Egun sentian jagi ta bai-duaz batzuk basatxonora, baña eztabe ezer ikusten barririk; eta basatxonoko giltzak daukazanak diño eurok etxian egon dirala.

Urrengo gabian amabiak inguruan, barriro be «txin-txan... txin-txan... txin-txan...» basatxonoko txiliña entzuten da; baita urrengo gabian be, eta alantxe gau askotan.

Bai-ebillan izkilimiña auzuan. Atsuek esate eben *Purgatorioko* arimen bat izango zala, ta txilin-jote aregaz zeozer eskatu gurako ebalatuta, ta ondo izango zala batebat edo batebatzuk bertaratzia txiliña entzuten zanian, jakiteko zer gura eban, eta berari laguntzeko.

Gizon batek esan eutsen, eurek (atsuek) joateko ba; baña ezeuken alako adore andirik be, ta erantzute eben erriko abadeari dei-egin biar yakola, ta arexegaz batera juango litxakezala.

Gabea-gabea zan txilin-otsa; baña gau baten, txilin-otsaren orde, entzuten ziran ulu ta karraixi ta didarrak.

Auzokuak eldu ziranian basatxonora, arrituta ikusi eben gizon bat konorte barik, ormako zulo batetik bere eskua sartuta eukona, ta erdi-dingilizka beso aretatik eskeita lez aurkitzen zana. Ikusi eben eskua soka bategaz estuta eukola basatxonon barrurantz; ebagi eben soka ori, ta eruan eben urrengo etxera, ta an emon eutsiezan ur-otzaz igurdiak eta bere senera ekarri eben. Ijitano bat zan. Beronek, guzur ta abar, edestu eutsen ezekiala berak be nok eta zelan eruan eben leku aretara, ta bertan lotuta itxi, baña bai ikusi ebazala alde txarreko tximel-gorriak eta adar-buztandunak, eta onakoxe batzukaz abua zabalik itxi ebazan entzuliok, eta alde egin eban andik ijitano arek.

Atsuek esate-eben, a ijitano gixajua alde txarrekoak arrapau ebela, basatxonora urreratu zanian txiliña nok jotzen eban ikustiarren; eta arexek, alde txarreko gorriak zirala txilinjotzalliak.

Beste enparauek esate-ebena zan, arazo aretan gauza ezkutukoa



(misterioa) eguala eta batebatak jakingo ebala, eta ijitanuak be bai; baña onek guzur pillo bat esan eta arin alde egin ebala.

Misteriyua, ezkutukia!

* * *

Ona emen ba zer zan misteriyuoi.

Basatxonoko giltzak eukite-ebezan basetxian mutil gaztetxo eta azartue eta gaizto-zamarra bizi zan, bertako morroi. Onek, gabetan txiliña joten ebela jakin ebanian (berak ezaban entzuten, lo gogorrekua zan da), iñori ezer esan barik, gau baten ezkutatu egin zan basatxonotik urtxuko mastei baten, eta andik zain-zain eguan ia nor zan basatxonora joaten zana txiliña jotzen. Ikusi eban, ba, gizon bat etorten, orman arri bat (lendik lokatuta eguana) kendu ta eskua sartu ta txiliñari ots-eraiten. Bai ba, zulo aretatik eskuaz arrapetan eban txiliñaren sokia, ta andixek ots-eraiten eutson.

Mutillak, gero, atzian-atzian polito jarraitu eutson gizon areri, ta andik urrintxo, zubipe baten eguan ijitano-aldra batera juan zala ikusi eban.

Orduan, ixik-ixillik iñori ezer esan barik, urrengo gabian giltzak artuta, illunduta lastertxu, basatxonuan sartu zan, eta orma-zuloaren onduan zain jarri zan ia ijitanua noz etorren, barruko untze bati ondo loturiko soka baten bietziña eginda.

Sumau ebanian bai-etorrala ijitanoa, jarri zan gertu, ta eskua sartu orduko arrapau eutson biatziñaz, lotu eban ondo, ta ixik-ixillik alde egin eban andik bere etxera.

Ijitanuak, eskua lotu eutsoela sumau ebanian buruko ule guztiak zutindu yakozan, eta onetariko gauzetan geienak bildurtiak izan oidiran lez, ikaratu zan, usterik beste mundukuak-edo eldu eutsoela, txiliña jotia-zen zigorbidez. Asi zan ba didarka, uluka, karraixika, eta eskuari tiraka, ta azkenerako bildurren-bildurrez konortia begaldu eban.

Mutillak, ostera, iñori ezeutson esan jazo zana, ta an gelditu ziran auzune aretatuak eta ijitanua zelan izan zan jakin barik eta askok uste ebela arazo aretan «alde txarreko tximel gorri adardun-bustandunek» ibilli zirala.

* * *

Orain zuek esango dozue ia nik zelan jakin dodan, a mutilla ixillik gelditu bazan iñori esan barik orduan jazo zana.

Baña ak mutillak, urte asko igaro ta gero, jazokuna izan zan erritik urrin neuri edestu eustan, eta nik zueri edesten dautzuet, nik zuentzako ixilleko gauzarik eztaukodalako.



DESTAÑA BATEGAITIK ANKAK OSORIK

(Jazorikua)

1874^akarren urteko lenengo lau illabetetan karlistak Bilbo estu-estu inguratu, moltsotu eben.

Artxanda-mendi errezkada guztia karlistena zan. Begoña aldetik ia Bilbo bertoraño eltzen ziran. Abando-aldetik be bardin.

Gabetan, ostera, karlista mutillak Bilbo barrura taka-taka sartzen ziran, eta emen ibiltzen ziran azkatasun guztian eguna sumau artian. Ondo ekiezan ardu on saltzen-eben tabernak!

Bilbo'ko liberal andikiak dirutza andien yabe ziran, eta, dirua azpitik erabillita, yadetsi eben euren uria karlisten eskuetan ez yaustia. Azpitiko a dirua barik, txirikillan sartu izango ziran Bilbo'ra karlistak. Baña yuenak yuen... itxi daiogun orri.

Aldi aretan, ba, Bilbo orretara moltsotuta eguala-ta, barruko libera-lak eta uri inguruko karlistak alkarregaz atakiak sarri ta gogor eukite-ebezan, alde bietatik jente asko jausten zala.

Olakoxe atake garratz eta bixi-bixi baten, karlistak mutil zauritu batzuk itxi biarra ixan eben alde-egieran. Bilbo'kuak zaurituok yaso zituezan eta Bilbo'ko gexotegira eruan.

Euretariko bat Abadiño'tarra zan. Iztar biak batik-bestera balaz zula-tuta eukazan. Osalariak ikusi orduko iragarri eban a txarto eguala, oso txarto. Anka biak ebai biarko yakozala, biziaz atara al izateko, ta ebai ezik il biar ebala.

Mutilla adore barik aurkitzen zan, gustiz yausita, berbia be ost-osta eukala. Monjiak osalariaren aginduz, esautson anak ebai biar yakozala, ta triste-tristerik erantzun eban:

—Tire ba. Bierrekua izan ezker...

Aitiaren baten ekarri ebezan ondora ebakuntzarako tresnak, eta osalariak, destañatia zan-da, onan esautson orduantxe mutillari:

—Después vas a donde Don Carlos para que te pongan otras pier-nas nuevas.

Au entzun ebaneko, erdi-ilda irudian mutilla biziz bete zala esan eikian; begirada zorrotza ta gogor esan-eutson osalariari:

—Ahora no cortar tú a mi las piernas; márchate pues.

Osalariak, bere destaña-esatia damututa, esate-eutson ez txartzat artzeko bere esana; olgetazko ezerez bat baño etzala izan, eta onan, baño dana alperrik, mutilla gogor eguan.

—Pero hombre, sino te hacemos la operación vas a morir, ñotson osalariyak.

—¿Y qué te importa aunque te vaiga yo al impierno? ¡Tú no cortas a mi las piernas!, erantzute-eutson geruago gogorrago mutillak.

Osalariak monjai eskatu eutsen, euskeldunak ziranez, mutillaren gogua baketu egiela, berari euskeraz berba eginda. Ibilli ziran monjak ale-giñetan, baño alper-alperrik; a gertu eguan ilteko bere anka ta guzti.

Eta itxi egin biar izan eben.

* * *

Amaika urte geruago ezautu gendun Abadiño'ko axe mutilla Kor-tezubi'ko katián, eta berba egin be bai beragaz. Bera zan ango katezaña. Anka bien jabe zan ondiño. Erren egiten eban naikua, baño naikua ondo ebillan. Anketako arazu bakana aítatu geuntson eta barreka erantzun euskun:

—Mediku arraio arek yeurti eusten destañiek neuken odol apurre irekiten ipiñi eusten, da uste dot axek berotasunek osasune be ekarri eus-tela. Destañie yaurti ezpaleust, ebaiko eustiezan anak eta azkenak egin-go nituen segurutik; eta ein ezpanitu be, ze bizimodu? Zorioneko desta-ñie mediku arek yaurti eustena! Beragatik deukodaz anak osorik. Añe-ketan ollarra irabazteko moduan enago, baño, astiro bada be, ibilli nabil.



GEXUA TXARTO ZAINDU TA OSATU

Emen esango doguna Seminario baten yazo zan, ez Gazteiz'kuan, urriñago baten baño.

Mutil ikasle bat gexotu zan; geruago txartuago aurkitzen zan. Seminario'ko nagusiyak eta bertako osalari arduratsuak asko alegindu arren, mutilla bai yoian eriyotzaruntz arin baño ariñago.

Elexakuan emon eutsoezan gizajuari, ilteko gertakizunak egin be bai, eta gero gelditu zan konorte barik, eta alan iraun egiteban orrait.

Osalariyak Seminario'ko nagusiyari esautson, illuntzi baten mutil gexua ikusita gero, osaki bat ekarri ebala gau aretan mutillari emoteko, ta arexek eragiten ezpa-custon, galdutzat euki leikela.

Gexua zaintzen egoten ziran Seminario'ko gexozaña ta beste «famulo» (ikasle-otseña) bat. Onei deitu eutsien eta osalariyak gexozañari botillatu bat emon eutson esanaz:

—Or amar ta erdietan emongo dautsozue gexuari kollarakada bat botilla onetan dagoanetik eta gero ordu-erdirik ordu-erdira beste kollarakada bat, danau amaitu arte. Edo hilgo da biyarko, edo asiko da osatzen. Neu etorriko naz biyar goizian goizetik, ia botika onek zelan eragin dautson ikusten.

Ganeratu zituan osalariyak beste uarpen batzuk eta alde-egin eban.

Gexozaña ta beste lagun «famulua» nagusiyaz batera yuan ziran Seminario'ko gexo-gelara eta gerotxuago nagusiyak «gabon» esanda alde egin eban bere gelaruntz.

Gexozaña ta bere laguna bakarrik gelditu ziranian, itxi eban osaki-botilla gexuaren oe-ondoko maitxuan, kollaria alboan-da: gela erdira mai bat atara eban, yezarri ziran aurrez-aurre, ipiñi eban mai-ganian zigarro pakete bat, bana ezpanetan ipiñi ta ixitu, atara berrogeiko bat, eta asi ziran tutian garratz.

Areek bai pozik! Euren gogo guztia jokuan euken; aztu yaken arei dana; munduan eurek bakar-bakarrik bizi izan balira lez egozan, etxaken bururatzen ez gexorik, ez osalaririk, ez botikaririk, ez Seminario'rik; areek ezeben ikusten besterik aurreko laguna eta kartak eta zigarro-paketia mai-ganian baño.

Goizaldera-arte alan ekin eutsoen. Noz edo noz konturatu ziran, eta gexozaña larritu zan oso:

—Ai ene Jaingoikua! Gu gaiagozak onak a mutil! Ondiño gexuari kollarakada bat be ezyautsaguk emon eta iya irurak dozak. Oin zer eingo yuagu? Botillan dagoana gaurko gau onetan emon biar geuntson, ordu-erdirik ordu-erdira kollarakadia emonda. Oin ori ezin egin geinkek. Oin dana emoten badautsogu biarbada il eingo dogu, ta emoten ezpadautsogu, ostera... Ai ene! Auxe dok larriya!...

«Famulua» be an eguan ixillik bildurtuta. Zati baten egon ziran zer egin biar eban erabagi eziñik.

Errosario bat be erreza eban belauniko. Azkenez erabagiya izan zan botikia komuneko zulotik botatia ta alan egin eban.

Eguna zabaldu ta laster eldu zan osalariya Seminario'ko nagusiyaz.

—Nik esan neutzuen moduan emoutsozue bokitikia?, itandu eban osalariyak.

—Bai yauna, erantzun eban gexozañak.

Osalariyak gexua ondo-ondo ikusi eban eta Seminario'ko nagusiyari esautson:

—Eragin dautso ba, atzoko aldian askoz obeto aurkitzen dot, urten-go dala uste dot.

Gexozañak eta «famuluak» ori entzun ebenian arnasa andi zatatsua artu eban; gogo guztia zabaldu yaken, euren ardurabakotasunak ezebala ondoren txarrik ekarri ikusirik.

Gexua guztiz osatu ei zan.

«Famulo» arek, gero abade eginda guk ezautu gendunian, edesten euskun yazokun au.



MISOLARI BAT

Egurastuten giñuazala Txomin Sasi'ren etxe ondora eldu giñanian, arriya letxe gelditu giñan, bai gu ta bai andik ebiltzan beste iru edo lau lagun be, etxe aretan zan astrapalots ikaragarriya entzunda.

Lurrikararik izango da zarata gitxiagoduna. Ene mutillak! ango didar ta garraziyak, ango ate-dranbaladea, ango aienak, ango uluak, ango egurrotsa, ango ankoztzak olezko zalan... Beruntz etorran gizon batek esan be ei-eban:

—Mutillak, demoniño guztiyek batuta be orrenbeste zarata eingo ete leukie gerol...

An gengoan ixillik eta alkarrri begira, zer egin ezkenkiyala, iñoren etxian sartzen be asartu ez, batez be, an ebillen abarrotsaz.

Alako baten entzun gendun eskillaratik bera batebatek ekarren aiñe-ketia kanporantza; begitu gendun, adi-adi, ta mutil gaztetxu bat etxetik urten zan. Txomin Sasi'yena bera.

Astirik galdu barik beraganatu nintzan arin-arin da:

—A mutil itxaik, noruntz ua? —itandu neutson.

—Botikara nue ba, arnikie ta menda ta ubiyentu ta partxe batzuk ekarten.

—Eure burutatik ua, ala aginduta?

—Aitek agindute, ointxe arnasie artzen gelditu dan une baten.

—Orduan etxok ondiño amaitu?

—Ez itxuraz.

Orduantxe era polita neukala-ta, asmau neban mutil arexegaz yuatia ta berari «interviu» bat egin bide-batez, ta etxe aretako barri yakin, izparringira bialtzeko, baldin iñorentzako kalte barik onura apurren bat irakurlientzak ekarri leikena izan ezkerro.

—Zer yabik zuen etxian? —itandu neutson.

—Aite asarratu yaku, artu dau adaki sendo bat, atiek itxi ditu, asi da yoten, da... atan dabil.

—Nor yoten yok ba?

—Etxeko guztiyek.

—Zergaitik? Ez al yakok zoratu izango.

—Bai zer zoratu! Neuk esango dautzut dana. Aspaldiyan ibilli da gure aita bekoki astunaz. Beti be esateuskun alakobaten misiolariyek etxien emon biar zituela, baegueta biarritzana-ta.

—Misiolariyek ostera?

—Etxakon atsegin izaten gure anaiak belu etxeratzia, domeketan batez-be; suak artzeban barrez gure neskak aspaldi onetan darabillean yantzikera eta orrazkerak ikusita.

—Zelakuak dozak ba?

—Berna osua agiriyen, besuek be bai, ta paparreko zati andi bat be bai, eta ganera, uliek «alagarson» edo ebaite, kokote guztiye erakusten.

—Modok eldu dituk orraiti zuen etxera be.

—Bai eldu! Mutil onak die ba gure neskak modak arrapetan!

—Eta zuen aitak, belu etxeratzia ta moda-zalekeriya kentzeko misiolariyek emon gura yuazan eztok?

—Bai ba; sarriten iragarri euskuzan etxien misiolariyek eta gaur esan dau asiyerie dala.

Egin dau lenengo sermoi luzie ta gogorra; agindu dau emendik aurrera illunkeran mundu guztiyek etxian egon bier dabela, bera aurrenengo dala; agindu dau amaitu diela gure etxien yantzi lotsa gitxikuek eta nesken ule motzak; berak aginduten dauena erdi-erditik beteko dala, ta iñok ez betetako atxakirik ipiñi ba'dai, berak atxakiyok egundoko ariñen kenduko dituala; etxerako legie berak ipinten dauela, bera nausi dalako ta bere lekue bere aginpidie bier dan lez yagoteko edozetako gertu aurkitzen dala.

—Eta entzulek sermoi ori, zelan artu yautsiek?

—Ama asi yako esaten gaur oiturie dan bidetik dabixela etxeko mutillek eta neskak; gaur mundu guztiyek darabixen ekandu ta modetatik urten gura izatie eztala burutasun ona ta...

—Tira, kontra egiten asi yakok.

—Gero, amen esanaz adoretuta-edo, mutillek eta neskak asi dira esaten ia Peru ta Mariyen aldiko erara yantzi biar ete-daben...

—Iya matxinada osua yagi yakok misiolariyari.

—Leku onera!... Misiolariyek egin dau orduan salto andi bat, artu adakiye eskuetan eta amari esautso: «Zeure estalpiyan dabiz oneek lotsabakotuten eta euroen aurrien zeuriek artu gure ezpozuz ixi-ixillik alde eistazu begiyen aurretik. Nik emen darabildan sermoe ta misiolariyek eztauke erantzunik; eztao entzutia ta agintzen dana egitia baño besterik».

—Da?... Ixildu ete yakozak?

—Eztüre ixildu, ta orduen izen da atralake. Amai bultzekada bat emoutso eskerraz ta garrazi baten suete-bazterrera bota dau; anai biyek yo ditu adakiyaz burutik bera ta an dagoz aiena baten, bata oge-ganian



oker-oker einde, bestie lurrien jagi be ezin dala; neskai, ostera, ostikada ta belarrondoko galantak banandu dautsiez, aurrien etxe guztitik erabillita.

—Eta euri ezebez?

—Ez, ni ixillik egon naz; ta ganera ni goizetik etxeratzen naz beti, ta neuk al dodan bierra etxien eiten dot.

—Azken zaratatsua euki yok zuen etxeko misiniuek.

—Baña azkena eztozu ondiño entzun.

—Esaik ba.

—Gero aitek ardiyek moztuteko artazi barriyek artu ditu ta gure arrebai ule guztiye ebaita buru-motz ipiñi ditu; ganera armaiotik atara ditu euren yantzi panparroiek, eta trangabelien askoriaz txiki-txiki egin ditu. Areen txilliyuek! Azkoriaz narrue txikitu ba'leutsie bez ainbeste! Orduen-txe aitek esaust botikara yuateko, bitartian beste ekinaldi bat eukiteko asmotan, arnasa puskat artu daienien.

* * *

Andik egun batzuetara Txomin Sasiyenko a mutil gaztetxua ikuste-ko erea izan neban, eta itandu neutson ia bere aitaren misiniuak etxien zela-ko ondorenguak euki dituen; eta barreka erantzutan:

—Danok gabiz etxien bata baño bestie artezago; danok etxera goizetik eta neskak yantzi barri lotsazkuekaz... an agiri die bat suete-bazterrien gure aiten misiniuen gomutakiek: adaki sendue, azkorie ta trangabela.

—Gomutaki bildurgarriyak.

—Ezta beingo-beinguen aztuko misiniue gure etxian.

Orra ba esanda Txomin Sasi'k bere etxian emondako misiniño osasungarriya.

BIZIBIDE ONA

Orain berrogeta amasei urte inguru dirala, Bilbaoko Erruki-Etxia (San Mameskua) iragiten inarduenian, egun baten, zoritxarrez, aldamiño bat apurtu ta, bere ganeko gizon, arri, erreminta, ta guzti beera yuan zan.

Antxe, zauri ta mallatu andiyak artuta, argin bat mankau zan. Jaso eben Gexotegira (Hospitalera), naikua txarto. Sasoikua zan ondiño, mutil ona ta ixilla ta biargiña, euzkelduna, Bizkaiko baserri txiki bateko semia.

Gexotegitik urten baño lenago, Erruki-Etxiaren iragintzea amaitu zan, eta bere lagun argiñak sakabanatu ziran andik, bakotxak al eben lekura, etxera edo beste iragintza batera alde-eginda.

Urte batzuk geruago atariko argin bat Durangotik Bilborako kotxian etorrita, Udaletxe ta San Anton-ostian, Erronda-kaleko musturrian kotxetik yatzi zan, eta Udaletxe-aurrera ta merkatu-lekura urten ebaneko, antxe bertan, ziarkaletxu ta Goenkale ukonduan, gizonezko batek, eskeko antzekua bera, irri barre egiñaz esautson:

—Emendik zabiz, aiskide?

—Baaai... erantzutson ezin ezaturik.

—Zuk enozu ezautzen, ezta?

—Ez ba...

—Etzara gomutetan San Mamesen argintzan alkarregaz bierrien ibilli giñiela, ta bein, mankaute, Hospitalera yaso ninduela?

—Baita!... Ointxe gomutetan naz... da, zelan zabiz gizajo ori? Eskien ala?...

—Bai olantxe da, eskien nabil. Priesaik ezpadaukozu, erdu ona Goenkalera ta bertoko ardan-etxe baten amaiketaketxu bat biyon artian eingu ardao zuri ta guzti, erdu, neuk konbidetan zaitut oinguen beintzat. An kontaukotzut neure barri.

Yuan ziran ba bijak Goenkalera (Somera kalera), ardanetxe baten sartu ziran; yezarri ta txikerdi bana ardao zuri garbituta, eskekuak agindu eban ekarteko maira txorixo egosi bana, ogiya ta kuartillo bat ardao zuri. Beriala gogorik onenagaz biyak barriketan asi ziran.

—Zer yazo yatzun ba? —iñotson argiñak eskekuari—. Etziñien osatu ala?

—Ara: ni Hospitaletik alta emonda bialdu ninduenien, eneukan indarrik lanerako; enintzan gauza ordu laureneko bierrari eltzeko, asi orduko izerdi larriyak urteteustan bata.



—Makal egonak egiten dau ori.
 —Alan ba, ni bierrerako gauzez, iñundik euki ez; eneukan aitik ez amik, ez anaiarik ez errebaik; munduaren erdiyen bakarra nintzan.
 —Aurkikera itzela zan.
 —Ain itxela! Gosiek il bier ninduen, da lotsien-lotsiaz neure begiyek lurrai yosita nituela, eskien asi nintzen... Ai zelako lotsariyek igaro bier izen nituen lenengo aldiyetan!
 —Baia, zu, eskien astie izango zan zeu gogortu artien.
 —Bai ba; bein gogortu ezkeru, barrero bierrien asteko asmoz.
 —Etziñien gogortu, orduan.
 —Bai, gustiz; illebet batzun buruen guztizko ederto nenguen baia, nik be neure kontuek atara nituen.
 —Zein kontu dira orrek?
 —Argintzan baño eskien aloger askoz andiyagua ataraten neban, birriten andiyague gitxienez, ta neure buruai esan neutson: «Onetara eure bizibidea daukok iye neke barik, eta argintzan neke andiyaz erdiye baño gitxiago irebazikok, aukerea daukok, txarrena artzen bok, munduan danik astorik andiyena izango az».
 —Eta zeure buruek erantzutzen...
 —Ez izateko astua, ta eskien yarraitzeko; ordurako lotsak be botata neukezan-eta.
 —Ederto ataratozu orduan.
 —Ezteuko zu bizibide oberik. Egin biar dana da, apala izan. Nik Aitaguria esaten dot beti etxeko difuntuekaiti, baia benetan, biyotzez; emoten badauste, eskerrak emon eta esan «Jaungoikue zeugaz edo zeuekaz»; emon ezik, bein be arpei txarrik ipiñi ez, burue makurtu ta «beste bein izengo da, ta Jaungoikue zeugaz». Ardura andiye deukot ardao-usaiñik sumau eztaistien. Eta gizona, eztakizu, etzeunke siñistuko zenbat gurustien, zelako txerie egitustien danak.
 —Sekuleko bizibidie zuzendu dozu orrait! Lotsaitik ezpalitz, goguek emon leio beroi artzie.
 —Bizibide onek daukone da, ondo yantzita ezin ibilli. Eskekuek obeto emoten dau yantzi zirzillez. Ostantzien, libre bizi da, gura dauanian ibilli, gura dauanian etzun edo jezari, iñok eztautso agintzen, lapurren bildurrik eztauko... bera baño obeto iñor ezta bizi.
 —Dirue aurreztu be bai zuk.
 —Ainbat daukot aurreztute oingoxe. Orain arte lez, edanien yausten ezpanaz eta apal ta bigun izaten banaz, uste dot zartzarorako zeozer batuko dodala.

Euren amaiketakua eginda, banandu ziran argin pobria ta eskeko aberatsa, edo beintzat aberats izateko bizibidia eukana. Emen edestu dana yazorikua da gero; ezta ipuñia.



GIZABURUAGAKO MUTIL ONA

Emen esango doguna yazo zanetik ona, aldi luzia igaro da, larogeta-ka urtiak bai.

Gizaburuagan ei eguan mutil bat, gorputz andi ta yasekua, begira-kuna bizi-biziya ebana; baña ori gora-bera arto zatiya lakua, ona, ixilla, sekulan berba txar bat entzuten etxakona.

Etzan bein be batzen bere idiako gazte zoroekaz, beti bera baño gizon zarraguakaz.

Iñoz iñok eztabaidarik euki gura ba'eban beragaz, ezin izate-eban bete bere guraririk; mutil au ba beti apaltzen zan, beti ixiltzen zan, aurrekua gogortzen asi orduko.

Izakera onegaitik erriko biztanlerik geienak oso maiterik euen mutila. Ganera biargiñ utsa zan, eta edonori edozetan laguntzeko beti gertu aurkitzen zana.

Baña bai-ziran gazte arroen batzuk, txotxolo andiyak, ikusi-eziña euenak mutil arentzako. Esate-eben beragaitik: «Ollo arraiue, prakaik yantzie merezidu yok ala?» ta onakoxe lelokeriyak.

Onetariko mutil zentzunbako batzuk ibiltzen yakozan beti zirika, asarratu eragin nairik, mutil on areri. Iñun diran bada-ezpadako berbak, baita irañak be, esaten eutsoezan; baña alperrik, ak beti alde egiten eutsen apalilik, irribarre bat eginda.

Ezin eikian aregaz asarrerik euki, ezin eikian eztabaidarik izan aregaz, ezin burrukarik asmau alako mutil apalagaz.

Au gora-bera erriko mutil txotxoluak beti ebilzan mutil aregaz burrukea nundik asmauko.

—Arraiuori ba, alako baten aztindu bieiuau...

Eta egun baten, domekia zan, asmau eben illunduta etxerantza yoainian bidera urten eta lepua ondo berotzia. Mutil bi ziran asmo onetan egozanak.

Batzuk yakin eben asmo onen barri, eta illunduta laster, mutil ona yagi zanian etxera yuateko, ardanetxian egozan batzuk esan eutsoen, mesedez ez yuateko etxera gau aretan.

—Zegaitik? —erantzun eutsen mutil onak.

—Bidien okerren bat yazo eztakizun.

—Enaz ezeren bildur; nik ordu onetan etxera yuan biarra dot; nik etxera yuateko eskubidia dot, iñok kendu ezin leikidana; ni etxera nua.

Eta yuan zan.

Andik ordu erdi baño lenago agertu zan barrero mutila ardanetxian, alkatiaren billa; eta berau idoro ebanian, esautson otz-otzian:

—Bidian mankauta itxi ditut mutil bi, aurrera urten yatazanak eta yakitun ipinten zaitut yaso daizuezan, eta era batez beorren agindupian neure burua ipinten dot.

Zer izan zan? Mutillari urten yakozan bidera, mutil olluari, eurak esaten eben lez, makillakaz lepua ondo berotuteko ustez, baña olluak arranuen antzak artu, ta bere makilliaz ederto yokaturik, bota zituan lurrera, euren buruak ondo odolduta, besuak eta saietsak ondo mallatuta. Errira ekarri zituezanian anken ganian egoteko etziran gauza.

Egindakuari gero erantzuteko baldintzapian alkatiak azke edo libre itxi eban mutil ona, eta bestiak, osakaldi bat eginda, bakotxa bere etxera eruan zituezan.

Au yazota gero, tabernan egozan gizonen batzuk izandakua aotan erabillen, eta euretaiko batek esan eban:

—Bidian areriyuak eukazala yakin ezkerro, ezaban yuan bier, bere galdumena edo bestiena etorri leiteken-da; aginpidia daukenari esan baleutso, etzan ori yazoko.

—Ara, erantzutson beste batek; bein da betiko bakie ein deu; or erabillen beti, «ollue» emendik, «mutil-andrie» bestetik, eta olakuekaz eta ori naikua ezala, bidera urten eta yo ein gura izen dabe. Mutil orrek «kreitue» erakutsi bier eban eta ointxe erie euki deu erriko mutillik yasekuenai narrua ondo berotuta aurrez-aurre, danak makillekaz, eta batek biri. «Kreitue» goi bota dau gero!



BILLA YUAN, UTS ETORRI

Erri txiki bateko azeri bik, baña anka bikuak, izparringiya irakurten diñardue.

Tira, batek irakurri ta bestiak entzun egiten dabe.

Irakurlariyak onan diño bein:

—Au da izpar bat! Entzuixu: Estados Unidosen idiyek egaiz.

—Ondiño andiyauk entzunguz!

—Orixe diño ba, idiyek egaiz eruen dituezala leku batetik bestera bitarte urriñian.

Zerien eruen izen goituez, aeroplanuen.

—Bai ba, yakiña.

—Orraiti notiziyori oin berrogei urte esan balitz, iñok be ezaban siñistuko.

—Oin berrogei urte diñozu? Ezta ointxe be!

—Izen be, askok eztau siñistu gureko.

—Zu, asmo bat burure etorri yat.

—Ia esaixu ba.

—Izpar onexegaz meriyenda bat irebazi geunskiyuela gaur Astokillori ta Mandokillori.

—Ezta asmo txarra.

—Arrasteien ardanetxian arrapaukuz, esangutseu, idiyek egaiz ein dabiela, eurek ezetz esango dabe segurutik...

—Ez ba! Mutil onak dira orretantxe Astokillo ta Mandokillo, kontra eiten.

—Orduen guk posture meriyenda bat laurontzako, eurek posturiei eutsin, guk irebazi ta betekada bat eingu euren lepotik. Zer deritxo zu?

—Sekuleko ederto deritxot!

—Orduen orretan geratzen gara.

—Baita, arrasteira arte ba.

—Bai gero arte.

Arrasteian, alkarregaz ardanetxian Astokillo ta Mandokillo azeri biyekaz batu diraneko onek areei esaten dautsie ba idiyen egaizkadea, ta esan ordukoxe:

—Barriketie ta... barriketie! —diño Astokillok.

—Eskolako mutikuen batzuk gariela ustozue ala? —ganeratzen dau Mandokillok.

—Ze mutiko ta ze mutikoste! Guk diñoguna egiya da, ementxe izparringi pormal onetantxe dago —diño ezeriyek.

—Ezta egiya! —didar dagiye Astokillok eta Mandokillok.

—Bai da!

—Posture gurozue ala?

—Ezta!

—Bai, guru.

—Laurontzako meriyenda on bat?

—Bai.

—Iruna pesetako meriyendie?

—Bai, einde.

—Galdu dozue ba; zu, irakurrixu or.

—Itxon ondiño, esaten dau Astokillok, emen izentau ein biu juesa, gure auziyau ebatziko dauena, zeintzuen aldera errazoia yausten dan.

—Iru izentau daiguzen ba; zuek bat, guk beste bat, eta irugarrena tabernerue izen daitela.

—Ontzat.

Epaikari-irukotxa autu dabenian, onek agintzen dau izparra irakurteko, ta azeri irakurlariyak onan diño:

Idiyek egaiz.

«New York. Asshead and Company deritxon Bazkunak bialdu ditu amabi idi gizen, Nord Dakotako Cando uritik Chicagora, egaizkin andi baten, amalau orduan beterik uri biyen arteko 1500 kilometruak.

Trenez baño ariñago ta merkiago egin ei da eruate ori, ta Asshead Bazkunak beste amar egaizkin eskatu ditu Pittsburgeko egaizkin-lantegi baten».

—Orra ba, diño ezeriyek, zelan egiya dan idiyek egaiz yuan dirala.

—Zuek, zer diñoze? —esaten dabe epaikariyak Astokillori ta Mandokillori begira.

—Guk diñogu, darantzu Astokillok, idiyok eztabela egaiz egin, egaizkin edo aeroplanuen eroan dituez.

—Baia, dana dala, eurek goitik, aixez, yuen dira —diño ezeriyek.

—Eurek ezтира yuen, eruen egin dituez, diño gogor Astokillok; ori izengo liteke, Amerikara itxasoz yuen dana, uger edo igerian yuen dala



esatie lez; Bilbotik Durengora ordubetien trenez datorrena añeketan bide ori ein dauela esatie lez.

Trenian erueten dabenak eztau añeketaik eiten, aeroplanuen daruenak eztau egaiz-eiten.

Epaikariyek ebatzi eben Astokillo ta Mandokillo zuzen egozala, ta beraz, meriyendia irabazi ebela.

Azeriyek lotsatuta, ordaindu eben areen azkariya ta alde-egin eben andik, atzetik barre ta burle egiten eutsiela ardanetxeukuak.

Sekuleko goguaz iruntzi eben Astokillo ta Mandokillok azeriyei ain polito irabaziriko azkariya.

BITARA ULERTU

Aditz bat dago gure euzkera onetan bitara ulertzen dana, bere yokora baten.

Eta emen asten banaz orren azalbenak egiten, bakit irakurle gizaxari gogait eragingo dautsodala ta itxiko nauala.

Ori yazo eztaiten ipuin antzeko bat esango dot, beragaz irakurliak argiro ulertuko dauala.

Auzune bateko ermita txikiyan Mezea dago. An inguruan jaiua dan abade gazte batek albistea bialdu dau Meza emoten duala onen egunetan eta onen ordutan, Mezarako biar izaten diran gauzak albistariyaz bialduta.

Ermita aretan Mezarik emon ezuala urte asko dira, auzunia baztertxu egiten dalako.

Orregaitik ango biztanliak poz-pozik aurkitzen dira, asteguna izan arren, danak ermitara yuateko gertu Mezatara.

Umiak, batez be, urduri dagoz. Pillotxu baten, neskato ta mutiko, onetara deragoioe:

—Laster da emen abadia.

—Zuek mutiltxuok, diño neskato pizpita batek, abadiari txapela kendu biar dautsozue.

—Ene! —erantzuten dau mutiko zoli batek—, abadiari txapela kendu?

—Bai —diñotso orduantxe eltzen dan bere amak, txapela kendu biar yako, ta zuk kenduko dautsozu.

—Nik ama?

—Bai zeuk. Eta kentzen ezpadautsozu, ederrak artukozuz.

Mutiko zolija ikaratuta gelditu da, txapel-kentze axe zelan egin al izango ete-dauan asmetan.

Etorri da abadia, txera andiya egin dautsoe, eta beriala sartu dira ermitan al izan dabenak, enparauak ermita-aurrian yarririk.

Abadia basorako lez etorri da, oñetako sendoekaz, adaki luze bat eskuetan, eta buruan abade txapel biribil baltza.

Altararatu danian, ermita-gelako leiorea igon da len aitatu dogun mutiko zoliya, eta andik arrapau dau abadiaren txapel biribil baltza, antxe leiuaren ondoan eguana. Artu, ta etxera darua. Mezea amaitu danian zabaldu da abadiari txapela kendu dautsoela. Arritzen dira guztiyak.

Ondiño olakorik!



Zelan edo alan, nundik edo andik, lorratza artu dabe, ta yakiten dabe axe mutiko zoliya dala. Bere billa yuan eta ekarten dabe.

—Txotxo, zegaitik eruan dok nire txapela? —itanduten dautso abadiak.

—Amak esaustalako —darantzu mutikuak.

—Nik esauat? Jaungoikuak parkatu daistala! —diño amak.

—Bai, zeuk esaustazu abadiari, txapela kentzeko, ta kentzen ezpa-neutson, ederrak emongo zeunstazala.

—Eure txapela kentzeko abadiaren aurrian, nik esauat.

Asi da barreka abadia, ta gero danak, okerra zetatik sortu dan igarri dabenian.

Bai ba, «abadiari txapela kendu biar dautsez» bitara ulertzen dana da; edo abadiari buruan daukona kendu, edo norbere txapela erantzi abadiaren aurrian, biyak ulertzen dira esakun aretan.

«ELEIZEAK ZER EITEN DAU?»

Erri txiki baten ogetabi urteko emakume bat alargun gelditu zan ume zamur bategaz, mutilla bera.

Emakumia txirua zan, beartsua, erropa-garbitzen bere bizimodua ataraten ebana. Bere mutikua erriko eskolara asi zanian, maisua arrituta itxi eban bere buru argiyaz. Yakiteko egarri andiya erakusan eta berba-erdi bategaz beinguan ulertzen eban esan gura yakona. Orregaitik arin ikasi ebazan maisuak emon eikiozan irakaspenak.

Ain buru argiya ikusita, maisuak emakume alargunari esautson inñundik al baeban mutil areri karreran bat emon biar eutsola, denporaz gizon andiya izateko modukua etorralla-ta.

Ganeratu eban maisuak, abadiak eta berak alkarregaz itz-egin ebela arazo aretzaz, bai ekiyela txiruak zirala ama semiak, eta orregaitik gertu egozala egunian peseta bana emoteko ain adimentsua zan axe mutilla aurrera atarateko.

Alargunak, ori entzunda, esan eban gabez be lan-eginda atarako ebala peseta biyen ganetik biar zana bere seme laztanari laguntzeko. Eta alantxe emakume gaxua egun osuan eta gau zati andi baten lana sendo egiñaz eta biar-biarrekua bakarrik yan eta yantziyaz bizi-izanik, eta urte askotan olantxe, bai-yuan semia bere ikaskuntzetan aurrera, beti aurrenengo zala bere lagunen artian.

Amaitu karrera ospe andiyaz eta gerotxuago zeñek geiago yakin ekitaldiz leku goi-gorengo bat irabazi eban.

Entzute andidun gizona egin zan. Alde guztietan, bera aitatu ezkerro, bere goralbena baño besterik etzan entzuten.

Eztago oldoztu baño zelako poza eukiko eban bere amak. Eldu zan beretzako zabal bizi-izateko aldiya, seme kutunagaz batera.

Ezkondu zan berau andiki arteko neska arroputz bategaz ta ordutik aurrerantzian ama etzan izan ondo ikusiya etxe aretan. Berbetan eta konprimentueta txirua izanikua zala erakusten ebalaren atxakiyaz, alde eragin eutsoen jentia artzeko gelatik lenengo ta gero yantokiko maitik, sukaldian otseñakaz yaten eta bizi-izaten ipiñita. Otseñak be ugazaba-etxekandriai ikasita, iya atsotuta eguan alargun koitauari ezikuski asko egiten eutsoezan. Etxian inñok ezaban aintzat artzen.

Bein ugazabaren aiskide batek uartu eban zelan euken etxe aretan ama zarra ta semiari agiraka garratza egin eutson. Ordutik aurrera ama



askoz txarrago artzen eben; ordura arte, beintzat ezikusi andiyak egina-
rren, ezeben asarreka erabilten, baña ordutik aurrera danak arramuskadia.

Egun baten ba, koitaua biyotza mingostuta urten zan kalera etxe are-
tatik sekuleko, ta yuan zan agureak eta atsuak zaintzen dituezan monjaka-
na, Txiroen Arrebatxuak izena dabenakana: an artu eben maitero ta an
emon zituan bere azkenengo urtiak.

* * *

Bein yuan zan idazle ospatsu bat Txiroen Arrebatxoen agura-atso
etxia ikusten eta etxia erakusten ebilkon monjiak esautson idazliari:

—Ikusten dau beorrek an leio onduan kristaletik kalera begira yeza-
rrita daguan atsotxua? Urlija jaunaren ama da. Idazle ospatxua arrituta
gelditu zan ori entzunik: ezin eban siñistu Urlija jauna lako gizon ondo
eukitsuaren eta batez-be aren on-entzutia eukonaren ama «Txiro-Etxe»
baten egon eitekenik eta orregaitik atsuagana artez-arte z yuan eta beragaz
berbaldi luzia euki eban, bere zoritxarren zertzelada guztiyak ziatz yakin
zituala.

Yazokun au Pildain kanonigo yaunak esan eban ointsu Bilboko
Deun Yakoba elexan egindako itzaldi baten; yazorikua dala, ta ganeratu
eban orren antzeko asko ta asko ikusten dala; guraso koitauak ainbeste
neke, lan, ardura ta buruauste artzen dabela seme-alabak azten eta eurai
ikaratsiyak emon ta bizibidian ipinteko, ta zartzaruan gurasuok makalik
aurkitzen diranian, seme-alabak ezin dituez ikusi, eztabez maite, ta orduan
agura ta atsuak iñoren laguntasun barik dagozarian, Eleiza Ama Deunak
artzen ditu, ba Txiroen Arrebatxuak eta euren antzera beste monja ongi-
lle guztiyak, Eleizeak ipiñiak dira, Eleizearen barruan eta berak indarra
emonda sortu diralako monja orreen batzak.

Eta ortik atarateban Pildain yaunak erantzuna Eleizearen aurka itan-
du au egiten dabenai: «Eleizeak zer eiten dau ba?». Eleizeak esateban,
aterpia, yana, oia, maitasuna emoten dautsoz iñok ikusi gura eztauan
agura naiz atsuari, euren seme-alabak bertan-bera izten dituezanai.

Aita zarra, edo ama zarra, Txiro Etxian daukanen batek baño geia-
go, or gorago edestu dogun yazokuneko Urliya yaunak biarba, itanduko
dabe: «Eleizeak zer eiten dau ba?».

Eta eztakiye iñoz aurkituko diran ala ez nun sartu eztaukela, iñok
ikusi gura ez dituala ta eurak orain aurka egiten dautsoen Eleiza orrek
berberak artuko dituan bere Txiro-Etxe baten, bertan emonik aterpia,
yana ta oia gorputzarentzat eta Yaungo-maitasuna arimarentzat.

PERUREN «NEGOSIJOA»

Emen orain esango doguna urte asko dala yazo zan. Peru aspaldiko
urtietan bestaldetik da. Berari yazorikuak diñosku orduko aldiyan be
bazala emen «tunanteriya» gaur letxe. Eta gura geunkena da baserriyeta
euzkeldunak ikasi dagiyela zuur ibilten, ona Bilbora etorten diranian.

Etorri zan ba bein Peru Bilbora bere seme mutil gaztetxu bategaz,
beronek miñen bat eukola-ta, Areiltza yauna zanaren Osatetxera eruate-
ko asmotan; eta kalia luze yoiazala ona emen berba egiten dautsoela Peru-
ri gizon bik, ederto yantzita, arpei argi, itxura on-dunak irribarre ezti ezti-
tsuaz; «caballero» batzuk.

—Txalen bat saltzen edo etorri izango zara, ezta?

—Ez ba darantz Peru. Egin-egiñian be auxe mutillau Areiltzaga-
na dakat, aspalditxuen gizajo au eztabil ondo-ta.

—Oi Areiltza! esan eben bestiak, geure aiskide kutun-kutuna da.
Geuk lagunduko dautzugu beragana, al badogu, edo bestelan, geure tar-
jeta bat eruangozu ta etxekolez artuko zaitu Areiltza yaunak.

Peruk au entzunda poz bat artu eban...

Asi yakozan esaten beste biyak, euzkeldun baserriarrak berez
«ondrauak», zintzuak, dirala eta orregaitik bera ikusi orduko esautsiela
alkarri: Ona emen guk biar dogun gizona.

Zeregin bat eukiela Bilbon egiteko, milla ogerleko asko itxi biar ebe-
zela Mezak atarateko, baña bertatik alde-egin biar bat «suertau» yakela, ta
axe agindua nori itxiko ete eutsoen topau eziñik ebizala goiz aretan, eta
bera, Peru, ikusi orduko esan ebela: «Auxe dok gizona, begiradan igarten
yako zintzo-zintzua dala, ta beroni geure agindua emon biar dautsogu».

Onelako koipekeri geiago eginda, narruzko zorro txiki bat erakutsi
eutsoen antxe eguala dirua urretan esanik. Giltz txiki bategaz idigi eben
narru zorrotxua, ta urrezko diruen batzuk atara ta sartu ebezan. Peruri,
urria ikusirik burua yuan yakon.

Zorro axe emongo eutsoela ba, bertako dirua Mezak atarateko ta
pobriai emoteko; baña dirutza ain andiyari erantzupen edo garantiya ipiñi
biar yakola ta eskatu eutsoen Peruri. Onek adirazo eban aldian ezeroiala
diru askorik, baña bai-ebazala senidiak Bilbon eta itxaron gura baeben
antxe, laster atzera etorriko zala. Baietz erantzun eben «caballero» biyak.

Peruk axe narru-zorrotxua arrapau gura eutsen; eta yuan zan arin-
arin bere koñata bategana, ta zarata baten esautson:



—Emon eistazuz etxian daukozuzan guztiyak apur baterako.

—Zer yazoten da ba?

—Gero «esplicaziñuek». Orain emoistazu daukozun dirua arin, «negosio» itxela «presentau» yat eta... a zelako «negosioa»!

Koñatiak esautson 50 ogerleko inguru eukozala, ta emon eutsozan. Peruk gitxi eretxi eutson. Auzoko beste andra bati eskatuta, beste ogei zuzendu ebezan. Eurokaz eta Peruk aldian etxetik ekarri ebanagaz or eunen bat ogerleko batu ziran. Juan zan Peru «caballero»akana, ta alkarri koipekeri asko eginda, trukau ebezan ogerlekuak eta narruzorrua.

Bai Peru ta bai «caballero»ak, alkarri egundoko ariñen alde egin eutsien, bata zorruaz ta bestiak diruaz.

Peru eldu zan koñatiagana, ta bota eban lurrera narrua esanaz:

—Aor gureñe diru ta urretan atan be. Beorren pixuaz kantzautenator.

Bere koñatiak eta onegaz egozan beste emakume bik itanduten eutsoen ia zelan izan zan ba «negosio» a, ta azaldu ebanian zelan izan zan, buruai eraginda esan eutsoen:

—Ai Peru, Peru, zuk ein dozu «negosioa»! Idigixu idigi, narru ori, ikusi daigun urre ori. Olantxe emoteko dago ugari!

«Caballeroak» giltz txiki barik emon eutsoen itxuraz aztuta, eta sukaldeko aizto andi bategaz ebai ein biar izan eben narrua, ta zabaldu ebenian, bere barruan ikusi ebezan... adokin bi ta izparringi zar bat! Augaitik zan aztuna.

Emakumak asi ziran barre algaraka ta ezin egon zutunik be; euretariko batak, gaztia zan orduan, lurrian etzunda gureñe berre egin eban. Peru gelditu zan kokolotuta; gero esautsen emakumai:

—Zuek barre egitozue, baia ni enaz barregure. Ona nago ni oin andriagana yuateko; urte batzuetako agirekak irebazi dodazala ustot.

Esan bierrik eztago zelako barre santsuak egiten eutsoezan emakuma arek olako esakunak entzunda.

* * *

Orra Peruk egin eban «negosioa».

Ikasi euzkeldunak; diru asko eskintzen datorren «caballeroai» ez yaramon. Eta batezbe ez euki iñorena arrapetako gurari txarrik, Peruk orduan euki eban lez; onek ba Mezak atarateko ta pobrientzako zan urria beretzat artzeko asmua eukan, «negosioa» egin ebala esate-eban da.

Olako asmorik euki ezpaleu, etzan sartuko «negosiorik» eiten; asmo zintzoa daukon edonok esango leuke: «Zorroko diru guztiya artzen dot emoteko; biarlekua ta burukomiña baña eztakast, eta orrez ganera, neuk emon biar neure dirutik?». Baña ori baño zuzenago da au: «Ni baño aurreragokuaurik ez ete dago ba Bilbon orretarako? kalian lenengoz ikusten daben ezezagunari emongo dautsoe ba dirutzia?».

Zain kaleko «negosioa»kaz. Peruren buruan ikasi.



BARRIKETAK

- Gauza bat itandu gura neuskizu.
- Esaizu ba.
- Zer esan gura dau «analfabeto» itzak?
- Irakurten eztakiyana da «analfabeto», izkiak (letrak) ezautzen eztauzana.
- Ai, orduan bakit guk «eskolabakua» esan oi doguna da «analfabeto».
- Bai, orixe. Baña itaun ori, zer dala-ta?
- Ba, egunotan irakurri dot izparringietan Españan ondiño «analfabeto» askotxo daguala, ta eskolak ugari zabaldu biar dirala orretariko «analfabeto» batxu bat bera be geratuko eztan arte. Enekian zer zan itz orixe, ta orregaitik izan da itandutia. Parkatu.
- Eztau biar parkeskatzerik.
- «Analfabetuak» astakilluak izango dira danak eta orregaitik ale-giñak «analfabetorik» egon eztaiten.
- Ez danak astuak, ez gitxiagorik be. Notiña berez da zuurra, adimen argi ta biziduna; irakurten yakitiak eztautso emoten bein be zuurtasunik, eta bizitasunik. Berez motela bada, eskolia gora-bera, beti motela.
- Zuk diñozunetik eskolia yakitiak eztauko orduan alako alde on andirik.
- Bauko. Eskolia dakiyanak beste batzuk idatzi dabena irakurteko, ta beraz ikasteko eria dauko. Orregaitik, gaur egunian, idazte-irakurtia asko zabaldu dalako, irakaste-ikastia lenagoko aldian arin egiten da ta bazter guztietara eltzen da. Eskolia bide dala, gaur arin zabaltzen da irakaste ona, baña astakeriya ta txarrikeriya be bai.
- Eskoliak astakeria zabaldu ostera?
- Zegaitik ez? Liburuetan eta izparringiyetan astakeritan itxelak idatzi izan dira ta idazten dira. Zuk uste dozu eskolia eukiyaz bakarrik notiña (personia) adimentsua dala, ta oker andi baten zagoz. Adimen laburra ta motela daben askok eskolia ikasten dabe ta eskola au ta bestiena irakurri ta yakiteko erabili biarran, bururatzen yake eurek idatzi ta irakastia, eta astakeriyak ugari ipinten dabez.
- Orraitik, liburu bat egiten dauanak.
- Ara... eskola bakoen artian, alkar aitzeko, esana ta entzuna miña ta belarriyak dira bide; eskoladunen artian baño eskolabakoen artian notin buru obedunak egon leitekez.

—Dagozana letxe. Antxiñako aldietan erregiak eta andikiyak, erriyen agintari ta erabiltzalle izaten ziranak ezekien irakurten; eta ori gora-bera, euren artian adimen indartsua eben gizon asko ziran.

—Beraz, «analfabetoak».

—Bai ba; ta gaur be bai-dira. Gure errian ondiño urte gitxi dala ildako gizon «analfabeto» bat guztizko zuurra zan. Bere gaztetan maizterra edo erreterua zan, eta zartzarorako bera bizi zan etxiaren yabe egin zan, baita kaleko beste etxe batena be.

—Zoriona euki egikean, gauzak ondo etorri.

—Bere zuurtasuna norañokua zan erakusteko, bere egikun bat da naikua. Ondiño Bilbon Banko bi edo iru bakarrik egozarian, eta ondiño eurok Ordetxerik (sukursalik) erri txikiagoetan ezeukenian, gure «analfabeto» zuurrak eskatzeban dirua erriko ezaunen artian; batari iru milla lauerleko, bestiari bi milla ta bosteun, oni lau milla, ari bost milla, ta alan, ixiltasun andian; euneko bat eta erdian artzeban berak, eta ixi-ixillik Bilbora Banko batera ekarri ta ipinteban euneko iruan eta iru ta laurenian, berentzako izanik erredituaren aldia. Berak zintzo-zintzo ordaintzen eutsezan erredituak bere artuendunai, eta onek pozik; eta bera be pozik, a diru guztiaren euneko bat eta erdi edo geiago neke gitxigaz irabazte-ebalako. Onetaraxe «analfabeto» arek errenta polita zuzendu ta gozau eban urte askotan.

—Burutsua zan orraiti.

—Bai bein!

—Orretara aitzen da erreterutik etxaun izatera eltzia.

—Orren antzeko gauza asko ebazan arek; neke bakua ta zuurra ekarten, eta emoten ostera...

—Alperrik ezaban diru asko gaztauko.

—Bein yoan yatzun Lourdesera bidezkunde (peregrinaziño) baten, eta onantzekoan Donostian egun batzuetarako gelditu zan erriko beste lagun batzukaz, ango senide batzuen etxian. Ona etorteko trena artzeko ango geldokira eldu ziranian, bere lagun aek artu eben bakotxak bere txantela ta igaro ziran geldoki-barrura; baña «analfabetoak» duan etorri gura eban, eta berak lenengo gura ebana trenera sartzia zan, gero zelan edo alan atonduko zala ta. Orretarako, geldokiko atezañari eskupian pesetatxo bat emonaz barrura sartzen izteko eskatu eutsen, eta bestiak igaroteko ba. Sartu zan trenian erri-lagunekaz, abiau zan trena, ta andik laster-txo agertu zan...

—Txantel ikustallia izango zan, ezta?



—Bai, bera. Eskatu eutsonian «analfabetoari» bere txantela onek erantzu-eban. «Pelegrino, Pelegrino, billete galdu», sorbaldak yaso ta gixajo uts-utsaren arpegia ipiñirik; txantel-zulatzalliak maitaro esateutson «Peregrino»-txantela baleuko be eleuskiola balioko, egunak igarota egozalak, ta beraz, eurrezeko txantela biar ebala, ta berak antxe emongo eutso-la txantel-ordia; baña bestiak, negar-mosu, «pelegrino, pelegrino, billete galdu» beti esateban, dirurik atarateko antzik be erakutsi barik.

—Temosua zan ba.

—Orduan ezeutson balio-izan. Lagunak esautsoen ordaintzen ezpaeban urrengo geldokian trenetik eratsi ta espe (preso) geldituko ebela, ta au entzun-da bildurtu zan, eta atara eban dirua, ta ordaindu Donostiatik Durangorañokua, ez artagaraunak lakoxe negar-arpuluak bere begietan agertu barik. «Ai nik Donostiako atekuari emon dautsodan pesetie, ai nik yakin izan banau yakin, ai a pesetie, ai nire zoritxarra...» esateban berak artega.

Bere lagunaek esautsoen: —«Ondiño zer esana daukozu? Zulatzalliak bi bider geiago kendu biar eutzun, eta batena baño eztautzu kendu. Pozik egon biar zeunke». Baña etzan poztuten, bai zera, bide guztian aieneka etorri zan, axe pesetia alperrrik emon ebalako damuegaz.

—Arrayien gizona! «Analfabetoa» zala... ondo be bai izatia, orretari-gizonak eskola asko ikasiko balebe, nor eurekaz aturau?

ZARATA ITXELAK

Mañariko basetxe bateko soluan laiariek ibilli dira lanian, andra ta gixon, neskatilla ta mutil gazte, eta arratsalde berandutxuan, ija illuntzian, umorerik onenagaz diñardube apai-merijendie eiten, solo-ondoko landa baten zabal jezarrita.

Amaitu dabe euren janaldije ta barriketan poz-pozik dabixala orra neska gaztetxu bat agertzen dala añeketan estartia-gora, ta arnas-estuka, ozta-ozta esan al dau:

—Ai ene bada ta! gurien lapurrek dabiz, bai, lapurrek!

Neskatxu onen basetxia eun kana edo alakon bat beratsuago dago. Neskaxua bakarrik egon da etxian; bere aita ta etxeko enparauek laiarijen artian dira.

Berak kontetan dau etxe-ostera zetan-edo-atan urtenda atzera etxera sartzen jua danian, zarata itxelak sumau dituala barruan eta bildurtuta datorrela, jazoten dana esaten.

Laiarijok jagiten dira bat-baten eta euren arteko mutil da gizonen batzuk diñoe arro-arro: Lapurroi, lapurrik badao, agudo ataraku ba.

Juan dira danak; ara orduko illundu dau oso, alboko laguna be ezta ikusten; eta zenbat urrago ta otzago duaz. Etxe-aurrera eldu diranian, atia zabalik ikusten dabe, barrua upia baño baltzago ta dana ixi-ixillik. Eztakije inor barruan dagon ala ez; eta badago, bildur ixateko dala diñoe danak itxu-itxuan sartzia, barrukuak, ba, txakada txarra ein leio gero!... um...

An dagoz danak geldi, iñor barrura sartzen azartu barik. Orraitiño andra batek badiño bero-bero: Ze demontre, guezan barrure, neu aurrenengo, segidu daizue!

Ta sartu zan andria ta bere atzian beste guztiyek, subetian ixitu eben argi bat edo beste, arakatu eben etxia betik-gora kontuz-kontuz, eta ezeben ezer idoro.

Orduban danak asi yakozan neskatxuari barre ta burle eiten, ia ze zarata entzun ete-eban: eltxuen batena ixango zala ta olan.

Danak egozan subetian, jezarrita geienak, eta usterik gitxien ebenian... «dra-dra-dra», entzun zan zarata bakan bat etxe barruan eta euren ur-urrian irudijana, te iñok ezin ebana igarri zeren zaratia ixan eitekian.

Gelditu ziran danak arnasa barik.

Apur baten alan egonda orraiti gerotxuago, zarataik etzala entzutenda, barriro etxia arakatu eben, eta len lez, ezeben ezebe idoro.



Batu ziran atzera subetian, eta an egozan jezarrita, barriketan, baña ixiltxo, adi-adi euren artian esaten zer ixan eitekian alako zarata bakana.

Eta... ene Jaungoikua!... barrero be «dra-dra-dra-dra» lengo zaratia.

Orduban arrije lez geratu ziran danak. Inok ezeukan adoreik zirkin bat egiteko be. A zan larrija!

Baten bati otu yakon «alde txarreko»ren bat ixan eikiala, ta errosariyua errezaui biar ebela, bertatik alde eraiteko berari, eta, baita, danak ontzat artu eben asmo au eta asi ziran ba.

Eta errosariyua errezetan ebiltzan artian zaratak garratzaguak eta ugarijauak egin ziran.

Danak egozan errezaui artez esan eziñik, bildurren bildurrez, ta añeketa baten amaitsu eben errosaiua ta banaka-banaka, etxeuak ezik, danak alde ein eben andik.

Geratu ziran bakarrik aite ta iru alaba, euren artian neskatxua, emakumiak negarrez eta aite okotza paparrin sartuta letxe, laurak subetian; eta entzuten beti-be zarata bakan areik.

Alaba bata aldi-txarrak artu eban, eta an ibilli biar ixan eben beste bijak ur otzaz kokotian igurditen eta ozpiña sur-zulueta ipinten, bere senera ekarteko.

Goixaldian, orraitio, neskatxuari, gaztia zan lez, bildurra gora-bera gosia etorri yakon eta jagi bere jarlekutik eta juan zan arka edo kutxara gaztae zati bat artzeko asmotan; jaso eban arkiaren tapia ta bertan ikusi eban etzeko katua eguala.

Ordubantxe konturatu ziran zarata areik katu arexek atara zituala. Bai ba; arka barruan gari-ondakiñak egozan, eta katuak gaztaiari agiñekaz eldu ta zatiya kentzeko tarras erabilten ebanian batetik bestera, tiraka, gari garaunen ganian arka-barruan zarata berarizkua ataraten eban.

Eta axe izan zala igarri eben, ordutik aurrera entzun etzalako lengo zarataik. Juan ziran ogera irurak bake-bakian eta bijaramonian erri guztian zabal zan Andikoetxen jazo zan gauza ikaragarrija ta geiturik izparra, oi dan lez, esateben leku askotan «alde txarreko» aldrea andijak agertu zira-la Andikoetxen, euren prakagorri, buztan, adar ta guzti.

Geruago jakin ebanian katu batek bildurtuta alako jente pillua erabili ebala, bazan an barre santsua ta burle-ein biarra!

Baña burleti asko aren lekuan egon balitz, etxera prakak bustita eruan baietz atzeko aldetik...

LAKARATZA SARTU

Errian ardauden erremata Txomin-Saguk dauko. Begi batzuk baukoz... zorrotzauek!... Zapatuetan uritik datozen emakumen otsaraka eta sakutuak batetik bestera igaroten dauzala esan lei bere begi zorrotzakaz.

Bitxabalaren ertzian ibiltan da, bide kurutzen urrian, beti zain, inoz bitxabaletik erri-bidera urten daun emakume bat-edo-bati otsaria edo sakutua arakatzeko, ia ordaintzeko ezer ete dakarren.

Atzo be antxe eguan Txomin-Sagu, inoz baño arduratiago.

Bai ba, Txorokilletako neskia atzo zortzi ezkondu zan, eta bere gizon gaztiaz ortik ziar ezti-aldia eginda, atzo etorri ziran etxera, ta gaur dauko zanbarradia, senide guztiek bazkari ospetsu bat egiñaz. Jango dabe arek ta edan... mutillak!!

Eta lengo egunian, Txorokilletako mutil trokotzak esan ei-eban bolalekuan, gaurko biar eben ardaui uritik ekarteko ustia eukela ba, Txomin-Saguk saltze-eban «txarrikerie» ia nok edan biar eban.

Arria! mutiko ona jarri zan ba Txomin-Sagu ori jakin ebanian.

«Ez ba zainduko aut ba, ta ardau ori eztozue sartuko ezetara be», bere kolkorako esanda, juan zan Txomin-Sagu bitxabalera, eztena lakoxe begiekaz.

Bide-kurutzeko sasi batzuen onduan eguan erdi-ekutauta. Bitxabaletik urtendako iru edo lau emakumeri otzarak arakatu edo errekestau eutsezan; ezer arrapau barik eta androk mor-mor bidaldurik... «gizon gogaikarriaurik orraitio»...

Alako baten ikusi eban urrindik bitxabalian etorraka astotxu bategaz Indalezio Txorokilletakoa, ta esa-eban: «Eman yatok mutil ori».

Onk Txomin-Saguren parera eldu baño lenago, zeozer uartuta lez asto ganeko zerbait estaldu eban saku bategaz.

Txomin-Saguk jaurti eutsozan astotxuari bere begi zorrotzen argiak, eta igarri eban, sakuaren azpian zato andi bat joiala, ia zaragi txiki bat.

«Oinguen jausi az» esanda, jarraitu eutson atzian-atzian mutillari, zain ia noz bitxabaletik urtengo eban.

Mutilla, orraiti, Txorokilletako erri bidera eldu zanian, andik artu barik, bitxabala-gora jarraitu eban.

Eta Txomin-Sagu be atzian beti. Bajoiazan eta bajoiazan, eldu ziran erriko mugaraño, ta Indalezio bira eragin eutson astotxuari, ta berantzasi zan, errirantz barrero.



—Zer daruak or? esautson Txomin-Saguk mutillari, eta onek erantzun eutsen:

—Eskubidia daukozun lekuan ikusiko dozu, baña ez ordura arte.

Barrero eldu ziranian Txorokilletako bide-kurutzera, an egozan gizon bi, ta orduan Indaleziok artu eban bere etxerantz, bitxabaletik urtenda, ta beriala Txomin-Saguk esautson: «Dekomisua daukok, geldi or astuo!». Mutillak gelditu eban ba, ta esautson: «Zer dekomiso ta zer dekomiso-oste? Ikusi or zer duan».

Eta sakua kendu ganetik eta agertu zan zato zar andi bat. —«Emen zer daruak? ardua, eztok?», eta mutillak: —«Onexek gizonok testigu izango dira; erdue ona, ta ikusi daiala gizon onek or zatuan daruadana zer dan».

Muzturra azkatu eutsen ta atara eben barruan eukanetik, eta danak ikusi eben... ura zala, ur utsa.

—Orduan zetan ibilli az gora ta bera eure astu orregaz?

—Eta zu zetan ibilli zara nire atzian?

Beriala igarri eban Txomin-Saguk bera mutillaren eta astuaren atzian ibilli zan bitartian, arda-zaragi andien bat sartu izango ebela Txorokilletan, eta oldozpen onegaz odol guztiek irakin eruazan, errirantz yuala.

Eta alan izan zan, lakaratz galanta sartu eutsen Txomin-Sagu begi-zorrotzari Txorokilletako mutil trokotzak astotxuagaz aurrera bidaldu eben, bere atzian Txomin-Sagu jua eitian, eta gero, bape bildur barik, bior baten bizkar-ganian zaragi galanta sartu eben etxera.

Txomin-Saguk diño min geiago emoten dautsola zaragia sartziak berak baño egin dautsoen burliak. Berak ori diño, baña... biek min emongo dautsoe, burliak eta dirurik ez artziak.

Beintzat, Txomin-Saguri jazo yakonaz ikusten da, gizonik zurrenari be usterik gitxien danian lakaratz sartzen dautsoela.

ZENTZUDUNA BARRUAN, ZORUA KANPUAN

Lengo egun baten izpar au irakurri gendun.

Badajoz'en ixilleko poliziya batek lapur bat gelditu ta juzgadura erua-eban.

An izen-abizenak artu eutsiezan. Espetxeko nausiyentzat papal bat idatzi zan lapurra preso sartzeko; baña juzgaduko idazliak, lapurraren izena ipiñi biarrian poliziyarena ipiñi eban papal aretan, nai ezebala oker bat egiñik.

Juzgadutik espetxera jua ziran poliziya ta lapurra. Espetxeko nausiyak papala artu ta itandu eban: Urliya nor da? Neu, erantzun eban poliziyak. Orduan zu emen, esautson espetxeko nausiyak.

Eta gura-ta-ez, asarratu yakon arren eta zarataka ibilli zan arren, poliziyakua preso gelditu zan. Andik lastertxu okerra zuzendu eben, poliziyakua kaleratu ta lapurra barrero topau ta espetxeratu.

Izpar orrek gomutara ekarri euskun Bilbon orain ogetaz urtiak dirala izandako yakozun antz-antzeko bat.

Emen bizi zan orduan (urte gitxi da il zala) yoskin bat, txoriburu utsa, beti barriketana, mundua zuzendu eziñik ebillena. Berez ain burutsua izanik, ukondua goitik erabilten be ikasi eban ta, yakiña, apur bat edan orduko, zoro benetakoaren antza artzeban. Edan barik eguanian etzan zorua, gizon buru ariña baño.

Aldi baten, sarriyago edaten ebalako edo, ezin ziran aturau beragaz, ez bere etxeuak, ez bere inguruko aiskide ta lagunak; esan eikian guztiz burutik einda eguala.

Itundu ziran ba, etxeuak eta aiskidiak zorotegira bialtzeko; zuzendu ebezan biar ziran garbitasun guztiyak Diputaziñuan, eta garbitasunak eruazan gizon bat lagun ebala, bialdu eben yoskin txoriburua zorotegira.

Berau ta laguna sartu ziran trenian, zorotegiya eguan urira yuateko, ta sekuleko ederto, bake ta alkartasunik andiyenian, ibilli ziran bide guztiyan.

Zorotegi-urira elduta, asmau eben alkarregaz bazkaldu biar ebela, ta gero uriko bazterrak ikusi, eguraste on bat arturik.

Esan da egin. Arratsaldiyan illundu baño lenago eldu ziran zorotegira ta bertako Artzekariyaren aurrera agertu ziranian, yoskiñak bere sakeletik atara bere garbitasunak eta esautson a beste gizona zorotegira ekarrela...



Au entzun orduko barriz bestia, guztiz asarratu ta didarka asi zan; bera etzala zorua esaten. Yoskiñak, orduan, Artezkariyari bestela-baitakuan esate-eutson apur bat berotxua zala. Artezkariyak ikuste-eban garbitasunak emon eutsozan gizona (yoskiña) zintzo ta nasai eguala ta beste gizona (laguntzallia) ebillela beso urtika ta garrasika, ta siñistu eban au zala zorua ta berau lotu eban zorotegiyan, eta yoskiña aske itxi eban.

Diputaziñoko garbitasunak zelan aldatu ziran yoskiñaren eskuetara eztakigu orain, ala sakeletik igarri barik atara ete eutsozan ala gizon arek berak, yoskiñari emon ete eutsozan, eukiteko; dana dala, garbitasunok zoruak, edo zorotzakuk eukazan, eta... zorua azke ta zentzunduna zorotegian gelditu ziran.

Biyaramoneko yakin eben zorotegiko nagusiyak zelako ordezkerra izan zan eta bialdu ebezan gizonak yoskiñaren billa, baña ezeben izan izerdi asko bota biarrik bera idoroteko; zorotegi-uriko taberna baten aurkitu eben, guztizko umore ederraz txikerdi batzuk paparlepo bitartera ustuten.

Amaika barre gozo egin zan orduan Bilbon, zorotegi-uriyan, zorotegiyan bertan, yoskin txoriburu aren egitadia zala ta ezala!

BALTZOLAKO GIZONA

Durangoko ta Galdakaoko, Zornotzako, Arratiako ta Gazteizko mendigoizaliak atzo ziran Baltzolako kobak ikusten juateko eta onexek gogora ekarri dausku gure gaztetan koba orretan jazorikua.

Enago ziur baña uste dot berrogei urte igaro dirala emen nik esango dodana jazo zanetik.

Egun eder baten, Baltzola etxietako mutiko bat, koba-aldian ardi-zain ebillala jezarri zan kobearen berengo zulo-aurretuan, eta an eguan txilibitua joten edo onetaiko zeregiñen baten; onetan entzun eban zaratia koba-barruan, burua bigurtu ta ikusi eban urtetan barrutik gixon, edo gixon-antzeko, ikaragarri bat; beintzat ule ta bixerrak gerrirañokuak eban eta soñekuak triskil-triskil eginda. Axe zan bildurgarrija!

Mutikuak igesi egin eban beriala, zoratuta lez; bestiak, atzeikara didar egiten eutson ez bildurtzeko; bera be gixon bat zala, ezeutsola gatxik ingo eta danau euzkeraz esaten eutson. Mutikua arin-arin juan zan etxera ta gurasuei edesi (kontau) eutsen jazorikua.

Ezin eben siñestu. Orraiti koba-aldera urreratu ziran eta... baita! antxe eguan «basatija» alkar itz-egin eben; esanik basatijak argin bat gura leukela koba-barruan lanen bat egiteko, bertan urte batzuk bixi ixateko ustez etorri zala-ta.

Baltzolarrak Dimako alkatia jakitun ipiñi eben; onek txapel-okerrai esan eutsen, bada-ezpadan; txapel-okerrak, Villarokuak, juan ziran kobara, espe (preso) artu eben «basatija» ta Villarora eruan eben, eta gobernadoriari izparra bialdu.

«Basatija» bilbotarra zan, eukidun sendi (familia) kua, itxastar ontzi-nagusija, Gorbeian aurrerako urte bijan bixi ixan zana basatijak lez, eta orduban Baltzolarra beste urte batzuetako etorrija alako biximodua eukiteko.

Esate-eben orduban, gixon orrek ezebala jaten bedarkija baño, bein bez okelarik ez koiperik, jantzi arin bat uda-ta-negu, eta egunero, naiz ta neguban otzik andijenaz be, mendiko errekatxuetan bustialdiya artzen ebala.

Bere ama ta sendikuak etorri ei-ziran Villarora ta gixon bakan ori eruan eieben etxera.

Andik urte batzuetara (iru edo lau) lagun batzuekaz igande baten juan nintzan Madridetik Ciempozuelos deritxon errira, bertako Zoroetxia



ikusteko asmoz. Zoroetxe aretan ta gerotxuago pralle bategaz etxia ikusten genbiltzala, batu yakun gixon sendokote itxura oneko bat, bixar andi baltz-baltza ebana, ta ulia atzerantza dana orraztuta kopeta lodi-lodi bat gerriraño jausten yakola, burutsik; eta geugaz ibilli zan goiz guztian eta berak erakutsi euskun etxe guztiya. Bazkal-orduban banandu giñian, eta pralle nausijaz ta beste bategaz bazkaldu gendun Madridetik juandako mutillok; orduban itandu neutsen ia a nor ete zan, eta esaustien axe zala Bizkaiko mendi bateko koba-zulo baten basatija lez bixiten eguala arrapau ebena, eta bere sendijak etxe aretara bidaldu ebala aurreraoko urte baten eta, antxe eguala!

Nik ikara andija artu neban, igarri neban ba axe zala Baltzolako gixon bixartsu ta uletsuba.

Guk ezkeutson igarri zorotasunik gixon areri; gure ustez iñok añako ezautasunaz oldosten eban. Pralliai itandu geuntsen ia zelako gixona zan, eta erantzun euskuben:

«Ori gixonori gure ustez ezta zorua, orrek bere oldoskunak daukoz gizonatzaz ta bixitxeatzaz. Gaur ikusi dozuben modu-moduan dago ori ona ekarri ebenik geiago; bein be eztau zoro-gauzarik egin; baketsua da ta azikera oso onekua; begiretua bere itzetan; gugaz ezin obeto eruan leike; beti dago gertu geuri edozetan laguntzeko. Beti jaten dau bedarkija egosita, ta besterik ez; edaririk bein bez, ur utsa beti. Orrentzat ezta ez okela gauzarik, ez arrañoik, ez esnerik, ez arrautzarik, ez ogirik, ez ezer, bedar utsa baño, bedar egosija. Jantzi beti bardin, uda ta negu, ta soñeko ariña. Bein be ezta gexorik egoten; osasun gogorra dau». Orduban esan geuntsen pralliei, olako biximodua penitentziaz ete-eroian eta erantzun euskuben ezetz, ak ezeukala erlejiñorik, ezebala otoitzik egiten, ezta ezebala mezarik entzuten. Orraitiño, ez cutsoela iñoz itz bat be entzun erlejiñuaren aurka.

Euberdi-ostian, zoro-etxeke gela nausijan, «Basati» ta zoro bat etorri-ta pianua joten ekin eben, ederto gero bijak. Arek bata bestiaren urrengo pianu-joten ebiltzan artian, pralle bati esan neutson: Pianu-joten be baki? Bai, esaustan pralliak, sarri ibilten da joten musika asko daki ta zale-tasun aundija dauko. Gizon bakan edo «raro» bat da.

Andik sei edo zazpi illabetera, Zoro-etxe aretako pralle, ni bizi nintzan etxera eskian etorten zanari itandu neutson ia zelan bixi zan nire errikide «basatia» ta esaustan.

—Igesi egin dau andik. Goiz baten etzan agertu ez bere lo-gelan ez iñun; azterrenak artu ziran ba, ia ezer jakiten gendun nundik-nora igesi

ein ete eban, eta eztozu ezer lortu; lorratzik itxi barik alde egin dau, ezta-kigu ezer.

Nora alde egin ete-eban, Baltzolako gixonak? Amerikako edo Apirikako basamortuen baten bere azken lekuba idoro ixango eben urrian.



MUTIL TXIKIAK ANDIA ARRAPAU

(Jazorikoa)

Karlisten ontxuko gudatian, (1827tik 1876ra) baltzen batalloi bat yoian Berriztik ziar Ermu alderantz.

Batalloiaren atzeko aldian yoiazan soldauetarik bat urten zan bidetik, prakak azkatu biar ebazala-ta; bere lagunak aurrera jarraitu eben gelditu barik.

Berau sartu zan zugatz-arte baten, eta bere puxilla enbor edo tronko bati eutsola ipiñi ta gero, bere prakok azkatu zituan sasi baten onduan.

Baña antxe eguan ezkutauta zugatz-enbor baten ostian, andixik tro-piari begira, mutil gaztetxu bat, amabi urtetik gora asko geiau etzana. Eta soldauak prakak azkatu zituanian, arnasaik be artu barik, katua txoriagana ta amaraunbako miarmatxu saltokaria euliagana juan oi diran baixen astiro ta zarata baga urreratu zan puxilla eguan tokira.

Artu berau, jaso bere txakurtxua, ta soldauari begira ipiñi eban, oni adierazorik erdera mordolloz geldi egoteko ta berak agintzen eutsona egiteko, bestelan baliaz bertan josiko eba.

Eta orra ogetaz urtietako mutil kankallua, bere praka gorri, morral, kartuxera ta soldau traste guztiekaz (puxilla ezik) mutil sostortxu baten menpian.

Eta ixil-ixillik yuan biar mutiltxuaren aurrian Markinako bitxabaletik, an goian karlisten guardia-lekua idoro artian. Aren eskuartian itxi eban mutiko azartuak bere «prisionerua», ta gero etxera.

FISIKAKO IRAKASPEN BAT

Lengo egunetako euzki-galdak gomutara ekarri dauskue, orain jazo-era bat.

Gure aiskidia ta bere lagun bat, biak emenguak, ei-egozan bein Leon-go erri baten, elizpian, amaika ta erdietako mezia noz asiko zan begira.

Udearen biotz-biotzian ei-zan. Zerua garbi-garbi. Aizerik bapez. Euzkiak erre biar bazter guztiak. Eleiziaren aurreko enparantza, labia letxe ei-eguan. Bero andienetarikoa. Gure aiskidiak iñuanetz, termometro bat euzkitan ipiñi balitz, 46-47 malla erakutsi izango ei-ebazan, gitxienez. Onetan, ikararik andienaz ikusi eben etorten eleizarantz enparantza gal-datuaren erdi-erditik gizon bat kapiaz batuta burutik oñetara eta buruan eroian kapela sendo egal-zabala.

Kapiaren iduna eltzen yakon belarrietaraño, buruko kapelia jo arte, ta orregaitik arpegia etxakon ondo ikusten; oztoza begiak eta surra. Kapia ei-zan Kastillako erri txikietan lugiñak erabilli oi dabezan lakoxe sendua; ta luzia, barriz, orpoetaraño.

Astiro-astiro ei-etorran, oinkada lau-laua ta laburra egiten eba.

Eldu zanian eleizpera, keizpetara, kendu ebazan kapia ta kapelia. Orduantxe ezautu eben, erri-idazkaria (secretario municipal) zan.

Esan ei-cutsoen ba, ia zoratu ete-yakon alako beruaz kapiaz etorteko; ta berak erantzun ei-eban, kapiaz ta kapeliaz estalduta preskuago etorten zala. Ia zelan ori, ta ona emen bere zegaitia: —Gizona: kapia ta ostantzeko jantzi sendo «berogarriak», zetarako ipinten doguz neguan? Gure gorputzeko berua igesi juan eztaiten eguratzera (atmosfera). Jantzi sendo orreik dira «esiyak» beruentzako, igaroten eztautso izten; orregaitik gordetan dabe gorputzaren berua, kanpora juaten galerazorik, eta berogarriak ereizten dautsegu. Ba, eguratzian gaur lez, gure gorputzaren berua baño askozaz andiagoa daguean, orrelako jantzi senduak, beruarentzat «esiy» dira; jantziak, galerazo egiten dautsoe kanpoko beruari gure gorputzera sartzen. Gorputzetik eguratzera, ta eguratzetik gorputzera igaroten eragotzi eiten dautsoe beruari. Eta ona emen zegaitik ni, olako egunetan etorten nazan eleizara ta nai-nora neure kapa andiaz, astiro-astiro, al-dodan indarrik gitxien eiten dodala. Ta onetara presko-presko, edo beintzat, papaua lez abua zabalik neuri begira egoten diran gixajuek baño



askozaz preskuago. Nik esan neutson neure aiskidiari: —Zuek be idazkariena entzun ezkeru, kapa andi batzuk eskatuko zenduezan euzkirik-euzki ibilteko. Aizkidiak erantzuztan ezetz; eurek uste ebela idazkari arek zuzen esan ebala, baña alan be, oiturarik-ezak edo ezeutsela itxi kapiaz ibilten.

JAKINTZA-ZALIAK

—Ai Kirikiño, gu galduak gara, eztaukogulako bape jakintza-zalerik, erri basati bat gara, ta beti jazo dan lez erri jakintza-zaliak azpian artzia jakintza-bako erriak, gu be.

—Tira-tira, eztaistazu barrero sermoi ori esan, entzunaren entzunaz iya erdi aztuta daukodalako.

—Zuk zeure patxada orregaz ernegau eraingo zeuskio santu bati be. Ez alda egia guk eztaukogula jakintza-zalerik? Ez alda egia jakintza-zaliak ez tiran erriak jausi biar dabela?

—Lenengo itanduari daratzutsot: Jakintza-zale izaten ezkara lenengo mallakuak ez gitxiago be, baña azkenenguak bez. Jakintza-zaletasuna, alde guztijetan izaten da gitxi. Eta emen baño gitxiago leku askotan.

—Nun? Ia esaizu ba nun? Baña ez etorri nigana Ebroz aruntzako gauzakaz, ango barri bakigu danok-ta. Ori alde batera kendu ezkeru, ia European nun diran gu baño gitxiago jakintza-zaletasunian.

—Leku askotan, eta ontxe edestuko dautzut Parantzen jazoriko bat. Ara: Ontxe urte batzuk dirala euskeraz ikasten ibilli zan emen Bilbon, Diputaziñoaren euskel-irakastolan Jules Fermaud izena daun Valenciatar bat, bere aita parantzetarra zala esaten eban, eta gaztetan ikaskizunak egiteko aitorrek bidaldu ebala Montpellier Parantzekora.

Eta berau euskeraz ikasten ibilli zan urtian jazo zan urte guztietakoa gure euskal irakastolan: ikasten asiriko erdiak inguru gelditu zirala udabarrirako.

Geure tamala agertzen genduan onegaitik: eta Fermaudek esauskun orduan:

—Nik ikusia bazenkie, orrenbeste tamal ezeunkie izango. Ni Montpellierren ikasten nenbillan aldian, jentia eurrez esate-eban eta ango izparringi guztietan be ia egunero ekite-etsuen, Parantzeko gaztieri Berberriako arabe-ela gaurkoa irakatsi biar litzakioela, Argelian, Tunezen, Marrokozen eta abar, salerostian edo ostantzian bizibidia billatzeko guztizko biarra zala jakitia ango arabe-izkuntza, erriak darabilena; mundu guztia aurkitzen zan ba eretxi baten, arabe-ikaskuntza bat ipiñi biar zala.

Montpellerko Irakastetxe Nagusian ipiñi eben ba irakaskuntza ori; ekarri eben maisu bat arabe-elia ederto ekiana ta ondo irakasten be baikiana; iragarri eben matrikulia, izparringiak zarata egin eben, eta asi zan irakaskuntzia Irallian *irureun baño ikasle geiagogaz*. Neu be ikaslia nintzan.



Andik lau illabetera, Urtarrillian, zenbat lez ikasle geratu giñiala uste dozue? Itandu euskun Fermaudek.

Guk erantzuten geuntson, batak eun, bestiak larogei, onek irurogei, arek berrogei, eta Fermaudek beti esateuskun: gitxiago, gitxiago, gitxiago...

—Zenbat ba? Itandu geuntson azkenez ta orduan esaban: Ikaratu zaitez! Bat bakarrik! Neu bakarrik!

—Baña ori siñisgatxa da, Fermaud aiskidia; siñisgatxa ta lotsagarria.

—Ba, esan dautzuedan lez jazo zan.

—Eta Montpelleren jazorikoa beste leku askotan be jazoko da, gizona beti gizon dalako, emen, Parantzen, Guatemalan, Australian, Japonen, nainun. Or Europa ta Amerikako irakastetxe nausi-nausietan ikasi ta ikasi dabiltzan gaziak eztabiltz jakintza-zaletasunaitik, biarko egunian dirua irabaziko daben itxaropenaitik dabiltz. Gazte orrei esango baleutse: «Or iruntziten zabiltzan liburu guztiokaz eztozue ogerleko bat irabazi al izango», egundoko ariñen uts-utsik geratuko litzakez Irakastetxe Nausi entzute andikuok.

—Zu, Kirikiño, alako «ezetiko» zamarra zara.

—Zer nazala?

—Siñistuten erraza etzarala esan gura dot. Gaurko gizonak dirura jausita dagoz, ta zuk or esan dozuna egi antzekoa bai-da izan; baña gizonok izan dira iñoz jakintza-zale andiak, grieguak eta...

—Bai, aitatu dozuz ba ganau ona, grieguak!

—Baña ez gaurkoak, lenaukoak edo antxiñaukoak baño: Sofokeles, Pitagoras, Aristoteles, ta aren aldietan, Grezian mundu guztia zan jakintza-zalia, pillosopua.

—Bai!... zereko pillosopuak! Ona emen diñozun aldietako jazoera bat, urte askotxu dala irakurri nebana George Ebers doixtar jakintsuaren liburu baten, ara.

Bein goiz-goiz, eguna zabaldua laster, uri andi baten inguruko zelai baten aulki batera igonda, asi ei-zan jakintsu ospatsu bat jentiar irakasten. (Itxuraz, olantxe zan orduko ekandua).

Batu yakon jakintsu orri gizon aldra andi bat, eta aurrian eukazan danak adi-adi.

Pillosopua pozik aurkitzen zan. Bere kolkorako iñuan: «Zelako jente jakin-zalia dagon uri onetan!».

Alako baten entzun zan merkatuko kanpaia, merkatua zabaltzen zala adierazotaban kanpaia, ta pillosopuaren entzuliak alde-egin eben danak merkatua, antxe sal-erosten euren bizimodua zuzentzera.

Danak ezeben alde-egin orraitik; bat gelditu zan aurre-aurrian, pillosopuaren aulkiaren aurre-aurrian, eta eskuak zabal belarri oztian ipiñia adi-adi eguan.

Pillosopuak esautson: —Zorionak zeuri jakintza-zalia zaralako, ez orrek zure lagunak merkatuko kanpaia entzun orduko alde-egin dabenak lakuak.

—Baña merkatuko kanpaia jo dabe? esan eban ikaratuta entzule bakarrik, eta aiñeketan alde-egin eban merkatua berak be, pillosopua bakar-bakarrik itxita.

Azkenengo geratu zana, gorra ei-zan, eta entzun ez kanpaia, ta aurrenengo eguan lez igarri ez bere atzekuak alde-egin ebela.

Or daukozuz ba Aristoteles, Euklides, ta enparau pillosopuen errikidiak.

—Orduan zer? Bape eztogu ikasi biar? Liburu guztiei su emon ala?

—Ez gizona, ikastia beti dator ondo, ta ikasi al dana; baña danok etxe-bete liburugaz gau ta egun ikasi ta ikasi, begiek erre biarrik ezkabil-tzalako, ez etorri esaten basatiak garala, taparraboaz ibiltia merezidu dogula, kirten andiek garan lez beti egon biarko dogula buztarripan, eta abar eta abar. Gauzak bere neurrian beti dira ondo.

—Esan lei ba kirtenen alde ta kirtenkerien alde zabiltzala.

—Kirtenak be biar izaten dira sarritan. Enago alako ziur-ziur, emen agiriñan esateko bestian, baña uste dot Edestiara (Historiara) begitu ezkerro, ikusten dala erri jakintsuak jausi dirala beti erri kirtenen menpian, azkenengo oneik gogo andiaukoak izan diralako, il naiz bizi jokatze gertuago egon diralako. Erri jakintsu, ertitsu, aberats, mizke-mizke bizi izan diranak, beti izan dira erri makalak, eta laster ondatu dira.

—Zagoz ixillik, gizona, olakorik esan barik.

—Tira ba, ixiltzen naz.



KONTUZ IRRILARIAKAZ!

Gaztelako erri baten bizi da astokillo aundi bat, ez alan-olangoa, lur-birako astokillo guztien errege edo nagusi izan leitekeana baño.

Beroni irri andi bat egitea asmau eben bein gogaldi oneko lagun batzuk, esango dan eran.

Azoka-eguna zan. Erosi ebazan astokillok untxi edo koneju eder bi. Etxeruntz eroiazala, aurkitu eban enparantza bertan len aitaturiko irrilari bat.

Alkarri egun onak emonda gero, esan eutsan onek astokillori:

—A mutil, orrek dozak ollaskoen ederrak daroazanak; zegan erosi dozak?

—Nungo ollaskoak? erantzun eban astokillok. Oindiño andiagoak entzun bearko doguz!

—Itandu doat zegan erosi doazan ollaskuok.

—Baña non daukazak begiak? Eztok ikusten untxiak diriala?

—Ba, ba, astokillo; ori dok urteieria; gura ezpadok esan zeinbatian erosi doazan ollaskoak, esaik artezean da ezaite ibilli olango lelokeriak erantzuten.

Gelditu zanena bakarrik gure astokillo, begiratu eutsan astiro eskuan eroiazan untxiai, eta ziñoan agin artean:

—Guzurra dala esan leike ori lango gizon batek bestelako astakeria esan leiala.

Iarraitu eutsan bideari ta laster esan eutsen zaldun bik:

—Ollasko ederrak, astokillo...

—Zuek bere bai? begirik badaukazue?

—Zer diñok?

—Nik eskuan daukadazanak ollaskoak diriala diñoazue?

—Zertzuk dozak ba?

—Baiña, gizonak, eztozue ikusten untxiak diriala?

Barre santzo andi bat egin eben biak, esanaz:

—Edo gogaldi ederra daukak, edo ukalonduori goitik erabilli bear izan dok ik gaur goizean.

Asarrez ioian etxeruntz gure astokillo, ta kafe-etxe baten ondotik igaro zanean, leio ondoko mai baten egozanai entzun eutsen esaten:

—Mutillak, egazti alagalakoak astokillok daroazanak, *arrozax* ipiñita iateko gaur arratsaldean.

—Andia da gero kontu au! esaten eban beren artean astokillo koita-duak, noizik beñean untxiai gogoz begiratuta.

Ganera, beren etxera eldu baño lentxuago bi edo iruk berba egin eutsen besteen erara, ikaratu zan, da ariñeketa baten sartu zan etxean, iaurti ebazan untxiak, beren emazteari esanaz:

—Or daukazuz ollasko edo untxi edo demoniño bi, nik eztakit zeatz zer direan-da.

Emazteak auzoetako lagun askori deituta, danen artean nekez siñistu erazo eutsen astokillori, azokatik ekarri ebazanak untxiak zireala, ez ollaskoak.

* * *

Irri astuna da, ez bakarrik astokillorentzako, baita norberen burua zer edo zertzat daukanarentzako bere. Irrilariak egin eben au astokillogaz astotzat ezagutua zalako; baña etorri baillakee burura beste edozeiñegaz egitea alako deabrukeria, beste au bere eztakit zelan ibilliko zan, aiñ da andia lagun askori entzuten iakan gauzeak daukan indarra.

Astokillori gertau iakona, edo gertau iakon antz antzekoa aurrez ikusten dogu gaurko egunean, ez zoritxarrean ollasko kontuetan, au azkenean bere ezta aldia igaroteko ta barre batzuk egiteko baño; gertatuten da beste gauza astunagoetan.

Iatorriz beren barruan daukan adimeneko argiaz baño ezpada bere, gizonak ikusten ditu gauza asko garbi, zuzen, eurai dagokioen erara, astokillok beren begi zoliakaz untxiak ikusten ebazan lez. Alan, begiratuaz, eguzkia, illargia, izarrak, itxasoa, lur ta mendi, odei, iturri, erreka, zugatz, bedar, lora, abere, pizti, arrain, egazti, eltxo, ta ezin esan ala gauza, begiratuaz onek gauza guztiok azpiratuten dabezan lege zuzen ta beñ bere utsik egiten eztabezanak, eta azkenean bere barrura begiratuaz, gizonak ezagututen dau garbiro bateren batek izan bear dabela euren egille ta iau-bea, au da Iaungoikoa. Ondo daki gizonak beren eskuetan daukala azkatasuna, gauza ona edo txarraren zigorra emongo iakala emen edo nun edo nun; badaki zer dan gauza ona ta zer dan txarra, berari besteak egitea gura leukeanari begiratuaz bakarrik; badaki gizon batzuk alper, nagi ta baldresak direan artean, beste batzuk langiñ, bizkor ta zoliak direala, eta beraz ondasunetan bardiñak ezin izan leitekezala; badaki batzakuntza guztietan, iraungo badabe, legeak egon bear dabeela, eta lege onen betekuntzarako norbait edo norbaitzuk izentauta egotea nai-ta-naiezkoa dala, eta berari



edo eurari begirune ta menegindea zor deusagula; onek ta beste gauza asko daukoz gizonak beren begirapean.

Eurok baño ziertuago dakiz ondiño beste egi goragoko batzuk, ulertuten ezpaditu bere, neurri bagako anditasunekoak direalako ta gizonaren adimena neurrikoa, ta ez andikoa, dalako; egi onetaraño ezaban gizonak sekulan igongo, Yaun errukitsuak berak agertu ezpaleutsoz ondamentetik aldendutearren; egi onek, edonok daki, geure Yesukristo Yaunak irakatsirikoak dira, Eliza donearen ikasbidean iratsita dagozanak.

Astokillok enparantzatik etxera bitartean sakabanatuta irrilaria aurkitu ebazan eran, gizonak bere topez egiten dau lurbira guztian zabaldua dabizan irrilaria gaizto batzukaz, zeintzuk daukeezan batuta euren gogoak, gizon gaisoi zuria baltza dala ta baltza zuria, zuzena okerra, okerra zuzena, eguna gaua ta untxiak ollaskoak direala siñesterazoteko.

Onetariko batek dirautso gizagaixoari, esate baterako liburu baten orri artetik, eztabela siñistu bear aiñ garbiro dakusen gauzea; eztagoala ez Yaungoikorik, ez arimarik, ez saririk, ez zigorrik, ez erlejiñorik; eztozula bear legerik, ez nagusirik, danok bardiñak izan bear dogula, bakotxak gogoak emoten dautsana baño besterik eztaukala zergaitik egin, da beste onako astakeri asko. Lenengoan, astokilloren antzera, esango dau bere artean: «Gizon onek eztauko zentzunik». Baña gero iraslariak liburutik iaurti dautsazanak, irakurriko dauz ostera bere albistarien baten, ioango da batzar edo *mitinen* batera ta an bere entzungo dauz barrero astakeriok, entzungo dauz ikasteetxetan, etzungo dauz *kafetxeetan*, ardantegietan, biltoki edo *teatroetan*, burdin-bidean, kalean eta alde guztietan dagozalako deabruaren semeok, edo obeto esateko deabruaren laguntzalleok, umeak Goikoarenak direalako danak.

Eta zorionez ezpadauko nok ipiñi begien aurrean, edo badauko bere, ezin baiako ezautu-erazo irrilaria darabilden arloa, astokillok beren emaztea ta auzokoak euki ebazan lez, geratuko da azkenean benetako asto bat eginda. Siñesterazoko dautsee gura dabeen guztia; esango dautse idiak egaxka dabizala lorarik lora, erleak balira lez, da bete betean siñistuko dau; esango dautse eskumako besoa ezkerra dala, ta alantxe dok izan be; esango dautse astoa izateko arrantzea baño eztabela bear, da baita; edozein gauzatarako ipinten dabe bigun-bigun. Orduan igoten dautse bizkar-ganera, ta ederto doaz neke barik eurak gogoa dauken lekura, ederto doaz goietaraño, au da, Errien buru edo nausi izatera, zeintzuetara ez leukee iñoz igon al izango bakarrea; argal, erkin, indar bageko gizontxu batzuk dirialako.

Ta ezta gauza barregarria ikustea azpiko astoa esaten gogoz arrantza ikaragarriakaz: Bizi bedi azkatasuna! Bizi beitez gizonaren eskubideak!!?

Eztaukak azkatasun txarra gizagaixo orrek, pozik aska baten galtzu apurren bat iaten emoten badeue; barre egiuek eskubideai, lelo orrek; eure iaubeen kontra ezetan asten baaz, laster lotuko abe ta makillaka azurrrak eiotuta arrantza neketsuak bota bearko dozak; zer uste dok ba, ire ederragaitik dabiltzala besteok? A ze barre zantzoak egingo leuskizuezan batai ta besteai, gaiztakeri guztien iturburuak, barrerik egiteko balego bera!

Astokillori egin eutseena, kontuan egon-ezkero, ezta erraz egitea iñori; beste muetako astokilloai egiten dautseena bere ezta ain erraz-erraza, kontuz bizi ezkerro ta gogoan euki ezkerro zelango txakurrak dabizan Yaungoikoren lurbiratik zear; orregaitik danok euki bear dogu gomutan esakune au. «Kontuz irrilaria kaz!», ba lotsagarria izango litzateke astokillo baten antzera sartuko baleuskue bestelako lakatza!



BIORRAREN ARRAUTZAK

Antxiña, batek baki noz, Bilbaoko zeian edo merkatuan guztiak euzkeraz itz-egiten eben aldian, salgei eukozan baserritar batek kui edo kalabaza ori andi bi.

Belarrimotz kirten bat urreratu yakon eta itandu eutson euzkera mordolloz:

—Zer da ori gauza andi?

Baserritarrak, barrurantzako irribarre bat eginda, esan eban bere artian: «Nungoa ete-da berau!». Eta erantzun eutson: —Biorraren arrautzak dira onek.

—O ze gauza! Ni erosi bat. Zenbat gura?

—Lau ogerleko.

—Ondo, artu dirua. Ni eruan au, anaiari bidaldu *Castillara*.

Artu eban lepuan «arrautza» andia, ta bai-yoan Bolueta aldera an eguan mandazain erritar bati emoteko, berak eruan egian *Castillara*.

Nekau egin zan bidian, eta jezarri zan atsedeten aldatzune baten, ibai-ganeko zugatz batzuen azpian gerizpetan. Zigarrua egiten eta izituten ebillan artian uste barik zirkin eragin eutson «arrautza» areri, ta abiau zan berau bilin-balanka aldatza bera, sartu zan sasi-arte baten jo eban arri bat, eta zati-zati egin zan; egin-eginian be, erbi bat eguan lo sasi-onduan, itxartu egin zan eta tximistia lez asi zan ariñeketan.

Au ikusirik belarrimotza, abiau zan bera be arrapaladan erbiaren atzian, «arrautzeak» barruan eukiriko txikua edo zaldikumia zalakuan... baña... bai, gorantziak emioizak!

Orduan arpegi, mukerraz ta besuak eunduta esan eban:

—¡Redicla! y qué caballico mas majo hubiá tenio si no se me escapa el indino. (Arrayie! ori izango zuan zaldi dotoria madarikatuak igesi egin euzpaleust).

MUTIKOAK

Txomin Beterre asarre da mutikuekaz, bere ortura sagar-billa sartzen diralako.

Eta eurok bildurtutiarren, ortura sartzen diran leku-lekuan ormatik dingiliz ol bat ipiñi dau, bertan onantxe euskeraz idatzita: *Ilgo da ortu onetara sartzen dana!*

Arratsaldian, eskolatik urten da gerotxuago, mutiko-aldratxu bat andik igarota, ikusi dabe, ta arrituta gelditu dira:

—Mutillak, ikustozue?

—Zer ipiñi ete yok barruan...

—Azeri-zeporen bat, iguel.

—Edo iñamitie.

—Edo sagarra berenue ezarri.

—Batek baiakik!

Eta bildurrez alde egiten dabe andik elexperantz; antxe izan oi dabe euren batzokia ta.

Astebete inguruan etxako Txomin Beterreri ortuan mutikorik sartu, ta berau guztizko pozik dabil.

Baña gero, alako baten, tximiñuak lez orma-ganetik ortura sartu ta sagarretan dabiz mutiko asko, ilteko bildur gitxigaz.

Ikusi dauz Beterrek, eta sekuleko ariñen eurekana juan eta ortutik uxatu dauz.

«Zer dala ta bildurra galdu ete-dabe barraban-barrabanok?». esanda, urten da ortutik kanpora, ta arrituta ikusi dau berak ipiñiriko olian beste idazkun bat ipiñi daula bate-batek, onantxe: *Eta ortu onetan sartzen ezтана be, ilgo da!*

Jakiña, danak il biar, sartzen diranak eta sartzen ezdiranak.

Kendu dau beterrek bere idazkuno, eta etxeratuten da bere artian esaten:

—Onok mutikuok plagie bera baño be txarrauek dira. Ia zelan igerrri dausten idazkune! Ezin lei, ezin lei eurokaz.



BESTE ALDEKO MUTIKO BAT

Orain berrogetaz urtiak, illuntze baten, Mañariko Ormetxe-Markue-Antoia-Katia auzoko jentia soluetatik etxerantza yoianian zeozer apaldu ta laster ogeratzeko ustez, orra nun agertzen dan Mendibeta aldetik «zer-bait» arin-arin datorrela, argi ta guzti, ixi-ixillik...

Gelditzen da jentia arrituta lez bidekuari begira ta:

—Ene! Zer da gero beroi?

—Jesus Maria ta Kose!

—Arrayie, oixe eztok gauzona!

—Aitiaren, Semiaren...!

—Ondiño zertzuk ikusteko ete-gagoz!

—Zer dan erreparau dautsozue gero?

—Nok igarri zer dan...? Gauz ona ez beintzat.

—Tximistia letxe yuen dan arren, erreparau dot txirringa moduko batzuk izan diriala ta eurekaz batera buelto baltz bat, eta aurrian abua lakoxe bat zabalik, sua edo argiya dariyola.

—Arrigarriyena da orren arin yuetie ta bape zarata barik.

—Ori, gure ta be, gauz ona ezin izan leiteke.

—Ez ba; beste aldeko mutikuen bat da, ori segurutik.

—Zetan esan bez ori.

Onetariko zeresan asko ipiñi eban illuntze aretan Mañarira lenengoz elduriko «txirringuts» edo «bizikeletiak».

Baiba, jente arek ordura arte ezeban iñoz ikusi zaldi-burdijak eta idiburdijak baño, alde batetik bestera bitxabalez ibilteko, eta «txirringutsa» gauza arrigarriya zan, iñok amesetan be iruditu ezin leikena.

Ikusi alako gauza barri bat, eta illundu-ta ezin ondo arturik bere taiu ta antza tximistia baizen arin dabilela, ixi-ixillik, eta aurretik sua dariyola... ez eta da gauza arrigarriya?

Txirringulariya, baña Antoian gelditu zan, eta etzan andik aurrera yuan.

Biyaramon goizian zabal zan auzuan Antoiako Matxin Artetxe mutilla izan zala aurreragoko illuntzian tramankulu diabruan etorri zana, eta danak gora-goraka andiyakaz esaten eutsien Matxinen anaia Gabiñori-ta, a mutilla ezebilela bide onetatik, «kargu» artu daiuela, ta atsuen batek aita-tu biar izan eutson ondo ixango leiteke Matxini «bedeinkaziño» batzuk emotia ta...

Azuekaz bakerik izango bazan, nai-ta-naiezkoa izan zan Matxini «bedeinkaziño» sendo batzuk emotia.

Domeka baten izan zan au, eta astelen biyaramonian, goizian goizetik, eguna zabaldu baño lenago, bere txirringutsian yarri ta Durangoruntz al eban aiñeketarik andiyenaz igesi eban Matxinek bere bedeinkaziño ta guzti.

Orra Mañarira elduriko lenengo txirringulariyari yazo yakona.



ERESPATZAK ETA ABESPATZAK

Orrek dozak itz zakarrak ostera!

—Zakar egiten yatzuz barriak edo ezezeunak diralako zuretzat; gugaz sarri ibilli bazabiltz, aldi asko igasi orduko guztiz erraz ta bigun eretxiko dozuz esaten naiz entzuten.

—Eta zertzuk dozak ba? Zer esan gurozube eurokaz?

—Erderazko «Banda de Música» ta «Orfeón».

—Tirok ba, ua aurrera.

Zeure baimenaz, eskarrik asko. Lengo egun bijetan larunbat-igande, usubillo ta zarraparra andija ibilli da Bilbao onetan; alde guztijak jentez bete-beterik.

Eztago eresija edo musikea lakorik jentia erakarteko. Il-illik dagon kale baten asi zaitez joten edozein eresi-tresna ta aitearen baten ipiñikozu kale guztiya jentez beterik eta bertako leio ta etxe-zulo guztiyak buruz beterik.

Bilbo au berez da beti jentetsua ta bixi-bixija ta eragiña, ta ainbeste erespatz eta abespatz zarataka etorri ezker, kontixu ezala iñor gelditu etxe-barruetan, aboliñan egon danen bat ixan ezik; orrez ganera, ipiñixuz erbestetik etorrijak eta gogoratu daikezu zelako erlia ibilli ixango dan emen.

Neu, eresi-arazoetan enaz iñor ta orregaitik, egunokaz nire inguruan ixan diran barriketetan sariketetzaz, xixi-ixillik egoten ixan naz, entzun da entzun.

Eta entzun ixan dodanetik neure buru barruan sortu da oldozpen bat, eta gero beronegandik nire bijotzan asmo bat.

Eta nik irakurlientzat eztaukodan lez gauza ixillekorik, ementxe emon biar dautzuket asmo onen barri; ara:

Aberats andija iñoz ixaten banaz (Jaungoikoak eztaiala gura!), onako erespatz-abespatz-sariketarik badago, sari nausija atarako dau neure erri koskor Mañari, atxen artian galduta lez dagon baserri txikiko musika-ban-deak eta orfeoia.

—Baña ezpadago erespatzik ez abespatzik, zelan irabazi?

—Ezta ardura, berialaxe eralduko geunkez. Batuko gintzakez Txinuelo, Atzekalde, Baldresko, Mustur, Katakortz, Erkinio ta neu, esaterako; egin geure arautegi edo erreglamentuba ta... orra or!

—Baña zuek gixajozarrok, nun saririk irabazi al?

—Nun? Ementxe, Bilbaon bertan, eta ankapetik pasauko geunkez abespatzak eta erespatzak guztijak!

—Ankapetik bai... zera!

—Bai, bai. Nik esango neuke orduban: «Zer dozak niretzat zortzi mille, naiz amar mille ogerleko neure errijari ospe ona edo ondria emotiarren?».

Da juango nintzake Madrid, Bartzelona, Milan, Paris, Londonera... ta ekarriko neukez, diruz lotuta, uri andi orretako eresjole ta abeslaririk onenak Mañarira, geure bandara ta geure orfeoera.

Egingo geunke ikurrin edo bandera eder-eder bat, eta ipiñiko geuskio idazkuna erderaz Euskal-erriko erespatz-abespatzetan oitura dan lez: «La Revolución Harmónica de la M.N. y M.L. y M.G. e Invulnerable Anteglesia de Mañaria».

Baserri txiki arek eztaukola olako titulorik? Eta zer? Laster erosiko geunskioz tituluok dirua euki ezker. Aspaldijon eztabe egiten ba edozein astapuz «marqués» edo «conde» dirua sano badauko?

Gure eresjolei ta abeslarijei egingo geunskioez janzkide edo uniforme dotoriak. Eta, jibitia erabilliko geunke, ankapetik pasauko geunkez danak, ezteritxozu?

Zuk diñozun moduan gauzak egin ezker bai, baia...

—Aiskidia, baia eralgiteko itxixu; guk be ezkeunke egingo, gitxi-asko, danak egiten dabena baño.



IRRIBORRUAK

Gizon zibillizadu (?) bat

I

Gure gizon au zezen-plazan dago.
 Zezen gaizto ta indartsu bat agertzen da.
 Bai-dua berau artez-artezen urren agiri dan zaldiagana.
 Lenengo adarkadan zaldia ta bere ganekua jasoten dau aidian.
 Zaldunari laguntzen arin-arin datoz beste toliadoriak.
 Zezenak itxututa deragoio zaldiari adarka.
 Zulatzen dautsoz bularra ta sabela, bere barruko errai guztiak atara ta zatitzen dautsoz, ta zaldia bertan ilda izten dau, ingurua odolez ta errai-zatiz beterik dagola.
 Beste orrenbeste egiten dau zezenak bigarren zaldiaz be...
 Au ikusirik, gure gizon au txaloka ta pozarren zutundu, ta didarrez asten da: *¡Caballos, caballos, caballos!*
 Ekarri daioezala zaldiak zezen areri, eskatzen dau.
 Eta bai-dakarrez ekarri be.
 Zaldi gaxuek zezena ikusita bildur dira, eztabe zezenaren aurrian jarri gura, baña gizon bi edo iruk, erruki barik atzeko anketan makillakaz jota, aurrerantz eraiten dautsie.
 An agertzen dira luze lau-bost zaldi gaxo.
 Gure gizon onek guztizko pozik ikusi dau triskantzia.

II

Egun batzuk geruago, gure gizon au Bilbaoko Estación-kaletik Areatza-alderantz zuzentzen da.
 Gorantza dua iru mandodun burdi bat, olez kargauta.
 Burtzainak manduei eragiteko, yibita-kirtenaz jotzen dauz gogor, didar andiak egiñaz.
 Gure gizon oneri asarratzen yako ta diño:
 —Ori da animalia koitauek erabilteko modua! Beorrek bieleukez orrek yibita kirtenaz. Autoridadiak nun dira, olako astakeriak ez galazoteko? Eztago txinelik ala? Ostera be esango dabe estranjerian gu ondiño erdi zibilizate baño ezkauzela... lotsagarriok!...
 Eta asarre bizi baten alde-egiten dau andik.

III

Gure gizon au ez uste irakatsi-bakoa danik, baserritar edo arrantzale edo ostantzeko langille-artekoa.
 Etxe dirutsuan jaio ta azia da.
 Txikitatik geiago ibilli izan da ikastolaik-ikastola, bere karrera amaitu arte. Asko irakurri ta entzun; asko ikusi ta ikasi dau. Baita bai-da eleizatikoa be. Nor dan? Asko dira orretarikoak. Nik ezautzen dodazan lez, zeuk be, irakurle, ainbat ezautzen dozuz.



AMERIKARA... ZETAKO?

Baserri txiki bateko mutil gazte batek diñost Amerikara duala gane-ko egunen baten.

—Amerikara, zegaitik zuaz ba?

—An urte batzuk eginda diru zati polit bategaz etortiarren.

—Ekarriko ete dozu gero...

—Beste batzuk ekarri dabe beintzat.

—Askok ez. Zenbat dira amabost urte oneitan erritik Amerikara juan diranak?

Berrogei inguru bai, ezta? eta, zenbat etorri dira ba diruagaz?

—Or daukozu Urlija ta or daukozu Berendija ta or daukozu Sandija ta or daukozu...

—Bai, baidakit laugarrena zein dan. Guztira lau atzera etorri dira.

Eta, zenbat diru ekarri dau geien ekarri daunak?

—Berrogei mille erriel ekarri dituana be baida ba.

—Orrexek geien, Amerikan zazpi urte eginda.

—Eta gitxi deritxazu ala? Emen zazpi urtian nok orrenbeste diru aurreztu?... Ezta!!

—Aurreztu ez?... Bai aurreztu!!

—Oixe eztaustazu argi ipiñiko.

—Ara: Amerikatik bi mille ogerlekogaz etorri dana, zazpi urtian bertan egonda, neuk baxen ondo dakixu zeuk be zelako biximodua egin daben an berak kontau dau sarritan-da: *ez ardaurrik edan dau*, *ez zigarrorrik erre dau*, *ez akeitarik (kaferik) artu dau*, *ez gasturik egin dau*, *bixi ixateko biar-biarrekua baño*; orren gogua ezta besterik ixan dirua aurreratzea baño. Ba ori emen egin ezkerro, neuk diñotzut Amerikan beste diru batuko leukela. Egin-egiñian be orra nun duan Izardoiko Pepianton... Eup!! Ia ona pis-katen mesedez... ointxe ikusiko dozu...

—Pepianton, zenbat aloger irabazten dozu Bilboko nasa edo muellietan?

—Berrogeta bost erriel.

—Adi egon ba; neuk uste dot gure erriko Urlija Amerikan lez bixi ixango balitz Pepianton, aurreztuko leukela egunian ogerleko bat baño geiago. Baña zeure aldera geiago egitiarren, uste ixan daigun ogerleko egin-egiñeko bat bakarrik aurreztuten daula egunero.

Atara daiguzan kontuak. Urtiak daukoz irureun ta irurogeta bost egun; urtian ba beste orrenbeste ogerleko aurreztu. Or eztago ezbairrik; argijago ezin, ezta?

—Bai alantxe da, ezin ukatu lei.

—Zazpi urtian ba, zazpi bidar irureun irurogeta bost edo... bi mille bosteun berrogeta amabost ogerleko!!

—Ene ta alantxe da!

—Beraz Amerikara juan biarrik eztago diruak eiteko; emen be ein leikez an letxe gogua orretara ipiñi ezkerro, diruak eiteko asmuaz alperre-ko gastu guztiyak kendu ezkerro.

Ortxe daukozu nasan edo muellian lan-egiten daun Pepianton mardu onek ondo begiratuten badautso irabazten daunari, emendik zazpi urtera zelako dirutzia eukiko daun.

Amerikara ez juan ba euzkaldunak.

Etorri ona Bilbao aldera, ta aurreztu dirua ta urte batzuen barruan zeuben etxetik urrin barik diru-moltso politaren jabe ixango zarie.

Amerikara asko duaz ta an dabilz barregarri geienak; an be baidago ba nun gastau ementxe lez, gastateko bidiak ugari dira an be; asko dira etorri gura leukienak atzera euren etxealdera ta ezin.

Asko dira, tunante batzuk eginda, ezetarako eztirala dabiltzanak. Asko dira euren aberri, euren guraso, euren anai-arreba, euren etxalde ta dana aztu dabiñak.

Amerikan be lan-egin biar, bixi ixateko ta dirua aurreztuteko, ta emen be bai.

Amerikan egiten-dana emen be bardin egin lei. An beste irabazte-leku emen be bai.

Beraz, Amerikara, zetako?



TRAMANKULU IKARAGARRIJA

—Bakixu X izpien bitartez gorputz-barruan dagoan edozer ikusi al izaten dala gaur egunian.

—Bai ta orixe da aurrerakuntza andiyenetaiko bat, berari eskerrak osakuntzan gauza arrigarriyak egiten dirala.

—Alantxe da; ta ondiño ori baño aurrerakuntza andiyaguak ikusiko doguz.

—Atan be laster; gizonaren asmena geruago ta biziyagua dala esango neuke bata.

—Ara gaur, asti geitxuago daukogula-ta, ikaratuta itxiko zaituen tramankulu baten barri emon biar dautzut, nai bozu.

—Nai ez? Egin-egiñian be orretan dago ba neure zaletasun guztiya... O gaurko aurrerakundia! O gaurko jakindasuna! O gaurko...!

—Tira entzuizu ba. Gizon batek asmau dau, kanpo-aldeetik etxe-barruak ikusi al izateko tramankulu bat.

—Egiya da ori gero? Izparringi asko irakurten ditut, eta eztot gomuta olakorik bape.

—Ez ba. Gizon asmalari ori ixillik dabil aspaldi onetan Dinamarkako baserri txiki baten bere tramankulua ondu ta onduten, eta eztau argitara atara gura bere ordura arte, guztiz oso ta egikor ipiñi arte.

—Eta zuk, zelan yakin dozu, Dinamarkara izan barik?

—Nire ezagun injiñeru batek, Dinamarkakua bera be, ta asmalariaren gaztetako lagun andiya danak, ara ostera bat egin dau, ta berak yakitun ipiñi nau.

—Eta tramankulu ori da esan dozunez, kanpo-aldeetik etxe-barruetakua ikusteko.

—Bai orretarako; naiz etxe-ondotik, naiz urriñetik tramankulua ipiñi etxiari begira ta ormatik-ziar barruan dagoan guztiya argi-argi ikusi, oixe da asma dauana.

—Ene mutillak!

—Edozelako ormak izan da be naiz arrizko, naiz zulezko, naiz adri-luzko, nai burdiñazko, naiz lurrezko, tramankuluaz ederto ikusten ei da etxe-barrukua, ormarik bape ezpalego lez.

—Baña... mundura erreboluziño bat ekarri biar dau berorrek.

—Erreboluziño bat bakarrik? Bat eta erdi gitxienez.

—Arduraz ibilli biariko da etxe barruan egiten danagaz.

—Orduantxe biziko gara mundu guztiyaren aurrean lez; ezta izango orduan orma-artian ate-leiuak itxita ezkutuan egoterik, iñoren ixillian gura dana egiteko; orduan ezin izango da gauza txarrik egin batzuk edo askok ikusi barik.

—Jentia asko zuzenduko da. Beintzat egingo dauan okerra, guztiyak ikusi ta yakingo dautsoe.

—Ortixik ba etorriko da zuzentza; jentiak agiriyan baño okerreri askozaz geiago egiten dau beti ezkutuan, egunez baño geiago gabez... eta zu, gabez edo illunian be baliyoko ete dau tramankulu orrek?

—Bardin-bardin baliyoko dau; beretzako eztau illunik ez ezkuterik, egunez naiz gabez bardin dautso.

—Beraz ezin lei beragandik iges-egin.

—Ezin. Menditarte baten sartu arren mendiyen beste aldetik ikusi; baita atxulo baten sartuta be, baita, al balitz, itxasorik sakonenaren ondarrian yarrita be, tramankuluak argiro ikusiko leuke.

—Berorregaz orduan, ezta gauza ezkuterik munduan izango.

—Olantxe da; tramankulu ori agertu daitenean, ezta geiago ezkuterik izango.

—Ori bai ikaragarriya!

—Ganera, oso merkia izango ei da tramankulua, edozeñek erosi al izatekua.

—Orretara ezkerro, mundu guztiya egingo da tramankuluaren yabe, ta auzuak auzoetakuak ondo zainduko dituez, eztautsie begirik be kenduko ganetik.

—Baña ondiño eztautzut esan dana; Dinamarkakuaren tramankulu orregaz ezta bakarrik ikusi egingo, entzun be bai, etxe-barruan naiz edonun esaten dan guztiya.

—Josus!... Ori be bai?

—Baita! Ezin izango da ezer egin ez esan, tramankuluaren bitartez ikusi ta entzungo ez danik.

—Ara, diñostazuzanak egiyak badira, ta neuk siñistuten dodaz, ori asma dauanak gizadiya asko onduko dau, gizadiyaren ongille gorenetaikua izango da.

—Bai ospe andiya artu biar dau.

—Len be esan dautzudana, ezkuterik eta illunik ezpalego, egiten diran okerreri geienak elitzakez egingo, eta tramankulu ori ezkutua ta illuna kentzera dator.

—Ondiño geiago. Asmakuntza orren urrengo beste baten ekiteko ustia ei dauko; askoz arrigarriyagua.



—Ez eistazu esan!
 —Urrengoko asmakizuna da notin edo personen gogorapenak (pentsamentuak) argi-argi ikusi ta yakitia.
 —Ene bada ta!
 —Eztau inok gogorapen txar txikerrenik be eukiko, ikusi ta yakingo eztautsoenik.
 —Nor asartuko da orduan ezkutuan txarrik egiten, ixillian deungarik esaten, bere goguan pentsamentu gaiztoei lekurik emoten, dan-dana ikusi ta yakingo dautsoe-ta? Nor asartu agiriyan gaiztakeriya egiten? Ondubide obarik eztago ori baño, Dinamarkakuaren tramankuluai eskerak. O gaur eguneko yakintzea! O gaurko aurreratasuna! O gaurko...!

* * *

—Tramankulu orrek barik be orain arte, ta emendik aurrera be bar-din beti izan da, ezkutuan, ixillian, goguan egiten diran gauza gaizto guz-tiyak ikusi ta yakiten izan dira.
 —Bai ezta? Eta nok eta zelan ikusi ta yakin?
 —Jaungoikuak dan guztiya, ezkutuena ta ixillena bada be, bai-dakus ta bai-daki.
 —Oi bai, ori bai baño...
 —Eta beragaz zeruan ezin zenbatu ala dagozan aingeru ta deunak be badakuse ta badakiye guk ezkutuen eta ixillean egin, esan ta gogora-tzen dogun guztiya. Ia ba zenbaten aurrian aurkitzen garean, eta zelako-en aurrian! Nik esandako tramankuluek asmauko balira, munduak alkarri ikusi ta yakingo geunskiyoz ezkutuko gauzak; baño orrek asmau barik be Jaungoikuak eta zerutarrak, bape tramankulu barik, dana dakuskue eta dakiskue. Eta oneek ikusi ta yakitiak ardura geiago emon biar dausku munduak, geuk lakuak, ikusi ta yakitiak baño.

AZKONARRAK ETXIAN AZI

—Kaixio Yonandon aspaldiko!
 —Zelan zabixe emendik, Kiri?
 —Gu, betiko antzera, batian buruzkanka, bestian ankazgora.
 —Oixe da mundue ta... zer ingo yako ba!
 —Zeu, Yonandon beti izan zara asmatiya, ta ontxe be or bekoki-barruan asmo garratzen bat erabilli baietz egingo neuke.
 —Egin-egiñien, badarabilt egunokaz asmo polit bat.
 —Diru asko ataratekua, ezta Yonandon?
 —Polito atara lei, ez pentsau.
 —Esan ba Yonandon... ixilleko gauzen bat ezpada.
 —Ixillekue... ixillekue... ixen bada ixillekue, baie zeuri esangotzut, ixillik eukiteko kondeziñopian.
 —Nigandik inortxok be ezer eztau yakingo; beraz, esan ardura barik.
 —Or due ba. Ara; nik azkonar-eme bat bizirik lakiyuen arrapau neban aspalditxuen, eta etxian daukot bizirik.
 —Pizti txarra da ba azkonarra etxian eukiteko. Estuta daukozu ala?
 —Ez; berak urten ezin leiyen gela baten daukot libre, esan gurot estu barik.
 —Eta yatekua, zelan emon?
 —Gelien goiko zulo batetik botateutsot.
 —Zer emoten dautsozu yaten?
 —Ba, konejuei ta emoten yakena, ortuari ondakiñak-eta.
 —Ta yaten dauz?
 —Yan ez oster... Bai iruntzi arek!... Beste gauza bat be asko gustetan yako, ta beti-be ekartutsot; beretzat ixeten da ori guretzat noz-edo-bein ollue edo bildotsa yatie letxe.
 —Zer da ba azkonarraren yaki ain eder ori?
 —Kakarralduak.
 —Arrayie Yonandon, orreik dira oster egaztiyak! Da nun da zelan arrapetozuz ba?
 —Illunkerantza estarta bakarretara yueten naz, ta bei-pekotzetan zeinbat gure kakarraldo ibilli oi dire; topin zar bat erueten dot, eta bete-beteik etxeratzen dot. Ikusiko bazendu azkonarrak zelako pozik yaten dauzen kakarralduak!



- Eta zetako daukozu ba bizirik azkonar ori?
 —Len ezautzut emie dala.
 —Ta, zer?
 —Oin nabil lakiyuek egunero ipinten azkonar bidietan, ia ar bat arrapetan dodan bizirik.
 —Azkonarkumiak etxian azi gura dozuz ala?
 —Oixe da neure asmue. Konejuek letxe azkonarrak azi, gela egokiye etxien deukotan ezkeru.
 —Eta azkonarrok, zetako gura dozuz, ba, Yonandon? Mendira botateko ala?
 —Bai zera! Eztozu leidu periodikuetan, ondiño lengunian, Diputaziñuen iru ogerleko pagautsiezala kazadore batzuei azkonar bat ilda ara eruen ebelako? Oixe sariyoi ei dauko agindute Diputaziñuek agertzen yakon azkonar bakotxagaitik, eta...
 —Zuk, Yonandon, etxian azkonarrak azi ta Diputaziñuari iru ogerlekuan bakotxa saldu gura dautsozuz?
 —O... oixe! Negoziyo txarra da ala?
 —Ara, Yonandon; esaten da Ipar-Amerikan gizon asmati itxelak dagozala, baña egingo neuke zeu baña asmatiyagorik ezetz aurkitu bat bera be, yanki guztiyen artian. Arraien asmua da gero azkonarrak etxian aztia, gero Diputaziñuari iru ogerlekuan bakotxa saltzeko! Ia azkonar-arrarin arrapaten dozun.
 —Gero, Kiri, ixillik.
 —Ardura barik lo egin, Yonandon, iñok be eztau yakingo.

UMIAK DEUN ANDONIGANA

Urkiolatik urrin eztagozan Bizkaiko errialde batzuetan ekandua dago, senar-emaztiak euren umiak Paduako Deun Andonigana eruateko txiki-txikiyak diranian, eta Urkiolako elexan Yaunartu, meza entzun, edo beste egipen on bat beteagaz batera, umiai bedeinkaziñuak artu-erazo.

Durango-alde ta Arratian batez-be, baserriyetan iñor nekez aurkituko litzake txikitan Urkiolara bere gurasuak eruan eztabenik.

Ekandu polita da, Yosu umetxua besoetan daukon Paduako Andoni Deun miraritsugana ume txikiyak eruatia eta beronen Deunetxe Urkiolaganekuan, bere bitartez Yaunari eskiñi ta batera Yaunari eskatu, yagon dagizala, Zerurako, umetxu areek.

Uda guztiko domeka ta yai-egunetan ikusten dira Urkiolaruntz goizgoizetik duazala senar-emaztiak, oñez, umetxu bat edo bi astotxu baten ganean, otsaretan «kuriyoso» ipiñita.

Geienetan baserriarrak izaten dira, garbi-garbi yantzita, eurei begiratutia bakarrik be begiyentzat atsegin-izaten dala.

Noz-edo-noz, senar-emazte batzuk edo irutzuk batera yoaten dira, alkarren auzokuak diralako edo bidian bat egin dabelako; orduan bidia igarri barik egiten dabe, etenbako barriketa pozkor gozuaren bitartez.

Bein olantxe aldatza gora yoiagian, Mañari baño gerotxuago batu yakon gizonetzko bakar bat, a be autuan beriala sarturik.

—Badaruezuez umetxuok San Antoniyoana esan eutsen gizonetzko arek.

—...Bai, erantzun eban andra batek, badaruaguz ba.

—Neuk beintzet, esaeban beste batek, oñarte izen ditutenak, eta bost deukotaz or daruedan larrosie baño nausiyuek, danak ekarri ditut Urkiolara banan.

—Bostok zelakuak urten dautzuen itanduteko gogua sortu yat; baña amarentzako beti bere umiak onak izaten dira, batez be iñoren aurrian.

—Zer ba? San Antonion arkantzue eztozu siñistuten ala?

—San Antoniak Yaungoikuaren aurrian daukon esku andija, siñistuko eztoz ba?

Baña San Antoniogana datozanan zentzuna...

—Ene! Zer entzuteko ete gagoz!

—Abadiak domeketako berbaldian esan oi dauan lez, «entzun egidazue gogorik onenagaz», ara: Gure erriyan gizon batek artua erein biar



eban solora eruan eban abadia bedeinkatuteko eta San Antonion irudi bedeinkatua be ipiñi eban bertan, eta, zenbat anega arto batu ebala uste dozue?

—Gitxi batu ebala esan gurozu.

—Gitxi...? Bapez... Zelan ezer artuko eban ba? Arek gizonak solo-ondoan aterpe bat yaso eban, eta antxe egoten zan arkolo zabal yezarrita, pipia erre ta beti-be zato bategaz zeruruntz begiraturik; soluan osteria, oñik ipiñi bez, bertan-bera itxi, ez giyau, ez mokillausi, ez zazu, ez yorrau, ez ezebez; lurra atxa lakoxe gogorra egin zan, bedarrez bete zan, eta erneriko arto landarak laster igertu ziran.

—Garaunetan gatzik bauko gero orrek?

—Arek uste eban San Antoniok dana egingo eutsola, berak, bere aldetik bape alegiñik ipiñi barik. Arek gura eban San Antoniok egunero mirariyak egitia, bera alperrierian bizi izateko.

—Eta zu gizon, ori zetara dator ba?

—Zetara etorriko da ba? Ekarten dira umiak San Antoniogana bedeinkatzeko, ondo egiña, diñot barriri be; guztirako Yaunagana yo biar dogu ba, Bere otsein andi izan diranak laguntzat artuta; baña egipen ain on orren ondoren, gure erriko gizonak soluaz lez, umiai yaramonik egiten ezpaiake, euren arduria eukiten ezpada, alper-alperrik izango da San Antoniogana eurek ekartia. Gure erriko gizonak solua landu biar eban lez, gurasuak bere umiak landu biar dituez, kristiñauen dotriña irakatsi; Kredua, otoitz edo oraziñuak, Yaungoikoaren eta Eleiza-Amaren aginduak eta Sakramentuak; ondo zaindu nundik-nora ibiltan diran eta zelako lagunakaz batzen diran, goizetik etxeratu-erazo, orretarako norberak erakutsiya emonaz, bizimodu bat emoteko arduria euki, euki, euren aurrian ez esan bein-be berba txarrik ez bada-ezpadako gauzarik, eta abar. Orretara solua landu ezker, edo umia landu ezker, orduantxe baliyoko dau San Antonion bedeinkaziñuak, orduantxe bai ekarriko ditu etxera osasuna ta bake ederra, ondasunaz batera. Umiak Urkiolara San Antoniogana ekarriyaz bakar-bakarrik ezer eztaukozue. Otoitz ta lan, eskatu ta egin, auxe da biar dana.

—Ona bidean bertan zelako sermoie entzun bierra izen dogun!

Onakoxe barriketaz ustez-uste barik Urkiolaratu ziran, bape neke barik. Gogozko barriketia lakorik eztago, egon be, nekia uxatuteko.

MAKALLAUA, ZETARAKO?

Karlisten gudatia da. Bizkaiko erritxu baten karlista-tropa labur bat dago. Etxe baten dagoz *alojauta* iru gudamutil, katakumak baño olgetarijago ta zoruago.

Euberdi-aurrian euretariko bat sartzen da etxian arin-arin, eta bere lagun bijai onan diñotse:

—A mutillak; ollue ostu dautsodan atso pestie komendantiana etorri dok kejiak, eta laster deituko yauskubek *pormaziñora*, ta zera ipiñi biar daustazube.

—Oba ixango dok bada-ezpadan, erantzun eutsoen beste bijak, eta irurak gela baten sartu ziran.

—Euren etxekandriak, ori ikusita, esaten eban bere artian:

—Zetan ete-diñardube or barruban orrek zoruok?

Onetan entzun zan korneta-otsa *pormaziñora* deituten eta gelatik urten ziran iru mutillak euren pusil, morrale ta traste guztiekaz. Ollua ostu ebanak etxekandriari barre bategaz itandu eutson:

—Amandre, makallua, zetarako da?

—Zetarako ixango dok, ba? Jateko.

—Bai beste gauza baterako be, erantzun eban mutillak, eta jua ziran irurak barreka *pormaziñora*.

Pormaziñoan egozala, komandantiak itandu eutson atsuari ia ezautu-ko ete-leuken ollua ostu eutson mutilla; eta orduan atsuak esan eban, mutillari atzamarra zuzenduta:

—Axe da, jaune, ondo ikusi deusot arpegija.

Komandantiak agindu eutson mutillari erreskadatik urtetako, ta itandu eutson ia egija zan atsuak iñuana, ta ezetz; baña antxe eguan gixon bat, erriko eskola-maixuba edo, eta komandantiari esan eutson, gogor, egija zala, berak be ikusi ebala axe mutilla ollua ostuten atsuaren etxian. Ordu-ban komandantiak mutillari berrogetamar palu emoteko egindu eban.

Ekarri eben zara bat, berau auzpez ipiñirik; mutilla lurrian belaunikatu zan eta zara-ganian makurtu zan, eta emon eutsoezan berrogetamar *paluak*. Ai ene! ta txilijua ugari izan ziran eta amaieran, oker-oker eginda, arteztu eziñik geratu zan. Bere lagun bijak eruan eben etxera, *sarjento* bat eurekaz joiala; etxera eldueran lagun bijak sarjentuari esan eutsoen eurek zainduko ebela mutilla; au entzunik, sarjentuak alde-egin eban. Berak eperdija emon orduko, asi ziran iru mutillak dantzaz etxekandriaren ingu-



ruan. *Paluak* artu ebazanak be txairo ta pozik dantzaz egiten eban. Etxekandriak, arrittuta, iñuan:

—Baia, zelan ixan leiteke berrogetamar *palo* artu ta bape min barik olako umorie eukitie?

—Amandre, esan eutson mutillak, makallaua, zertarako da?

—Jateko.

—Baita *paluak* artu biar diranian bizkarrian ipinteko ta miñik ez artzeko be.

Eta etxekandra arritubaren aurrian bere lagunak makallaua atara eutsen mutil areri jakepetik.

Etxekandriak esan ei eban:

—Onek barrabanok asmetako ezta asko.

BIGARREN KRONE

Irakurliok: Gomuta dozue beñolako Jonandon asmatiya, arako azkonarrak etxian azteko asmotan ebillana, gero Diputaziñuan bakotxagaitik iru ogerleko artzeko pizti-saritzat? Etorri zan ba Jonandon, Kronen piztiyak ikusten, ondo adi begituten eutsen areei.

Eurekandik begirik be kendu barik egoten zan luzaruan. Bera alan ikusita esan be eieban gizon batek:

—Esango ñeukek oixe Jonandon piztiyen belarriyetako uliek kontetan dauela.

Baña berak deituten eutsen lez, basastuak (zebrak) ikusi ebazanian antxe gelditu zan eurei begira ta urteteko ordura arte etzan andik alden-du. Bai zorrotz begitu berak asto nabar areei!

Eta asmati andija dan lez, areexek ikusita sortu yakon Jonandoni asmo bat, dirua atarateko. Kronek «majo» atarateban da, berak be... zegaitik ez, apurtxu bat?

Etxera eldu zanian bere atsuak esautson:

—Da? Ikusiozu Kronioi ala?

—Krone bera ez; baie bere alemaniyek bai.

—Jente asko?

—Uf!... txarrikeri bat!... saskarie letxe!

—Gero esaten da gaur egunien bizi be ezin leitekela ta olakuek.

—Koplie, Mikele, dana koplie. Biyer, ba, zuen erreire yuen biot.

—Zetan?

—Diru apur bat irebazteko asmue dot, bakixu? ta zuen nebiak dauken asto orixka bat erosi ein biutset, eta ekarri.

—Laster saldukotzu. Abañoko feriyen saldu gure ixeban, da ezin, astuek ezeban estimaziñoik euki-ta. Zetako zu ba astuoi?

—Biyer esangotzut, ordura arteko epeik badozu.

—Ai Jonandon! Andrie eukozu-ba orrenbeste denporan itxoten koitadie?

—Tire, ba tire; asto ori ipiñikot nik pinteute, Kronenien ikusi dodazan basastuak lez, ta axe ikustiarren jentiek dirue emongo dau.

—Ene Jonandon aberats ixetera eltzen ezpazara, ezta ixengo beintzat astruziyen paltaz.



Juan zan Jonandon bere andriaren errira ta erosi eutson koñetuari astua zortzi ogerlekuan; eta uriyan eroseriko pintura baltz pote bategaz, ekarri eban aberia etxera urrengo eguneko goizaldian, iñok ikusi barik.

Egun osoa emon eban astua pintetan basastuak lez, ardura andiya ta bere zentzun guztiyak atan ipiñita. Mikele atsuak ikusi ebanian «Aitiaren» eginda esautson:

—Ene gauza politagorik...! Etorriko da bai, jentie eurrez ikusten ori!

—Oin guzur bat asmau biar dogu, Kronenekuek bost mille erlian saldu daustiela-ta.

—Orretan biyok alkar aitu bierra dogu, bana esan ezteigun.

—Bai ba; aziteko edo kastietako, astuekaz nastaute, ekarri dogule.

—Baie Jonandon arrantza eiten dabenien astue dala igerrikotsie.

—Ori laster erremediyaku, buztenetik dingiliz adrillu bat ipiñite.

—Ta arrantzaik ez olan?

—Txitit be eztabe ataraten astuek.

* * *

Jonandon eta Mikelek zabaldu eben erriyen Kroneri erosita basasto bat ekarri ebela ta ikusi gura ebanak peseta bat emon biarko ebal. Erriko andikiyai, abade, alkate, juez, sekretario, mediku, duban erakutsi eutsien basastua, zabalgundia edo propagandia egitiarren. Baña axek peseta bat, ordaindu biarrak, asko asarratu eban jentia.

—Konke, esateban, Bilbon peseta bigaitik Kronen piztiyek ikusi al ziran eta emen bat bakarrik ikustiaitik pesetie? Oixe Jonandon da atsue baño tiraneruagorik!..

—Baie, ara yuetie asko kosta ta emen barriz peseta uts-utsa baño ez, esateban Jonandonek.

Onantxe eztabaidaka ibillita, azkenian Jonandonek arpegi mukerraz esan eutsen:

—Tire, tire erriel bire eratsi daigun ba. Dana ez galdutiarren eiten yuat. Erriel bi ezebe eztok. Ai nik Kroneri emon dautsodazan bost mille erlak noz batuko ete dodaz! Orrenbestegaz Jonandon azeriyak jentia ipiñi eban errial bi ardura barik ordaintzera ta asi zan eltzen, taka-taka, etxe-osteko korta-argira, ortu-aldera emoten ebanera. Asko gustetan yaken danai basastua, oso polita ereixten eutsoen. Bai zan ikusi biarra. Jonandonek eta ikusliak euren artian onakoxe alkar-izketa politak eukezan.

—Da zu, Jonandon, zetako dauko beronek adrillu ori dingiliz buztenetik?

—Ori da mantso egon daiten, onetariko aberiek uxuek ixeten die-ta.

—Nundik dakarrez eurok?

—Oneeek e... desiertuen bixi ixeten die-ta.

—Barakaldon?

—Ez, zerien Socuellamosen...

—Barakaldon eztago ba desiertue?

—Alan esateutsoe etxez ta jentez bete-beteik dauen auzo bati; baie a ezta desiertue ixenez baño, kokolo! Nori otu lekiyo Barakaldoko Desiertuen bixi leitezela basapiztiyek?

—Nun ba?

—Apirkako basamortuetan eundaka leguetan iñor be (personaik aitu bieda) bixi eztanetan, antxe bixi dira eurek-euretara askotariko piztiyek ugeri...

—Ta Jonandon, Apirka ori, zein aldetara eiten da ba?

—Ara... urrin esan ezkeru zuentzako naikue da, asten bagara ba kografiyek eta enparau tirolojiye guztiyek ataraten guriek ein yok, gure buru motzok etxaukuaguz ba orretarako gertaute-ta.

—Zuk Jonandon, basasto onegaz ta lengo azkonarraz, batzen bautzezuz katakux, katagorri, katamixer, ta katamielgak, ementxe ingozu Kronen antzeko piztidoi bat.

—Ba... ixen leitekera dok gero, esan eban Jonandonek.

—Azeri bat be elitzake txarto etorriko, Jonandon.

—Berau dok au azeri naikua, esan eban beste batek.

—Bai Krone be. Ara gixonak: a dok Krone ta Jonandon bigarren Krone.

Jonandonek alde eginda esateban bere kolkorako: Burleixue gure bozue, erriel bi ordaindu ezkeru.

Oingo 200 lagun baño geiago eldu yakoz basastua ikustera, ta beraz, astuak eta pinturiak eta Jonandonen lanak euren burua irabazi dabe, ogei ogerlekitik gora dua ba eskuratu dauan dirua.

Kronek asko irabazi dauala? Bai Jonandonek be! Ondo deitu eutsoen berari «bigarren Krone».



MUNDUARI BEGIRA

Neska gazte aldratxo bat dua bidezabaletik barriketa andiyaz, esku ta buru erañekaz barriketeari lagundurik. Ortuan atxurraz dabillen Maintonek eztautse ikusten sorbaldatik gorakua baño, ortuko ormeak enparau guztiya estaltzen dautselako. Eta onan diñotso bere semiari:

—Gero emakumiakaitik esaten yuek!... Or doiazan mutil gaztiok be azurbakuak listo yaukiezak ba...

—Neskak dira ba-ta, ama!

—Uliak moztuta etxaroeizak ba?

—Bai da, oin oixe da modia-ta.

—Lotsabakozarrak!

* * *

Auxe mutil au zurragua da... automobil bat igaroten bada adarroska atsa ta autsa dariyozala, beriala igarriko dautzu zein markakua dan, Buick ala Chevrolet ala Citroen ala Amilcar ala Hispano-Suiza ala... edozein! Ostikopelotan dakitzuz España guztiko ostikolari-aldraen atezain, atzelari, erdilari, ta aurrelari guztiyen izenak eta euren egitada andiyak! Onak dakitzuz zenbat gol sartu diran lengo neguko yokoaruan, nortzuk sartu dituezan, nori sartu ta zelan sartu dautsiezan; ori dana dakitzu buruz ta zietz. Txirringutsetan be bai-dakitzu zeintzuk diran «as»ak...

—Azak?

—«As» itz orregaz «banakua» esan gura dabe; erri baten edo batza baten, txirringetan arin ibiltzen «urtena, gorengua, onena, banakua» danari «as» deitzen dautsoe.

—Bai kartetako «bateko bastua», «bateko kopia» ta orren antzera, ezta?

—Ba orretariko «as» edo «bateko» edo «banako» guztiyen zertzeldak dakitzuz.

—Eta añeketariyen barri, ostera... ene!... esango leuskizu nok daukan markarik aundiyena 100, 200, 400, 1000, 5000 metroan.

Onak dakitzuz...

—Eta «Kredua» ete daki gero?

—Oixe dakiyen enuskizu esango.

* * *

Astelen arratsaldian neskatilla bi eltzen dira erre kara alde banatetik, bakotxak buruan daroiala otsara zabal bat, eta otsaran eun zuriya yaboe-tuta, erre kaku ur garbi gardenian irekurtzi ta yoteko. Esan barik be igarriko da alkarregana batu orduko barriketa-ariya orratz-zulua ziar berialako baten sartu dabela.

—A neska, atzo erromeriyen ainbeste bider yantzan atara indunan mutilla, nor don?

—Neuk bañekin! Nik lenengotan pentsau naiunan baserritarra zala ta euzkeraz berba ein nutxenan, da berak barreka «bai bai bai» erantzuten yunan bakarrik; laster igarri nuntxenan, erdelduna zala.

—Eta baserritar euskeldunen antzera yantzita?... Gauz ona bazunan...!

—Esan yeustenena Bilboko zala, euzkeldun-zalia, baña bere damu andiz ezekiyala euzkeraz, irekatsi ezeutsoelako. Esan nutxenan ikasi daiala, ta esan yunan Bilbon ia zelan ikasiko dauan.

—Bai gura ballon.

—Ori esan nutxenan ba: an be gura dauanak ikasten dauala, ta euzkeldun antza, azaletik baga, barrutik euki biar ebala.

—A neska, gure modukuek, ezkon-sari edo dote andi ederrak bageunkozan eta gugaz ezkontzeko euzkeraz yakin biarra ipiñiko balitz, orduantxe ibilliko litxakezan euzkerea *arin* ikasten alkarren leian.

—Uste yunat.

* * *

Atso-agure bi Santiyago eleiz-aurreko zabalunian:

—Ai Praiskantoni, denpora txarrak ikusten gagoz, eztago lanik, dana urri ta karu, eztaikit zelan bizi garan be.

—Errezoi aundie dozu, Mikel Anton, ezin lei bizi, irebazi al dan apurre bier-bierrekora be ezta eltzen... Kesus-Kesus, ene Jaungoikue!

Onetan baiatorkoz atsuari neskato-mutiko bi; erosten dautse amamak bertan izoztu bana ta sagar berde-berde batzuk, erriel bi orretan gasta-urik, eta beriala duaz irurak ziñera, an beste erriel bana gastetara, eta aize ederra artzeko ta ibiltaldi bat egiteko arratsalde argi ta garbiya galdurik.

Aguria barriz, Barrenkaleko taberna zulo batera dua, Erriojako kuartillotxu bat garbituaz, gaurko bizi eziña aztutiarren.

* * *



—Gure mutil barraban au, eskoliari itxi dautsonetik ona, ezin dogu gabetan goiz etxeratu.

—Bendeziño batzuk emoiozuez.

—Nun baia?

—Bizkarrian.

—Zertzuk bendeziño dira gero eurok?

—Ara: adaki bat ur bedeinkatuaz busti, ta etxera sartuaz batera, ezer esan barik, «pake ta amorio santuan» yo mutilloi gogor, goitik-bera ta eskerretik-eskumara, alan kurutzia egiñaz. Bigarren aldiz bendeziño ori artu badagi, segurutik eztau irugarrenez artuko.

—Ai, baia, yotia ezta ona iye mutil kaxkonduten asita dagozanentzat; orrelakuei ezin legioe yota eragin.

—Ez, ezta? Orra or kuartelien eundaka asko mutil sasoe-sasoekuak, bata baño bestia okerraguak, illuntzirako danak zintzo-zintzo etxeratuten dirala. Zegaitik? Bendeziñuak emoten dautsiezalako, agindu dautsien ordurako yuan ezik. Kuartelien soñekuak loie badauko, bendeziñua; botoe bakartxu bat gitxiago badago, bendeziñua; oñetakuak garbi-garbirik ezpadagoz, bendeziñua; pusilla ta morral ta ugelak birrist argi egiten ezpadabe, bendeziñua.

Ainbeste bendeziñogaz artez ta garbirik darabillez aundaka mutillak, kalera aldran urteten diranian atsegin izaten dala eurak ikustia, orratzetik-ara lez garbiro ta txukun yantzita.

Bere orduan adakizko bendeziño on bat lakorik eztago, jentia zuzen erabilteko.

* * *

—Ene alabea, lotsa apur bat beti biar da gero.

—Ai, ama, zeu be gaztia izan ziñan.

—Baña ez orrenbeste.

POZA, EDONUN

Ondiño aldi asko ez tala Bilboko andra batek beste bati entzun eutsen baserrira bizi izaten duala, ta ikaratuta, onan esan eban:

—Ene! Zelako bizikera tristia izango dan baserrikual!

—Zegaitik?

—Jente gitxi, nora juan be ez, ziñerik be ez, musikarik be ez...

Andra orrek uste dau uri andiyetako ikuskizun barik ezin leitekela pozik izan.

Baña oker dago, poza berez sortzen da osasuna ta zer yan dagonian. Jente asko bizi-izan da ludi onetan, eta gaur be bizi da, teatrua ta ziñea zer diran be eztakiyeak, eta artzañen txilibitua baño beste musikarik entzun eztabenak, eta uri andiyetako kale, denda ta egurastoki ederrik ikusi eztabenak... eta ori gora-bera, sekuleko poza ta umore ona erabilli dabenak.

Osasuna ta urdalla betetako lain badago, poza edonun izaten da, batez-be gaztien artian.

Aitatu dodan andra orrek eta bera lakuak uste dabe antza, baserriyetan jentia erdi-negarrez bizi dala. Barre santzo zabalak entzuten dira baserriyetan, soluan biarrian dabizala be bai.

Onexek dakast gogora bein Durangokorta deritxon basetxe baten jazo zana.

Berau dago Dimako bazter baten, Ugetxe aldian. Gaur, Dimatik Otxandiyoraño bidezabal barriya eztauko ain urrin, baña au egin baño lenago, Durangokortatik urren egoan bitxabaleraño orduetan ibilli biarra zan. An mendian urrin bakartasun itxelian aurkitzen zan basetxe ori.

Bain, ba, Mañariko eiztari batzuk, mendi aretan ebizanak, erabagi eben Durangokortara yastea, bertan, atsedenez batera, katillu betena esne edo artzeko. Aldatza bera bertarantza yoiazanian, eiztariyok alkarri esaten eutsien:

Or bizi diranak errukarriyak dozak. Onako basamortuan bizikera tristia euko yuek.

Eta onakuak esaten, urreratuaz yoiazan etxera, ta alako baten alkarri begira gelditu ziran ikaratuta. Zer zan? Durangokortako etxe aretan auspo-soñua entzuten zan, eta beraz batera barre-algara andiyak, iji ta aja ta ujujuak. An ebillan zarraparra!

Eldu ziranian, an ikusi ebezan amabiyen bat neska-mutil, poza ganezka ebela, dantzaldi bat egin ta gero bakotxa bere biarrera juateko.



Ardi-zain, serrari ta onetarikuak ziran mutillak; eta neskak, etxeko alabak eta basuan zetan-edo-atan euren etxeukuakaz biarrian ebizan batzuk.

Orra ba alako basamortu itxelian umore ederreko jentia aurkitu eben eiztariyak, euroen uste guztiyak guzurtauta gelditu ziralarik.

Baita gogoratzen yat beste yazoera auxe be, Madridtik onantza trenian nentorranian neguko gau otz baten, Urtaillaren lenengo egunetan, or gaberdi alderantza, geldoki baten trena luzarotxo egon zan, besten bati itxaroten auza.

Lur guztiya edurrez zurituta eguan, edurra leiaz gogor-gogor eginda; aize bat ebillan ain otza, musturrik be ezin eikian atara, danok gengoan burkeletan estalkiyekaz batu-batu eginda, leio guztiyak itxi-itxita.

Alan gengoan artian, geldokiyan ebizan atzera ta aurrera 12-14 urteko neskaitillatxuak: «Leee... che de las... Naaa... vas!», didarrez, esne saltzen. Euren oinkaden zaratea «kruk-kruk» edur ganian entzuten zan; ezeutsien esnerik erosten, treneko bidazti guztiyak burkeletan geldirik egozan.

—Ume koitauek, asi giñan esaten, orrek daukie bizimoduen latza, onako otzagaz ta onako orduetan emen ibilli biarra esne-saltzen, biar bada ezer be ez saltzeko... koitauek! Onakoxiak esaten gengozala, batu ziran neskatuok gure burdiyaren aurretuan, orduantxe ba trenak abiya-dia artu biar eban, da, atara eben zarata bat! Ango barriak eta barriketak! Txori pillo bat bertan eguala esan eikian. Poza ta umore ona bai zan euren artian.

Trenekuak aren errukiya geunkan, eta gu baño, zoriyontsuago aurkitzen ziran.

Agaitik, ba, poza, edonun, lekurik itxelenian be bai, barruan sortzen da ta, ezator kanpotik.

Bizitza onetzaz itz-egiten dot yakiña. Pozaren azterrenik txikerrena ezautzen eztan tokiya dago eriyotz-beste aldian, gaiztokiya. Arako bidietatik alde egin daigun, arren, irakurle maitiak.

GAZTELA-MUTILLAK

*Donostian, 1928gneko Lotazilla 2an
Euskal-Esnalearen itzaldiyetan,
itxeikiñun au bere egillik irakurri eban.*

I

Gaur Kastilla ta kastillanua esaten dabe euzkeldunak. Lenago ez, lenago Gaztela ta gaztelarra esaten eben. Orduan eurrez entzun oi ziran onetarioko esakerak: Gaztelara yuan da, Gaztelatik dator, Gaztela-maatsa, Gaztela-astuak (gorputz andiko asto ederrak), Gaztelako zelaiak, eta abar.

«Gaztela-mutillak» esan ezkeroko uste izan lei lenengo entzueran, Gaztelako mutillak ete diran; baño ez, izen ori ebenak, etziran gaztelarrak, euzkeldunak ziran, gure baserriyatetik Gaztelara lanera yuaten ziran mutil gaztiak, Gipuzkoatik eta Bizkaitik.

Ezta bape ikaratzekua izen ori emotia Euzkelerriko mutillai. Aldi aretan bertan *indiyannuak* deitzen yaken Amerikan izanda gero errira etorten ziranai, batez-be katanarrua gizen samar baekarren, antziña Amerikari Indias deitzen eutsoelako. Geruago, ta gaur be bai, *amerikanuak* deitzen yake, emengo semiak izan arren. Neuk bein ikusiya da Burgosko geldokiyan, trenetik yatsi ziran batzui esaten: «Ya vienen los bilbaínos»; *bilbaino* areek burgostarrak ziran, eta Bilbon bizi ziralako bakarrik *bilbainos* deitzen eutsien euren errialdian.

Olantxe ba, Gaztela-aldetik lanian ebiltzan mutil euzkeldunai euren erriyatokuak «Gaztela-mutillak» deitzen eutsien.

Gaztela-mutilla euzkotar eredu agiri-agirikua zan, orain aspaldi galdu dana. Banan barik, aldraka yuaten ziran aruntz, eta aldraka etorri be. An aldi bat lanian egiten eben, iru-lau illabete, sei-zortzi illabete, gitxik urtebete, ta aurrezturiko diruagaz etxera, gurasoekana, bigurtzen ziran. Ikus-tekua izaten ei zan areen etorrerea, kitarra ta pandero ta txilibitu yoten eta abestuten, sartzen ziran erri guztiyeta usubillua ta zaratea, poza ta alaitasuna baño besterik ezeroiela. Gero, etxian, aldikada bat egon ondoren, geienak barriro lanera yuaten ziran. Areek yuan-etorri egiten eben; Gaztelan ibilli arren euren sendiyaren, euren erriyaren lokarriya ezeben ebagiten, lokarri ori bizi ta sendo eukiten eben, eta lokarri orrek ekarten zituan noz edo bein euren erri ta etxera.



Mutil azkarrak izaten ziran, yandedan ondo egiten zaliak eta euren etxietan baño obeto yaten ebelako, mardo ta indartsuak ziran.

Lanian ezeben nekerik erakusten, lanerako beti gogotsu aurkitzen ziran, indarra ugari eben, orregaitik laneko ugazabak oso maite izaten zituezan, eta naiñun, beti ta erraz lana billatzen eben. Emendik aldra areek andik eskatuta yuaten ziran, zelako lana ta zenbateko alogera irabaziko eben berbapetuta.

Guztiz alaiak izaten ziran, bai ba, osasunez bete-beterik egozan da, indar-yokuetan azkarrak, arro samarrak, zerbait burrukari ta zorruak, gaztetasunak eztau parkatzen ba-ta.

Orduko aldi areetan, gure baserrietako mutil gaztetxuak, orain Amerikara yuateko gogo bizi-yagaz egoten diran lez, Gaztelara noz yuan al izango ziran erretan egoten ziran; yakiña, euren errixuetan, euren auzuan, Gaztela-mutillak ikusten zituezan, mutil yasekuak, partikaretan dirua ebela, Gaztelako euren yazoerak alairo kontetan; eta arexek lakoxiak izateko gurari biziya sortzen zan mutil gaztetxo areen gogoetan.

Eta zelako lana egiten eben mutil areek? Amazortzigarren eunki edo gizaldiaren azken-aldera ta emeretzigarrenaren lenengo 30 urtietan, orain eun urte ingurura arte, euren lana upagintzia izaten zan Erriojan eta Aragonen. Bai gizonak, aldi aretan, Bizkaiko baserrietatik (eta nik uste Gipuzkoatik be bai, errialde biyetan oiturak eta bizikerea bardin samarrak beti izan diralako), Bizkaiko baserrietatik, batez-be Aulestia, Gizaburua-ga, Amoroto, Ibarruri, eta Txorierritik mutil talde andiyak yuaten ziran Erriojara ta Aragoera maats-batza ta ardao-egite aldiya baño lentxuago, irallian, upa barriyak egiten eta zaarrak konpontzen, eta an egoten ziran lan orretan Gabon-aurretiko arte; orduan etorten ziran euren etxietara, kitarra ta pandero ta txilibitu yoten, eupadaka ta zantzoka.

Onei, Gaztela-mutillak deitzen eutsien arren, izen ori baño geiago «upagiñak» esaten eutsien.

Bein baten, onetariko mutil aldratxo bat, lau edo bost, ei eguan Urkiolako benta zarrian. Illunabarrian elduta, bentako sukaldian egozan apalduten. Bai ei zan an arrokeriya, asarkeriya ta balentekeriya ugari; eurek etzirala iñoren bildur, bidian amar gizonak urtengo baleutsie be eleukiela atzerarik egingo... ez, arraioa! gauzik asko baño gurago leukiela batebatek ezer esango baleutse, makillak yokatzeko, ta olan ebilzan arro-arro. Eta zeri etzala, an ezegualako besterik iru andra ta agure zaar-zaar bi baño. Agure bata, aramaioarra, eskeko bat zan, luzia ta zimela. Onek esan eutsen beste aguriari:

—Gurozu biyon artian onei lepua berotzia?

—Zaoz ixillik, Yainkuaitik, olako asmorik igarriko baleuskue, gure azkenak emen izango litekez, ta agudo, mutil onak daoz eurok!

—Zuk gura ezpadozu, neuk bakarrik berotu biar ditut neure maki-lla onegaz.

Urkiolako benta zarrak, bide-ertzekua esan gura dot, eukan lenengo atarte zabal andi bat; sartu, ta aurrian eta eskumaldian kortak eukazan; eskerraldian, orma bat barruko ormaraño, ta biyak egiten eben txokuan ate txiki bat sukaldia sartzeko; sukaldia zan atartia baizen zabala ta andia; antxe egozan Gaztela-mutil upagiñak panparrokeriya eriyuela.

Aramaioar agure zimelak ipiñi zituan atarte illun-illunian aulki luze bi, bata bestiaren urrango, ta bera parau zan aulkiyetatik kanpoko atea; andik ikusten eban ederto, sukaldeko argitara, sukaldetik urtetan ebana.

Makilliagaz lurrian arraskada bat egin eta diarka esan eban:

—Ja datozala ona mutil ollo orreek, bixerrik badabe! Ujujuju!

Diarra entzun orduko, tximistiak eraginda lez, yagi ta arrapaladan urten eben mutillak atartera, berna-azurrekaz yo aulkiyetan, eta orrek emoten dauan min zorrotz eruan eziñagaz yausi ziran bata bestien ganera, danak moltsuan. Aguriak ezaban astirik galdu; bere makilliagaz yo eban burutik-bera erruki barik, eta, arin. Ango aiene, ango garraixi, ango orroia, ango zarraparra, izugarriyak ziran! Sukaldetik andrak argiya atara ebeneko, aguria sartu zan eskumaldeko kortan, eta atze-aldeko kortatik buelta eginda, agertu zan bera be andren atzetik, sekulan bere biziyan plater bat ausi ezpaleu lez. Nok uste a izan zala makillariya? Ezta buruak emon be! Mutillak, danak eukiezan buruetan zauri mallatuak. Osakuntzia egin eutsien oriyo ta ardao nastuagaz sukaldian, atan aurrenengo ebillala agure zaar yotzallia. Inguru guztiyak ondo errekestau zituezan, ia iñun are-riyua topetan eben. Egitada kaxkarra egin ebala, kobarde bat zala, ta nor dan balekiye, makillaka azur guztiyak txiki-txiki egiñaz eriyotzia emongo leuskiyoela esaten eben mutil upagiñak. Andik geroago zabaldu zan Urkiola-inguruko erritxuetan yazoera ori, ta a agure zimela aterik-ate eskian «Aita guria» apalik erreztatuaz ebillanian, esan oi zan: «Orra or Aramaio zarra, Urkiolan bost mutil indartsuri berak bakarrik makillaka buruak auzi eutsiezana». Eta zelan izan zan ezekiyenak, ezeben siñistu gura izaten; gauza ezintzat emoten-eben, zertzeladak yakin arte.

II

Baña Gaztela-mutil benetakuak geruago izan ziran, karlisten lenengo gerratiaren ostian, 1840garren urtetik 1870garren urtera kitarrian.



España guztiyan bitzabalak, burdinbidiak eta beste iragi-lan asko egin ziran aldi atan. Orduan, aitaturiko upagiñak baño askoz geiago zabaldu ziran langille euzkeldunak, geienak argin, arotz, errementari ta pioiak, Gaztela guztiyan, Aragoen, Andaluzian, Estremaduran, eta abar. Orrexek ziran Gaztela-mutil berariyak.

Aldi atan jente biartsuak oñez egiten zituezan euren ibilketak, luziak izan arren; eta Gaztela-mutil areek Españako bazter guztiyetara zabaltzen ziran alantxe, oñez, ta etorri be bai. Euren erremintak eta aldatzeko soñekuak olezko kutxetan, sarrail-itxu bategaz itxita, aurreztik bialtzen zituezan Gaztelara mandazañen bitartez.

Orduko aldiyan salgairik geienak mandoz erabilten ziran batetik bestera, burdiz eruateko bitzabal gitxi egualako; ta manduakaz ebilzan gizonak mandazaña eben izena; ta euren bitartez, urrin-urriñeko uriyetara bialtzen ziran gauzak. Adibidez: Durangon mutil batzuk emoten eutsiezan mandazañai iru edo lau kutxa, esanik eruateko Zaragozara, ta onelako edo orrelako ostatuan izteko; mandazain areek yuaten ziran Durangotik Haroraño, eta an beste mandazain batzui emoten eutsiezan mutillen kutxak, eta areek eruaten zituezan Tudela edo Tarazonaraño, eta an, beste mandazain batzuen eskuetan izten zituezan kutxak, eta azkenengo areek eruaten zituezan Zaragozako ostaturaño. Ostatu-yabiak artzen zituan eta giltzpian ipiñi, mutillak eldu arte; orduan, kutxa-ganeko markak zeintzuk ziran eskatu ta gero emoten eutsezan. Orretaraxe bialtzen ziran gauzak orduan, eta etziran galtzen... ez ei ziran galtzen.

Gaztela-mutillak eruan eben Euzkelerriyaren ospe edo entzutia alde guztiyetara, Euzkelerri-zati bat ziran or-emen ebillana. Euren erderamordoloz, euren zintzotasunaz, euren alaitasunaz, eltzen ziran lekuetako jendiaren gogua irabazten eben, eta orregaitik, pozik artuak, ondo ikusiyak izaten ziran.

Euzkelerri-zati onexen izakerea erakutsi gura neuskixue, ta eztatik zelan; baña esturan erabagi dot emen edestutia, kontetia, euren yazoera batzuk, yazoera oneetan ikusi dagizuen Gaztela-mutil erne areen izakerea. Erri baten barri yakiteko, naikua da bertan yazoten dana yakitia.

Gaurko mutillak, Euzkelerritik alde-egiten dabengan, Amerikara edo, geienak izten dabez euren etxietan ikusi ta ikasitako erlejiñozko egintzak: meza entzutia, urtian bein autortu edo konpesetia, eguneroko otoitzak, eta olakuak; baña Gaztela-mutillen aldiyan itxuraz erlejiñuak gaur baño sakonago zituan sustarrak euzkeldunen gogoetan; alako mutil-aldra geienak ba, egintza orreek ziatz betetan zituezaneg ganera, egunero errosariyo santua errezetan eben. Onako mutil-aldra bat Valladolid probintziako

erri batera eldu zan, eta etxe baten ostatur jarri ziranen artian erabagi eben egunero errosario santua errezau biar ebela apal-ostian lotara baño len, euren gurasoakaz balegoz lez. Errosariyua giyetako izentau eben euretaiko bat; eta eurek ostatur egozan etxekoen eta auzokoen mira andiz, mutil indartsu ta sendo areek errezetan asi ziran. Gidariyak, eskuetako atzamarrakaz Abe Mariyak kontetan zituan. Lenengo misteriyua polito esan eta amaitu eben; sartu ziran bigarrenian, eta ezeukan amairik, Abe Mariyak bai yoiazan amarretik aurrera, amabost, amazortzi, ogei, ogetabost... alkarri begiraka ebilzan mutillak, eta alako baten esan eban batek:

—Baia... bigarren misteriyu onegaz gu kapaz gaituk Josapateko zelaian sartzeko be. Noz amaitu biok ba? esan eutson gidariyari, eta onek erantzun eban:

—Niri zer esan biak daustak? Zetan zagoz ba?

—Gitxienez ogetazazpi Abe Mariya bai yaruaguz, ta guri Gloria, noz abixauko dauskuk?

—Eta nik abixau biar dautzuet ala? Orren ardurea nik euki biar yuat? Nik aña atzamar dozuez eskuetan. Kontaixuez Abe Mariyak, nik lenengo misteriyuan kontau dodazan lez. Etzagoze orraiti señorito txarrak, gura badozue nik zaindutiya zeuek zaindu biar dozuena! Bakotxak bere aldiya zaindu daiala.

Urteiera onegaz barre batzuk egin ebezan. Gero, batek esan eban:

—Eta sobrau diran amazazpi Abe Mariya orrei, zer eingo dautsegu?

—Mutillak, esan eban gidariyak, konprome bazarie, ganetik Abe Mariya orreek Purgatoioko arimentzat izan daitezala.

—Ederto esana... ondo pentsaua... konprome... erantzun eben...

Eta errosariyuak yarraitu eban guztizko erarik onenian, laugarren misteriyuan bakotxak bere atzamarrakaz amar Abe Mariyak ziatz kontau zituala. Eta ordutik aurrerantza be, bigarren eta laugarren misteriyuan gidariyak «Gloria» deitu barik, danak «Gloria» zintzo esaten eben bere lekuan.

Gau baten, oñestu ta trumon-ots andiyak zirala, euzkeldun mutillak euren gelako leiuak zabalik eukezan, eta ostatu-yabia etorri yaken leiuak ixten guztiz asarre, esanik:

—¡Salvajes!... y tenéis las ventanas abiertas con los relámpagos que hay?... poco respeto tenéis vosotros a Dios, aunque rezáis mucho... yo ya sus conozgo ya!

Mutillak barre gozatsu egin eutsien, erantzunik:



—Usté si mucho miedo a Dios, porque cuando no hay relámpagos muchos le tira V.; pa tener tanto miedo, ¿por qué echa usted maldiciones? Sin errelámpago y sin truenos también ya le cogerá a usté Dios, ¿qué pienda usté, pues?.

Barrero ¡salvajes!, iru edo lau bider deituta yuan yaken andik birauti bildurtiya.

A gizona karlisten lenengo gerratian Euzkelerrriyan zazpi urtian ibi-lliya zan, eta berak inuanez, euzkera asko ikasi eban. Orregaitik, bein esan eutsen euzko-mutillai:

—No hablaráis, no, delante de mí todo lo que queráis en vascuence sin que yo sus entienda, porque conozco vuestra lengua.

Mutillak beriala igarri eben ak ekiyan euzkeria zala, sopia, patatia, ta onakua. Eta orduan, olako berba erderatik artuak diranen orde bestez batzuk asmau zituezan, eurentzako iztegi txiki bat egiñaz. Sopak esateko «apurrak» esaten eben; patatak, «durpekuak»; aguardientia, «gogorra»; baso, «eskuontziya»; peseta, «makurra»; guardiazibillak, «belaukiyak», eta abar. Aren aurrian ezeben bein be erdel-antzeko itzik esaten, eta beraz, ezaban gizon arek tautik be ulertzen.

—¿Qué, ya les intiende?, itanduten eutsoen etxeuak eta auzokuak.

—Ni miaja les intiendo —erantzuten eban—, éstos son mu cerraos.

III

Bein, Burgos probintziyako uri baten Durango inguruko mutil aldra bat ebillen zubi barri bat iragiten; orain eztakigu zegaitik bertako alkatiak etzituen mutillok maite, beti asarreka erabilten ebazan. Domeka arratsalde baten erriko plaza zabalaren erdiyan egozan mutillak barriketan; euren ondora urreratu zan txakur eder bat; alkatiarena zala esan eban batek, eta au entzunik, Abadiñoko Asensio Sagastasoloak, arrikada andi bat emonda bialdu eban txakurra txiliyoka.

Laster etorri yaken erriko alguazilla, esaten alkatiaren aginduz guztiyak erriko etxera yuateko. Yuan ziran ba, eta alkatiak itzaldi garratza egin eutsen, gogor eskaturik esateko nok yo eban txakurra. Erantzun eutsoen euren ezekiya, txiliyuak entzun zituezala baña ezabela ikusi nok arriya yaurti eban, euren ezegozala txakurra zaintzen, euren ezeutsela arduraik bape txakurragaitik, eta bakian izteko euren txakur kontu arekaz, txakur-rari batebategi emondako arrikadia gora-bera munduak ezabela ikaraingo ta.

Alkatia, mutillak bildurtziarren, euren izen-abizenak artzen asi zan eta papelian ipinten. Orretan ebilzala, txandia eldu yakon Asensiori be, ta alkatiak itandu eutson:

—¿Cómo te llamas?.

—Asensio.

—¿El primer apellido?

—Txakurra.

—¿Y el segundo?

—Jodabena.

—Asensio Txakurra Jodabena?

—Sí, señor, eso.

Au entzunik barre purrustadaka asi ziran lagunak, eta alkatiak zarra-parra andiya atara eban.

—¡De mí no se ríe dengún nació en el mundo! Yo sus aseguru que sabré quien de usotros ha apedreado al perro, aunque no lo quierais decir, y llevará su merecido. ¡Lo he de saber!.

—Ya temos dicho a usté, tanta copla, esan eban Asensiok urteieran, eta guztiyak barre zantzoka urten eben bape bildurto barik.

Murtzia aldeko abade bati entzuna. Bera txauburu eguan erriyan Gaztela-mutillak bizi izan zirala alditxo baten, Kartajenarako burdinbidegintzako lanetan ebilzanak. Batek be ezabela utsik egiten eleizara domeka ta yaietan. Domeka baten, meza bitarteko bere itzaldiyan laguntza eskatu eutsela eleiztarrai onegintza baterako, adirazorik atabaka bat ipiñiko zala eleizako atian, bakotzak emon gura ebana artzeko. Eta egun atan ikusi zala inoz lenago an ikusi etzana, atabakan txakur-diruen ganera agertzia zidarrezko dirua ugari... eta... urrezko amaseiko bat, ontzurre bat!

Abadiak esaten eban ezagun zala euskeldunak bota zituezala zidarrezko ta urrezko diru areek, ordura arte ba erri atan a lako eske-aldiyetan etzala txakur-dirua baño ikusten. Abade arek esaten eban mutil euskeldun areek, eskuzko langilliak izan arren, zaldunak zirala beren agerkeria ta egitada guztiyetan; eta bai berak, eta bai erri guztiyak, asko maite zituezala.

Gaztela-mutil areen artian gazte azkarrak urten eben. Ona euretaiko baten barri. Palentzia probintziako Osorno uriyan zubi barriya iragiten inarduen. Injiñerua, gudari edo militarra zan: gogorra, baña arteza. Onak autatu gura eban argin bat, arri landuak ontzat artzeko ta euren lekuan ipinteko; orretarako dei-egin eutsen argiñai, a zeregiña gura ebenak agertzeko; dei areri erantzun eutsoenen tartian euskeldun mutil gazte bat zan,



ogei urtetik berakua, erderaz iya ezer ezekiya. Injiñeruak emon eutsen marrezki edo diseño bat, eta onen arauz argiñak arriya lantzen asi ziran, eta guztiyak baño lenago ta obeto arriya landu eban euzkeldun gazte-txuak. Eta injiñeruak axe autu eban arri landuak ontzat artzeko ta biar zan lekuan ipinteko.

Ori txarto eruan eban gazte aregaz neurtu ziran beste argiñak, guztiyak erdeldunak, Santander probintziakuak; ondiño ume bat zala, iñoen, berba egiten be ezekiyan basati bat zala, ta ia arek zer egin biar eban. Gorrotua artu eutsoen, eta beti ebilkozan zain-zain, utsen bat egiten bae-ban injiñeruari esateko.

Jazo zan ba, argin euzkeldun bat arriya lantzen ebillala, iya amaitzen bere lana, arriyari ertz baten zati oso-osuan, au da, birrindu barik, azkatu yakola; estutu zan argiña, arriya lantzen emondako denporia galdu biar ebalako, ta arri-artzalle gazte areri esan eutson yazo yakona. Gaztiak, baña, arriya ikusi ebanian esan eban:

—Zatiya osorik yagok, eta ointxe neuk ondo ipiñiko yuat, ez adi estutu.

Pasta bat egin eban sartan baten, eta arexegaz irantzi eban arri-zatiya bere zuluhan, eta ipiñi eban iñok ez igarteko moduz. Ontzat artu arri landua eta zubiyan bere lekuan yarri eban.

Nundik edo andik lurruna artu eban gaztiari gorrotua eutsoen argin erdeldunak, eta injiñerua yakitun ipiñi eban. Au, zubira yuan zan ezor-duan aretaiko salatari bat lagun ebal. Euzkeldun gaztiak ikusi zituenian ara yuaten, galdua nok agin-artian esanaz, zubiyanen beste aldera yuan zan, andik areen berbetia entzuteko goguaz.

—¿Dónde está la piedra esa?, itandu eban injiñeruak.

—Es una de ese arco, erantzun eban salatariyak.

—¿Pero cuál? ¿Dónde está la compostura?

—Pues ahí debe de ser; pero no lo veo desde aquí.

—Traiga una escalera enseguida.

Eskillaria ekarri ta igon eban, eta ezin igarri nun zan. Injiñeruak orduan esan eutson:

—Pues está uste bueno que no sabe donde está la falta. Que venga Carlos inmediatamente.

Au zan gaztia. Etorri zanian, injiñeruak itandu eutson ia egiya zan arriya konpondu ebal, ta beriala baietz erantzun eban; ia erakusteko nun eguan konponduta, ta eskillara igota atzamarras erakutsi eutson injiñeruari. Onk orduan agindu eutson mutillari yasteko, ta gero berak igon eban, ondo ikusteko zelan eguan. Yatsi ta itandu eutson Karlosi a zegai-

tik egin eban. Eta erantzun eutson bere erdera mordolloz ta adirazo; kontontze arek ezeutsola ezetan be obriaren sendotasunari ukutzen, eta bere lagun batek a lan guztiya galtziak min-emon eutsola. Injiñeruak orduan esan eutson:

—Muy bien hecho. El hueco del trozo que se soltó no afecta a la solidez de la obra, como tú muy bien has dicho; hubiera afectado a su presentación, y tú lo has corregido de tal modo, que este acusador no ha podido conocer dónde está la compostura ni la conocerá nadie que no esté enterado. Repito que muy bien, vizcaíno. Así se trabaja.

Geruago, a Karlos mutilla argin-maisu onenetaikua izan zan Bizkaian.

Neure erriko iru gaztela-mutil bai etozan Aragoen etxera-bidian, oñez, beti lez. Eurekarren bitxabalera yoten eban ziarbide batetik agertu yaken gizon aragoetar bat, baltz igerra, bere praka motz, gerriko andi, buruko zapitxuagaz, taketa lakoxe gorputz arteza, ibilkera leun eta bizkorra zituana: eta berari itandu eutsoen:

—¿Cuántas horas hay de aquí a Ateca?

—Pa usotros... una cuatro horicas, erantzun eban.

—Y pa ti cuánto?, itandu eutson barriro mutil batek.

—Pa mi algo menos... en tres horas me planto allá.

Arriyuta gelditu ziran mutillak.

—Geu be ez gaituk ba txarrak oñez ibiltan —alkarri esaten eutsen— ordubeteko aldia atarako al yeuskuk ba emendik Atekara?

—Izan leitekek, baña ikusi arte etxuat siñistu gura, iñoan mutil batek.

—Era ona ointxe yuagu ba ori ikusteko, gizon ori be Atekarantz duala yirudik eta.

—Itandu egin biar dautsogu: ¿Tú también vas a Ateca o qué?

—A Ateca voy, sí, izan zan bere erantzuna.

—Ointxe neurtuko gaituk ba.

Abiyau ziran al eban bizkorren, eta laister atzian itxi eban praka motza. Atekara eldu ziran ordu bi ta erdi baño zerbait geitxuaguan. Begiratu eban atzerantz eta etzan ondiño agiri Prakamotz. Uriyaren sarreran bertan ardautegi bat eguan, eta mutillak asmua artu eban antxe itxaron biar eutsoela, ta eldueran basobete ardao eskiñi. Yezarri ziran ba, ta an egozan zain. Noizbait, iya ordubete geruago, agertu zan aragoetarra. Baña urrindik uartu zituen berari itxaroten egozala, ta bidia ausirik, beste leku batetik urira sartu zan, burla egingo ete eutsoen bildurrez.

—Aragoetarra baño andalusa geiyo yirudik orrek, esanda yagi ziran euzkeldun mutil areek, euren bidia yarraitzeko.



IV

Gastela-mutillen artian asko ziran kitarra yoten ikasten ebanak, baita txilibitua ta panderua ba; orregaitik, zapatuetan, apaldu ta gero kaleik-kale urteten eben errondan, yoten eta abestuten, geien-geienetan bakez ta umore onian, erriko mutillakaz alkarturik.

Aragoeko uri baten, gaztela-mutillak bertara eldu ta bigarren sapa-tuan errondan urteteko egozala, eldu yaken bertako bat esaten gau atan erriko mutillak ezeutsiela errondan ibilkten itxiko, gertu egozala erbeste-koai kaletik alde-eragiteko, an ezebela biar errondaririk errikuak baño, ta onan.

Euzkeldunak erantzun eben urtengo ebela ta ikusiko zala nok alde-egin biarra izango eban kaletik. Alan ondo ornidu ziran adakiz ta izki-lluz (armaz), eta garaunik be etxian gelditu barik, danak batera urten eben errondan. Euren buru lez egiten eban morrosko batek onan itz-egin eutsen:

Mutillak, bakie gurau yuagu, baño gerrie gure baiuek gerrie emongo yeutseguk; alkarren eskuetara sartzen bagara, yo, yo gogor, erruki barik, barriketaik bapez ta emon! Orain, auzi au zetan dagon ikusi biar yuagu, guezan beriala euren billa; gu ixillik, ikusi eurek zer esaten edo zer egiten daben, eta gertu erantzuteko. Atzera edo aurrera arin egin biar yuagu.

Yuan ziran ba erriko errondariyen billa; igaro ziran alkarren ondolik, bitzuek ixillik. Euzkeldunak, urrengo ziarkaletik bidia laburtu eta beriala barriro aurrian agertu yakezan; orduan be ixillik igaro ziran alkarren ondolik. Barriro be gure mutillak lengua egin eben, bidia laburtu ta aurre-ra urten. Orduan errikuak, kitarrak ixilduta, gelditu ziran; euzkeldunak be bai. Onei erriko batek esan eutsen:

—Muchachos, ¿es que tenéis algo con nosotros?

—Tenemos y no tenemos, erantzun eutson euzkeldunen buru lez ebillan morrosko arek.

Eta beriala adirazo eban zer esan eutsien euzkeldunai; errikuak a erantzunaz batera danak «eso es mentira!» erantzun eben, bizi-bizi, eurek ezebela alako asmorik izan, barritxuen gauzak zirala, ta olan.

Erriko batek esan eban:

—Muchachos, ¿queréis que andemos juntos y siempre amigos?

—Sí, sí, toros amigos, erantzun eben pozik euzkeldunak.

Eta gau atan, baita aurrerantzian, beti alkarregaz ibilli oi ziran erriko ta erbesteko mutillak, oneek erri atan egon ziran aldi guztiyan.

Aldi atan uri andi askotan egozan oiturak gaurko jentia ezin sifistu leikez. Errioja-ziar Aragoera yoian gaztela-mutil pillo bat, San Prantzis-koren zaldi ganian; eguraldi bero samarrak ziralako gabez ibiltzen ziran. Orregaitik eldu ziran Logroño urira egun sentiyen, eta bai yoiazan kale-rik-kale uriya-ziar igaroten, bertan gelditzeko uste barik. Alako baten zabaldu zan leio bat, eta «jagua va!» didar-egiñaz bota eben kalera parras-tada bat mutillen urtxo. Ikaratu ziran, eta alkarri esaten asi ziran: Mutillak, au dok useñe —Txarri arraiuek— «Aguá» esan yok baño «agua» baño gei-txuago dok.

Onetan, beste leio batetik «jagua va!» didarragaz atara eben ontzi sakon eta me bat, eta bota eben bertatik kalera parrastada izugarriya. Eta gero beste leio batetik bardin, beste batetik be bai, eta beste batetik, alde guztiyatetik «jagua va!» entzuten zan, eta parrast ortik, parrast andik, bil-dur emotekua zan. Mutillak izutu ziran osoro, ta alegiñian añeketan asi ziran zoratuta lez, ta uritik urten ebenian arnas-estuka zutunik be egon eziñik lurrian yezarri ziran. Txarriyak, txarriyak, txarriyak! eta txarriyak! Txarri demoniñuek!, esaten eben.

Gizon batek, alan ikusita, esan eutsen:

—De güena sus habeis escapao. ¿Es que no sabís que al amanecer vacían a la calle todos los dompedros? Pa otra vez ya estáis enteraos.

Oitura «hijienikua», arraietan!

Zaragozako ostatu baten aurkitzen ziran bein gaztela-mutil batzuk bazkalduten bertako ostatu-mai luzian, beste jente batzukaz. Oneen artian abadegei bi be bai ziran. Maiyan egozanen izketeak, gai asko ukutu ondoren, euzkeldunen erlejiño-zaletasunera yo eban. Maiko guztiyak emoten eben Euzkelerriko jentia erdelerrikua baño zaliagua zala elizara-ko; ori, guztiyak autortzen eben.

Abadegei biyetaryk batak esan eban, alan be, Euzkelerriyen baño santu geiago eukela erdelerriyen; euzkeldunek santu gitxi, oso gitxi, euke-la, banaka batzuek bakarrik. Gaztela-mutil batek esan eutson erdel-erriko santuak martiriak izan dirala geienak. Abadegeiak orduan onan erantzun eutson:

—Es verdad eso, y es una honra para nosotros.

—Con el ondra el desondra también ya tenéis en eso, esan eutson euzkeldunak, mártires si habéis tenido quien matar a ellos también habéis tenido. Ondra si tenéis, nosotros no negamos, pero desondra también. En nuetra tierra no mataron cristianos, la erligión de Cristo sin mártires entró. Más ondra es, ¿no es verdad o qué?



—No se puede con vosotros, para todo tenéis contestación, esan eban abadegeiak, y eso que no sabéis ni hablar; el día que os lo enseñen, ¡a ver quién para con vosotros!

Len be esan dot, gure gaztela-mutillak oso maitiak ziran Gaztel-erriyan: Sarri itz-egin dot Gaztelako erri askotan bertako zarrakaz euzkeldun mutil areen gain eta guzti-guztiyak, beti, gure mutillen gorralben andiyak egiten izan dabez. Etxaken besterik entzuten: «¡Qué muchachos aquellos!, fuertes, nobles, trabajadores, alegres y parciales como naide. Todo el mundo los quería».

Biargiñak lez entzute andiya eben uriñetan be, orain edestu edo kontauko dodanak argi erakusten dauan lez. Valladolid aldian euzkeldun talde andi bat lanian ebillan. Jakiña, iragintza edo obra andi areetan ezebiltzan euzkeldunak bakarrik; bai ziran Santander, Asturias, eta Galiziako langilliak be. Egiya da euzkeldun geienak arotz, argin, igeltseru, errementari, au da, berarizko lanbiden bat ebenak, opiziodunak, izaten zirala, eta beste aldeetakuak, barriz, geienak besalariyak, pioiak, izaten ziran.

Bein agertu zan ara gizon bat, Portugaldik bialdua, langille-billa, Oporto aldian egiteko ziran iragintza batzuetarako. Aloger ona eskintzen eban. Baña, euzkeldunak bakarrik eruan gura zituan; alantxe agindu eutsoela ango ugazabak, esanik.

Euzkeldun askotxo yarri ziran gertu Portugalera yuateko; beste askok ezeben yuen gura izan, bertan polito irabazten ebela-ta. Portugale-ra yuanda aste pare bat geruago yuandako bat agertu zan lengo tokiyan, eta barrero lana eskatu eban. Bera zan Bizkai baserri bateko semia, euzkomutil eredua, andiya, indartsua, berba gitxikua, ona ta baketsua. Euzkeldun utsa zan; ezekiyan erderaz.

Bere lagunak, ikaraturik ikusi ebenian, itandu eutsoen:

—A mutil, zer izan dok atzera etorteko?

—Enaiuek artu gura izan, euzkeldune enazala-ta.

—I ez azala euzkeldune? I ezpaaz, nor izango ete dok?

—Asi zuazan izenak eta apelliduak artzen, eta niriak eskatu euste-zanian eta nire apellidua entzun ebenian, esan yeustien an ezeguala niretzako bierrrik, euzkotarrak bakarrik gura ebezala.

—Zein dok ba ire apellidue?

—Errodrigues.

—Nok uste izango yuan i lako euzkeldun bete-betekuak apellidu ori euki biar ebala?

—Etxakiyak ba zelan dan; nire aita, ta nire aitita be bai, gure base-
rri-etxian yaiuak zuazan, etxuat bein be entzun gure yatorrian gaztelarrik izan danik; baña Errodrigues nok, gure nai gurez.

—Bada-ezpadan gorde apellidu ori ta bigarrena erabili egik. Eta ire lagunak, etxuek ire alde urten ala?

—Bai; esan yeutsiek ni bizkaitarra nazala, euzkeraz bakarrik dakidala, eztodala erdeldun antzik, iñundik be, ta olakuak esaten iñardu yuek, baia dana alperrik, apelliduari bakarrik begitu yeutsiek.

Jazoera onek adirazoten dau zelako maitetasuna eben euzkeldunak aldi atan. Guzurra dirudi Errodrigues abizena eukiagaitik mutilla ez artu nai izatia. Eta ori Portugalen.

V

Mutil euzkeldun areek geienak etxera etorten ziran Gaztelatik ibilli ta gero; baña euretatik beste asko, an-or-emen ezkontzen ziran ango neskatillakaz, ta an bizi izaten gelditzen ziran, argintzan, miña-lanetan, etxegintzan, eta onetariko lanbidietan euren ogiya irabaziyaz. Onetaikuak euzkel-abizenak erein zituezan eta erne, erdelerri guztiyan. Asko dira Gaztelan euzkel-abizena dabenak, euren artian gizon argi, ospatsu eta goilekue-tan yariyak ez gitxi, gaztela mutil zintzo areen azitik datozeanak.

Guadalajara probintziyan Sigüenza deritxon uriyan neuk ikusi neban, orain 33 urte inguru dala, mutil aldra bat, euren antz, yanzkera, goiera, azal, ibillera ta guztiyan ango jentiaeren itxurarik ezebenak; bein pelotan ikusi nituan eta emengo antzera yoten eben pelotia, besua zabal, ez gorputzari yosita lez, eta beste bein arriya lantzen iragintza edo obra baten aurreko bide-onduan, euren lagun bati esan neutson:

—Oneek ezukeldunek izan biar yuek.

Euren artian agure bat be bai ebillan, eta begira-begira yarri yatan, eta itandu neutson:

—Euzkeldunak zarie?

—Bai jauna! erantzun eustan poz-pozik. Egiya esateko, yarraitu eban, neu naz emen euzkelduna; oneek eztakiye, baña guztiyak dira euzkeldunen semiak. Neure seme bi be or dabiz lanian.

Agure a Gernikarra zan, Zabala abizenduna. Berak esan eustan, ango burdinbidia egin zanian ara yo ebela euzkeldun askok, eta ogei inguru bertan ezkondu zirala, eta bertakotu.

Gero, uri atako beste batzukandik yakin neban euzkeldun arei uri guztiyan maitetasun andiya eutsoela.



Gaztela-mutil areetatik bai ziran Españatik kanpora be zabaltzen ziranak, batzuk Aprikara, beste batzuk Europako beste erriyeta. Onetaiko bi, neu mutil gaztia nintzala, orain berrogetaz urtiak, ezagutu nituan. Bizkaiko Ibarrangeluko semiak ziran. Gizon sasokuak nik ezagutu nituan. Euzkelerriko edertasunaz mirariturik egozan, ezeguala inon be au lako lurralderik esaten ebela. Igarten yaken gazterik alde-eginda gure eri onetatik, etorri barriyak zirala. Neuk itandu neutsen Amerikako zein alde-tatik etorriyak ziran, eta arrituta gelditu nintzan entzunik Serviatik etozala.

Esan be egin neutsen:

—Zelan arraiio yoan ziñean Ibarrangelutik Serbiaraño?

Edestu eusten gaztela-mutillak izan zirala: Andaluzi aldiari iragintza batzuk amaitu ziranian, euren ugazaba zan injiñeru prantzesak esan eutse-la yuateko Arjeliara beragaz, an iragintza andiyak ebazala, ta polito irabaziko ebela. Juan ziran, ba, Arjeliara, ta an urte batzuk ibillita, injiñeru prantsez aregaz yuan zirala Viena Austriakotik Constantinoplarako burdinbidetara. Austrian aldi baten egon zirala, ta euretarike bata ezkondu be bai ango neskatilla bategaz. Gero, Serbiara igarorik, an urte askuetan bizi zirala, iya bertako eginda, iragintza kontratakin ezkurra polito baturik, eta Euzkelerrira bigurtuteko uste barik. Baña ezkonduari emaztia il yakon lenengo, ta geruago il yakozan ume bat edo bi, gelditurik bakar barriro be. A naigabe andiya zelanbait ibituteko, lagunak esan eutson Euzkelerrira etorri biar leukiela, ganera lan-egin barik zegaz bizi eukien ezkerro. Eta orduan erabaki eben euren ollo-lurrera etortia. Eta etxakela damutu esaten eben, errialde au zoragarriya zala eurentzat, ainbeste urtitan urrin ibil-yagaitik erdi aztuta eukela, ezebela ain ederra danik uste, asmo gogorra artu ebela inora ez alderik egiteko, eta euren azurrak emen izteko.

Orain amaitu baño lenago, aitatu biar dautzuet euzko langille bat, gaztela mutilla izan etzana, baño onen antzera urtenik bere erritik kanpora, euzkeldunen izena leku onian ipiñi ebana. Orain aitatu dodan gizona, gaztela mutillan aldiya baño ontsukuaua da, iya geure egunetakua, ondiño bizi da.

Arrieta deritxon Bizkai-erriko mutil gazte bat, oso azkarra burdiña lanetan, errementari ona, bere lanbidia obeto ikasi gurarik, Parisera yuan zan orain 39 urte, 1880garren urtitan, uri atan orduan Erakusketa nagusi-rako gertakizunak egiten iragintza asko ta andiyak egozalako.

Burdiña-langintzan ikasi al zana ikasi gura eban gazte arek. Etzan ukabilketa, etzan añeketa, etzan beste kirolgetarik berak ikasi gura ebana; ondo lan egiten ikastera yoian. Asmo txalogarriya.

Gazteleraz oso gitxi ekiyan, pantzeraz osteraz tautik be ez. Inoren laguntza barik, bere buruz ta diruz Parisera bida artu eban. Ara eldurik, Eiffel-Torreko lanetara zuzendu zan: bertako injiñeru batek zelanedo-alan ulertu eutson lan-egin gura ebala iragintza aretan, eta yakitiarren zelako langillia zan, sutei batera eruan eban, marrezki edo dibujo bat emon eta itandu eutson ia a lako burdiña-zatiya landuko ete eban; mutillak arin ulertu eutson, eta beriala lanian asi zan suteian, eta laster asko egin eban injiñeruak agindu eutsona. Oneri atsegin izan yakon mutillaren lana, eta bertako langille artu eban. Alditxo bat igaro zanerako, injiñeruak Arrietako mutilla ipiñi eban burdiña-landuak torrian yosten ebiltzan langille aldra baten buru, ta alan yarraitu eban Eiffel-Torre ospatsua amaitu eben arte.

Gurari bat sortu yakon; torre andi ospatsuaren azkenengo eta gorengo zatiya berak bere eskuz ipintia. Eta bere gurariya erraz bete al izan eban, ango burdiña-zatiyak yosten ebiltzan alderetatik bataren buru zalako; berak bere eskuz amaiera emon eutson torre areri. Euzkelerrira goratzarren euzkeldunen izena leku onian ipintiarren sortu yakon bere gurariya, ta bete eban. Arrietako gaztiak, an lanian ibilli zan bitartian, ezaban beste gogorik izan burdiñagintzan ikastia baño; egun guzti-guztiyan eta egun guzti-guztiyan, erne ebiltan, adi-adi, begiya zorrotz, dana ikusi ta dana ikasi biarrez. Onelako gogo senduagaz, ta bere adimen argiyagaz, asko be asko ikasi eban.

Bera langilletzat artu eban injiñeruak esan eutson beragaz yuateko Europa-Sortaldera, Errusia aldera, an burdiñazko iragintza asko (zubi, merkatu, ta abar) egiten yoiatzala-ta pantzetar kontratistak. Baña euzkeldunak ezetz erantzun eutson, bere aberrira etorrira bere kontura lan-egitara. Orduan injiñeruak esan ei eutson: «Azeriya zara, gure artera ikasten etorri, eta ikasi dozunian bai zuakiguz, emen ikasirikuari zeure errialdian koipia ataraten. Tira, ba, asko atara egiyozu, ta ondo bizi zaitez».

Etorri zan Paristik, ipiñi eban burdiña-lantegi apala Bilbon, lana guztiz ondo ta saneurri begiratuan eginik entzutia artu eban, burdiña urtu lanetan bera baño oberik ezeguala danak aurrez esaten eben, lantegi apala zabaldu eta anditu zan, geitu be bai, gaur «dantegiya» deitu litzakiyoela, bertan langille asko dabilela bere semien nagusitzapian. Bera zarra danez, lanetik alde-eginda dago, baño etxako egun bat igaroko berak sortu ta irasiriko lantegiyetan gitxienez sartu-urten barik.

Gizon onen izena esan biar dautzuet, berari atsegin izango etxakon arren: Julian Abando.



A da euzkotar eredu agiriya: zintzo, apal, argi, langille, euzkeltzale, ta gauza guztiyen lenengo ta ganetik, kristiñau ona. Bilboko Areatzaren erdi-erdiyan badago be, eguerdiko naiz illuntziko aingeru-kanpaiak ots-egiten badau, bertan txapela erantzi eta errezetan ditu zintzo iru Agur Mariyak.

Onelako gizonak maitiago izaten dodaz, kirol-arazoetan «as» edo «bateko» izatera eltzen diranak baño, kirola baño lana lenago dalako ta gorago dagolako.

Orra ba, zelan edo alan emon dautzuet gure Gaztela-mutillen barri. Len, asiyeran, esan dot, Gaztela-mutil areek Euzkeleerriyaren zati bat zira-la, ta zati onen edeski edo historiya egin gura neutzuela. Oiturea da, edes-kiren bat egiten dauanak, bere liburu edo bere lanaren azkenian ipintia nondik artu dituan edeskiyaren zertzeladak; an agertzen dabe zeintzuk liburuetan, zeintzuk agiri edo dokumentuetan idoro dabezan zertzelada areek; liburu eta agiriyen erreskadea ipinten dabe, burutzat dauala «fuentes de conocimiento», au da, yakintz-iturriyak.

Nire edeskiyaren yakintz-iturriyak eztagoz liburuetan, eztagoz ingi-zartegiyetan (artxiboetan); nik zertzeladak idoro dodaz iturri bitan: bata, ezagutu dodazan Gaztela-mutil izandako zarrai entzuna; bestia, Gaztelan ibilli izan nazan erri askotan bertako zarrai entzuna. Iturri bi orreetatik yakín dodan zerbait esan dautzuet. Julian Abandoren zertzeladak eztautsodaz berari entzun; urte askotxo dala entzun neutsozan Bilbon bertako yaun bati, gaur diru-etxe baten buru edo artezkariya danari.

Gaztela-mutil zintzo areek, eta zuek, neure entzuliak, ni baño edes-kari obia merezi zenduen; baña, nik al dodana egin dot, eta parkatu.

Agur andrak, agur gizonak.